


Setem



III FASEA

INDARKERIA

kontsumitzen dugu?

Indarkeria matxistei eta kontsumoei buruz ezagutza
sortzeko eta ikasteko prozesu kolektiboa

Sistematizatzaile eta idazlea:

Laura Modonato (feminismoaren, migrazioen eta garapenaren inguruko aholkulari independentea).

Landa-lana:

ERROTİK kooperatiba feminista (Gisela Bianchi eta Savina Lafita).

Argitalpen-batzordea:

Mugarik Gabe (María Viadero), Altekio, Iniciativas hacia la Sostenibilidad enpresa soziala (Conchi Piñeiro eta Laura Lucio González), Pikara Magazine (Teresa Villaverde), Tatiana Romero Reina (ikertzaile feminista independentea), SETEM Hego Haizea GGKE (Magda López Gorritxo, Ainhoa Bilbao Arkotxa, Iratxe Arteagoitia Recalde eta Laura Castresana Martínez).

Diseinatzaile eta maketatzailea:

Labox Marketing y Comunicación.

Ikerketa hau formatu digitalean aurkitu dezakezu hemen <https://www.setem.org/euskadi/eu/kanpaniak/kontsumoa-eta-indarkeria-matxistak/>

Lan hau Creative Commonsen Aitortza-Ez Komertziala-Partekatu Berdin 3.0 Espainia lizentziapean dago.



Argitalpen hau Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren laguntza ekonomikoarekin egin da.

Dokumentuaren edukia SETEM Hego Haizearena ez beste inorena da.

Laguntzailea:



AURKIBIDEA

> ESKERRAK EMATEA	7
> SARRERA	8
1 LAN-PROZESUA ETA METODOLOGIA	10
2 MARKO TEORIKOA	15
1. Kontzeptu nagusiak	17
> Zer da indarkeria matxista?	17
> Zer da kontsumoa?	20
2. Aztertu diren kontsumo-esparruak eta hautaketa-irizpideak	21
3. Errealitateari nondik begiratzen diogun	24
4. Sistema kapitalistaren eta sistema heteropatriarkalaren arteko aliantza: bizi-bortiztea	27
4.1 Kapitala-bizitza gatazka	29
4.2 Kontsumo kapitalista: desorekak iraunaraztea eta bizi-bortiztea jasangarria galaraztea	30
5. Indarkeria matxisten eta aisialdiaren eta denbora librearen kontsumoaren arteko lotura	31
5.1 Hurreratze kontzeptuala: aisialdia, denbora librea eta denbora askatua	32
5.2 Aisialdia giza eskubide gisa	34
5.3 Aisialdia kontsumoaren gizaratean	35
5.4 Kritika feministak aisialdiaren azterketei eta analisi-ikuspegi berriak	36

3 IKERKETAREN EMAITZAK	40
1. Helburuak eta hipotesiak	41
2. 1. helburua: nola ulertzen dira aisialdia eta denbora librea	43
1. hipotesia. Galdetutako pertsonek aisialdia eta denbora librea nahasten dituzte	44
> Laburbilduz	47
2. hipotesia. Aisialdia eta denbora librea nahastearen nahitasun hori sistema kapital / kolonial / heteropatriarkalak sortzen du	48
> Laburbilduz	51
3. hipotesia. Galdetutako pertsonek aisia logika kontsumistarekin ulertzen dute	52
> Zer aisialdi-jarduera mota egiten dituzten	52
> Norekin egiten dituzten aisialdi-jarduerak	57
> Non egiten dituzten aisialdi-jarduerak	59
> Zenbat gastatzen duten aisialdi-jardueretan	60
> Aisialdi-ereduaren inguruko pertzepzioa	62
> Laburbilduz	66
3. 2. helburua: nola eragiten dute desoreka-ardatzek aisialdiaren eta denbora librearen gozamenean	67
1. hipotesia. Atzerritarren Legeak Euskadira etorritako etorkinei galarazten die espazio publikoaz gozatzea	68
> Laburbilduz	71
2. hipotesia. Gero eta erosteko ahalmen handiagoa, orduan eta BBVA ereduaren gozamen-gaitasun handiagoa	72
> Inkestaren emaitzak	73
> Eztabaida taldeetako eta elkarrizketa sakonetako emaitzak	79
> Laburbilduz	81
3. hipotesia. BBVA aisialdi-ereduak pribilegio handiagoak dituzten profil jakinei dakarkie onura	82
> Laburbilduz	86

4. hipotesia. Lanaren sexu-banaketak eta maitasun erromantikoaren kontzeptuak emakumeen aisialdia eta haren erabilera murrizten dituzte	87
> Aisialdia astelehenetik ostiralera	87
> Aisialdirako orduak asteburuetan	90
> Bikotekidea duten pertsonak	93
> Laburbilduz	95
4. 3. helburua: aisialdi merkantilizatuak dakartzan indarkeria matxistak	96
1. hipotesia. BBVA aisialdi merkantilizatuaren eredu kontsumistak indarkeria matxistak sortu eta birsortzen ditu (egiturazkoak, sinbolikoak eta zuzenekoak)	97
> Intersekzionalitatearen diagramak	98
> Laburbilduz	100
Egiturazko indarkeria	101
Indarkeria sinbolikoa	106
Zuzeneko indarkeria	111
> Laburbilduz	117
5. 4. helburua: indarkeria matxistarik birsortzen ez duen aisialdiaz gozatzeko gakoak	120
3.5.1 Beharrezko eztabaidak indarkeria matxistarik gabeko aisialdiaz gozatzeko proposamenak egiteko	121
3.5.2 Proposamenak	126
> Aldaketa pertsonalaren ahalmena	126
> Indar kolektiboaren ahalmena	126
> Joko-arauak aldatzeko ahalmena	127
4 ONDORIOAK	129
5 BIBLIOGRAFIA	137

*“Kontsumo-gizartearen xedea da
plazerak etengabe ematea eta haren funtsezko
helburua hil arte dibertitzea da”
Vicente Verdú (2005)*

ESKERRAK EMATEA

Magda López Gorritxo, Ainhoa Bilbao Arkotxa, Laura Castresana Martínez eta Iratxe Arteagoitia Recalde (SETEM Hego Haizea GGKE), Conchi Piñeiro eta Laura Lucio González (Altekio, Iniciativas hacia la sostenibilidad empresa sociala), María Viadero Acha (Mugarik Gabe GGKE), Teresa Villaverde (Pikara Magazine), Tatiana Romero Reina (ikertzaile feminista independentea), Laura Modonato (feminismoaren, migrazioen eta garapenaren inguruko aholkulari independentea), Gisela Bianchi eta Savina Lafita (Errotik kooperatiba feminista), Ana M. Poveda Boj (EHGAM Gorbeialdea+ erakundearen kidea), Zaira García Dafonte (feminismoaren eta LGTBI+ kolektiboaren inguruko aholkularia), Itxi Guerra (aktibista antikapazitista) Mónica Gortayre (aktibista feminista antirrazista), Matxalen Legarreta-Iza (Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU), Nadia Domínguez Pascuales, Paz Antolin, Sara Andrés Antón, Eztitxo Larrea Tena, Marta Lorenzana Gámez, Leire Indurain Martín, Eneida Olaizola, Hodei Herreros Rodríguez, Marta Díez Arce, Luna Latorre Álvarez, Sandra Garzón, Daniela Sisa Rodríguez, Daniela Moreno eta Matilda Noriega.

SARRERA

SETEM Hego Haizeak 2015ean ekin zion indarkeria matxistei eta kontsumoei buruz ikasteko eta horiek ezagutzeko prozesu kolektiboari. Indarkeria matxisten eta kontsumo kapitalistaren arteko lotura ikusarazteko helburua zuen, bai eta kontsumo kritiko, arduratsu eta eraldatzailearen (KKAE) bidez errealitatea eraldatzeko alternatibak proposatzea ere. Horretarako, marko teoriko bat landu genuen, salatzen duena kapitalismoa hetereopatriarkatuak sostengatutako zapalkuntza-sistemetako bat dela, eta genero-desberdintasunak, oro har, eta indarkeria matxistak, bereziki, betikotzen dituela. Halaber, landa-lan bat egin genuen ere; hari esker, indarkeria matxistak eragiten dituen kontsumo kapitalistaren lau esparru antzeman genituen: elikadura eta etxeko produktuak (etxeko esparrua), estetika (esparru pertsonala), eta mugikortasuna udalerrietan (esparru publikoa).

- Ikerkuntza-txostena: SETEM Hego Haizea (2015): *Indarkeria kontsumitzen dugu? Indarkeria matxisten eta kontsumoaren inguruan ezagutza sortzeko eta ikasteko prozesu kolektiboa*¹.
- Indarkeria matxistarik gabeko kontsumorako hausnarketa-gidaliburua: SETEM Hego Haizea (2015): *Indarkeria kontsumitzen dugu? Indarkeria matxistarik gabeko kontsumorako hausnarketa-gida*².

2016an bi dokumentu horiek argitaratu eta gero, SETEM Hego Haizean lan handia egin genuen eskuratutako emaitzak gizarteratzeko, hirugarren sektoreko erakundeen eta, oro har, herritarren artean. Lan horri eta jasotako *feedback*ari esker, indarkeria matxisten eta kontsumoen arteko loturaren inguruan sakontzeko beste ikerketa-esparru batzuei heldu behar geniela konturatu ginen. Zehazki, indarkeria matxisten eta fikziozko serieen (ikus-entzunezko aisiaren esparrua), telefono mugikorren (teknologiaren esparrua) eta etxeetako energiaren (etxeko esparrua) kontsumoaren arteko lotura aztertu genuen. Halaber, ikerketari esker, hainbat proposamen aurrera eraman genituen, kontsumo kritiko, arduratsu eta eraldatzailearen eredurantz hurbiltzeko. Horretarako, hiru mailatan aritu behar ginen:

- Aldaketa pertsonalaren ahalmena: arlo pertsonaletik zer erabaki hartu eta zer egin dezakegun modu kritikoago, arduratsuago eta jasangarriagoan kontsumitzeko, aldi berean tresna eraldatzaile izanda.

1. Eskuragarri dago hemen: <https://www.setem.org/euskadi/wp-content/uploads/sites/16/2021/09/indarkeria-kontsumitzen-dugu.pdf>

2. Eskuragarri dago hemen: <https://www.setem.org/euskadi/wp-content/uploads/sites/16/2021/09/gida-indarkeria-kontsumitzen-dugu.pdf>

- Indar kolektiboaren ahalmena: talde gisa nola antolatzen garen giza bizitza eta planeta errespetatzen dituen kontsumo-eredua sortzeko.
- Joko-arauak aldatzeko ahalmena: kontsumo kapitalistaren oinarrien egitura aldatzerako orduan zeintzuk diren erantzukizun politikoak eta ekonomikoak.

Bigarren fase hura dokumentu hau argitaratuz gauzatu zen: SETEM Hego Haizea (2017): *Indarkeria kontsumitzen dugu? Indarkeria matxisten eta kontsumoen inguruan ezagutza sortzeko eta ikasteko prozesu kolektiboa*³.

Bi argitalpenen emaitzak gizarteratzeko, bi dokumental egin ziren: *Fabricando mujeres* eta *Fabricando mujeres 2.0* (Emakumeak fabrikatzen), Al Borde Films⁴-en eskutik. Gainera, beste material batzuk egin ziren: www.fabricando-mujeres.org dokuweb interaktiboa, salaketak eta indarkeria matxistarik gabeko kontsumo-alternatibak jasotzeko tresna parte-hartzaile gisa, eta indarkeria matxistei eta kontsumoari buruzko aurrez aurreko tailer parte-hartzaileak.

Dokumentu honen lehen kapituluan, erabilitako metodologia aurkezten da.

2023an, kontsumo kapitalistaren eta indarkeria matxisten arteko loturan sakontzen jarraitu beharra zegoela hauteman zuen SETEM Hego Haizeak. Hortaz, 2016an hasitako prozesuarekin jarraitzeko, ikerketaren hurrengo fasea planteatu zuen; oraingoan, **aisialdiaren kontsumoan indarkeria matxistak nola errepikatzen diren aztertuz**.

Bigarren kapituluan, ikerketaren marko teorikoa eta kontzeptuala azaltzen dira, azterketaren esparru berrira egokituta. Hirugarren kapituluan, landa-lanaren emaitzak zehazten dira, ikerketaren helburuak eta hipotesiak oinarri hartuta. Hirugarren kapitulu horretan, gainera, hipotesi bakoitza aztertu ondoren, ondorioak aurkezten dira.

Jarraian erakutsiko ditugun edukiak prozesurako eratu genuen talde aholkulariaren partaideen (Mugarik Gabe⁵, Altekio⁶, SETEM Hego Haizea, Tatiana Romero⁷, *Pikara Magazine*⁸ eta Laura Modonato⁹) gogoeten eta Errotik Kooperatiba Feministak¹⁰, (ikerketaren landa-lan kuantitatibo eta kualitatiboaren arduradunak) eginiko ekarpenen emaitzak dira.

3. Eskuragarri dago hemen: <https://www.setem.org/euskadi/wp-content/uploads/sites/16/2021/09/IndarkeriaKontsumitzenDuguII.pdf>

4. Al Borde films ekoizpen-etxe kooperatibo independentea da, eta Bilbon sortu zen 2015ean. Nortasunak eraikitzen laguntzen duten istorioak kontatzen dituzte eta hainbat errealitateri helden diete, horien bidez partekatatu, ikasi eta eraldatzeko. REAS (Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea) sarearen parte da.

5. Mugarik Gabe GGKE asanblearioa, feminista, ekologista, ezkertiarra eta internazionalista da. Indarkeria matxistarik gabeko bizitzaren alde lan egiten ari da aspaldi, eta, horrez gain, bizitza jasangarriren alde egiten du irmoki, desazkondearekin eta kontsumo kontziente eta eraldatzailearekin lotutako esperientziakin. Horren ildotik, SETEM HH erakundearekin lan egin du hainbat urtez.

6. Altekio gizarte-ekimenezko kooperatiba bat da, eta bizitza zaintzea gure gizartearen eta ekonomien ardatza izateko lan egiten du. Galderak egitearen artean aritzen da eronkei konponbideak bilatzeko, gauzen zergatia arakatzeko jakinguraz. Bat egitearen, onera ekartzearen eta harreman berriak sortzearen alde jotzen du, denon ongizatearen bila ari den kontzientzia eko-sozialaren ikuspegitik. Horrela, gizartea eraldatzen du, jasangarriagoa, erresilienteagoa, integratzaileagoa eta bidezkoagoa izan dadin.

7. Tatiana Romero Reina ikertzaille feminista independentea da, eta ikuspegi dekoloniala eta teoria intersektionala aplikatzen dizkio errealitateari. Ehun antirrazistaren eta feminismo antirrazisten parte da. *Pikara Magazine*, *Feminopraxis*, *La Cadera de Eva* eta *El Salto* hedabideekin batera lan egiten du.

8. *Pikara Magazine* aldizkaria Bilbon sortu zen 2010ean. Kalitatezko kazetaritza egiten du, ikuspegi feminista, kritiko, urratzaile eta jostalariarekin. Gainera, lantegiak eta hitzaldiak ematen ditu hizkuntza inklusiboari, kazetaritza eta komunikazio feministari, komunikabideetako indarkeria matxistei edo ziberfeminismoari buruz.

9. Laura Modonato aholkulari independentea da, feminismoaren, migrazioen eta garapenaren inguruan.

10. Errotik Kooperatiba eremu ezberdinetako pertsonen osatutako diziplina anitzeko talde bat da: soziologia, gizarte-heziketa eta gizarte-lana, pedagogia, teatroa, mugimendu adierazkorra eta komunikazioa. Feminismotik lan egiten dute, bai eta erlazionatu ere.



1

Lan-prozesua eta metodologia

Honako fase hauetan egituratu da indarkeria matxistei eta aisialdi eta denbora libreko kontsumoari buruzko gogoeta- eta ikaskuntza-kolektiboko prozesua:

a. PROIEKTUA GARATZEKO ETA JARRAITZEKO EGITURAK EZARTZEA, zehazki:

- ✓ TALDE ERAGILEA, SETEM Hego Haizeak eta Laura Modonatok osatua, prozesua bultzatzeko eta errazteko arduraduna.
- ✓ TALDE AHOLKULARIA, SETEM Hego Haizeak, Altekiok, Mugarik Gabek, *Pikara Magazinek* eta Laura Modonatok osatua; aurreko edizioetan ere parte hartu zuten, eta fase honetan Tatiana Romero batu zitzairen, beste ikuspegi batzuk txertatzeko eta intersektionalitatearen ikuskeran sakontzeko. Talde aholkularia aholkularitza teorikoa eta metodologikoa emateaz arduratu da prozesuan zehar.

b. IRIZPIDEAK ZEHAZTEA AZTERKETA-ESPARRUA HAUTATZEKO.

Edukiei eta ikuskerei dagokienez landutako gaia zabala dela jakinda, zer aztertu nahi genuen, nola egingo genuen eta zer tresna erabiliko genituen identifikatu genuen lehenbizi. Galdera horiei erantzuteko, zenbait irizpide zehaztu behar izan genuen (aurreko ikerketen osagarriak izatea, emaitzen bidez gerora eragin politikoa izateko aukerak), eta, horien laguntzaz, azterketa-esparrua eta ikerketarako galderak identifikatu genituen. Marko teorikoan, xehetasun handiagoz azalduko ditugu irizpide horiek.

c. AZTERKETA-ESPARRUA ETA METODOLOGIA AURREZ HAUTATZEA.

Aurrez zehaztutako irizpideak oinarri hartuta, talde aholkulariak hainbat azterketa-esparruren hautaketa egin zuen aurrez, besteak beste: estupefazianteen kontsumoa, arreta jarriz mendekotasunetan eta horiek indarkeria matxistekin duten loturan, bereziki, gaueko aisialdiarekin lotuta; aisialdiaren eta denbora librearen kontsumoa edo kirolen kontsumoa. Gai horiek lan-saio batean eztabaidatu ziren, hausnarketa kolektiboan oinarrituta eta gaiaren garrantzia eta interesa aztertuz; eta aisialdiaren eta denbora librearen kontsumoaren esparrua hautatu zen.

d. AZTERKETA-ESPARRUA BEHIN BETIKO HAUTATZEA.

Aurrez eginiko hautaketa horren ondoren, talde aholkulariak aisialdiaren eta denbora librearen kontsumoaren inguruko bibliografia garrantzitsua berrikusi zuen zenbait ikuspegitik: denboraren erabilera, aisialdi-denborari buruzko ikuspegi feministak, aisialdiaren esperientzien baldintzapena zapalkuntza-intersektzioaren ondorioz, etab. Bibliografia berrikusteak lehen hurbilpen hura aberastu zuen, eta, jarraian, zenbait lan-espazio egituratu ziren azterketa-eremua zehazteko. Horiei esker, azkenean, adostu zen aisialdiak eta denbora libreak eta horiek indarkeria matxistekin duten loturak ikerkuntzaren fase horretako analisi-esparrua osatuko zutela.

- e. MARKO TEORIKOA EGOKITZEA.** Marko teorikoa berrikusi eta ego-kitu zen, eta, zeregin horren bidez, analisiaren beste begirada eta ikus-kerak batzuk gehitu genituen, bai eta aisialdi eta denbora librearen kontsumoaren analisi kontzeptuala ere, kritika feministatik eta ikuspegi interseksionaletik.
- f. LANDA-LANA.** 2016an eta 2018an eginiko ikerketetan bezala, prozesuaren gako bat izan da indarkeria matxistak eta kontsumo kapitalis-taren araketa, eta hori Euskadin egin da bi helbururekin: (i) indarkeria matxisten eta kontsumo kapitalista arruntaren arteko loturari buruz euskal herritarrek zer uste duten ezagutzea, eta (ii) indarkeria matxis-ten eta kontsumo kapitalista arruntaren arteko loturaren ezaugarriak ezartzea. Horretarako, Errotik kooperatiba feministaren laguntza jaso dugu, eta hura arduratu da honako landa-lan hau egiteaz:
- ✓ **Inkestak.** EAeko hiru lurralde historikoetako hiriburuetan, bai eta online ere; bigarren kasuan, hainbat aldagai soziologiko kon-tuan hartuz hautatutako askotariko gizarte-erakundeen bidez za-baldu egin da. Inkestaren bidez, kontu hauetan sakondu nahi izan da: galdetutako pertsonak nola ulertzen duten aisialdia eta denbora librea, zapalkuntza-ardatzek aisialdiaren aukeretan eta gozame-nean duten eragina eta aisialdiaren kontsumoaren eta indarkeria matxisten arteko harremana. Guztira, 446 pertsonak erantzun dute, honako profil hauekin:
 - GENEROA: %69 zis emakumeak, %28 zis gizonak eta %3 per-sona ez-bitarrak. Inkestari erantzun dion inork ez du bere burua gizon edo emakume trans gisa definitu. Txostenean, beren burua ez-bitar gisa hartzen duten pertsonen errealita-tean sakontzen saiatu gara. Hortaz, kasu bakoitzean argi eta garbi zehaztu da nola eragiten duen galdetutako pertsonen generoak aisialdiaren eta denbora librearen gozamenean.
 - ADINA: %41 18 eta 37 urte artean, %55 38 eta 67 urte artean eta %4 67 urte baino gehiago.
 - ARRAZIALIZAZIOA: guztien %10ek ez-zuri gisa definitu dute beren burua, eta %82k zuri gisa.
 - ZAINTZAREN ZAMA: %40k zaintzaren zama dute.
 - NAZIONALITATEA: %83k nazionalitate espainola, %7k atzerriko nazionalitatea eta %6k nazionalitate bikoitza.
 - DIRU-SARREREN MAILA: %75ek hilean 2.000 euro baino gu-txiagoko diru-sarrera.

- SENTIMENDUZKO EGOERA: %65ek bikotekidea dute eta %5ek amodioanitzeko gisa hartzen dute beren burua.
 - LAN-EGOERA: %70ek lana dute, kontratudunak.
 - DIBERTSITATE FUNTZIONALA: %6,7k dibertsitate funtzionala dute.
- ✓ **Eztabaida taldeak:** hiru eztabaida talde egin ziren emakume eta pertsona ez-bitarrekin, beren iritzi eta esperientzia pertsonaletan sakontzeko eta indarkeria matxistek beren aisialdian eta denbora librean duten inpaktua antzemateko xedeez. Ikuspegi intersektzionalan sakontzeko helburuz, honako aldagai hauek kontuan hartuta osatu dira taldeak:
- EMAKUME MIGRATZAILEEN ETA ARRAZIALIZATUEN TALDEA: 23 eta 42 urte arteko zortzi emakume ez-zurik parte hartu zuten. Haietako batek zaintza-erantzukizunak ditu, gehienek atzerriko nazionalitatea dute eta erdia kontraturik gabeko enplegatuak dira.
 - 27 URTE BAINO GEHIAGOKO EMAKUMEEN TALDEA: 36 eta 71 urte arteko zortzi emakume zurik parte hartu zuten; hiruk zaintza-erantzukizunak dituzte eta lauk dibertsitate funtzionala.
 - 27 URTE BAINO GUTXIAGOKO EMAKUMEEN TALDEA: 19 eta 26 urte arteko bederatzi pertsonak parte hartu zuten; haietako bi ez dira zuriak, eta atzerriko nazionalitatea dute; batek zaintza-erantzukizunak ditu eta beste batek dibertsitate funtzionala.
- ✓ **Sakoneko elkarrizketak:** guztira, bost emakume aditu elkarrizketatu dira, aisialdiak zapalkuntza-ardatzaren arabera indarkeria matxista nola eragiten duen sakonki aztertzeke helburuz:
- Ana M. Poveda Boj, EHGAM Gorbeialdea+ erakundeko ki-dea, sexu- eta genero-dibertsitatearen ardatzerako.
 - Zaira Garcia Dafonte, feminismoen eta LGTBI+ kolekti-boaren inguruko aholkularia, sexu- eta genero-dibertsitatearen ardatzerako.
 - Itxi Guerra, aktibista antikapazitista, dibertsitate funtzionalaren ardatzerako.

- Mónica Gortayre, aktibista feminista antirrazista, arrazalizio eta migrazio-prozesuen ardatzerako.
- Matxalen Legarreta-Iza, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, zaintzen eta denboraren erabileraren ardatzerako.

I. eranskinean, ikerkuntza-prozesuan zehar kontsultatutako pertsona guztien profil osoa aurkeztu da.

g. IKERKETAREN TXOSTENA ERATZEA ETA EMAITZAK GIZAR-TERATZEA. Prozesuaren azken fasean, marko teorikoa eta landanaren emaitza nagusiak jasotzen dituen behin betiko dokumentu hau eratu da.

Erabilitako metodologiaren inguruan, nabarmendu beharra dago oraingo honetan ere gogoeta eta ikaskuntza kolektiboa lehenetsi ditugula, eta hainbat begirada eta ikuskera gehitu ditugula. Horren harira, prozesu hori ekitearekin hertsiki lotuta dagoela zehaztu nahi dugu, hau da, prozesuaren emaitzek proposamen eta gomendio zehatzak eratzeko balio behar dute, indarkeria matxistei benetan aurre egiten dien kontsumo-eredu bat sortzeko. Horregatik, SETEM Hego Haizeak emaitzak zabalduko dizkie EAEko hirugarren sektoreko erakunde feministei, ekologistei eta antirrazistei, lantegien eta Foro Ireki¹¹ izeneko metodologiaren bidez, indarkeria matxistarik gabeko aisialdirako proposamen bateratuak egiteko.

¹¹. Foro Ireki bat Demokrazia Sakonaren eta Prozesuen bidezko Lanen metodologia bat da, pertsonak elkartzen dituen komunitatearen barneko gai jakinei buruz elkarrizketa sakonagoa izateko eta polaritateak eta gatazkak prozesatzko. Beraz, Foro Irekiak hauxe bilatzen du: pertsona edo taldeen ateko elkarrizketa partehartzaile bat sortzea, eguneroko errealitateen alderdi ikusezin eta sakonagoak hautematea, botere-dinamikei arreta ematea, gatazkak kudeatzea, pertsona guztien iritzia balioztatzea, harreman ja-sangarriagoak sortzea eta pertsonen artean komunitatea sortzea.



2

Marko teorikoa

Ikerkuntzaren lehen fasetik, **indarkeria matxistei eta kontsumoei buruz ikasteko eta ezagutza sortzeko prozesu kolektiboaren helburua izan da indarkeria matxisten eta kontsumo kapitalistaren arteko lotura ikusaraztea eta, kontsumo kritiko, arduratsu eta eraldatzailearen (KKAE) bidez, errealitatea eraldatzeko alternatibak proposatzea.**

Horretarako, marko teoriko bat landu genuen, salatzen duena kapitalismoa heteropatriarkatuak sostengatutako zapalkuntza-sistemetako bat dela, eta genero-desberdintasunak, oro har, eta indarkeria matxistak, bereziki, betikotzen dituela.

Marko teoriko hori 2015ean egin eta 2018an eguneratu zenaren hedapena da. Izan ere, oraingo honetan aisialdi eta denbora libreko kontsumoak indarkeria matxistak nola sor ditzakeen aztertu nahi izan dugu, begirada, gogoeta eta ikaskuntza berriak txertatuz.

Markoa lantzeko, prozesurako osatu genuen aholkulari taldearen parte diren kolektiboetako kideen laguntza izan dugu, bai eta nagusiki eztabaida taldeen eta elkarrizketa sakonen bidez kontsultatu ditugun pertsonen gogoeta indibidual eta kolektiboena ere.

Azterlan honen oinarri diren kontzeptu nagusiak azaldu baino lehen, zenbait kontu gogorarazi nahi ditugu, ikerketaren lehen zatian zehaztu ditugunak:

- Marko teorikoaren ardatza kontsumo kapitalistan indarkeria matxistak aztertzea da. Gaur egungo desoreka-testuingurua dela medio, begirada kritiko hori gorde behar dugu esparru edo erakunde guztietan, baita beren burua eraldatzailetzat jotzen dituztenen kasuan ere.
- Marko teorikoak arreta eman dio Euskadiko errealitateari, alde batetik, lurralde horretan dauden hainbat erakundek eginiko gogoeta-prozesu kolektibotik abiatuta egin baita. Bestetik, Euskadin eginiko eta indarkeria matxisten eta kontsumo kapitalistaren arteko loturan ardaztutako landa-lan kuantitatibo eta kualitatiboak elikatu du marko teorikoa.

1 | KONTZEPTU NAGUSIAK

ZER DA INDARKERIA MATXISTA?¹²

Ikerkuntza-prozesuaren testuinguruan, lehen fasetik, indarkeria matxisten kontzeptuari heldu genion. Ulerkera zabala eman genion, eta, gaur egungo kontsumo-ereduekin dituen loturei buruzko eztabaidak zehazteko, horrela banakatu genuen: indarkeria sinbolikoa, egiturazko indarkeria eta indarkeria zuzena.

Hasiera-hasieratik, garrantzi handia eman genien erabiliko genituen kontzeptuei, ikerkuntza-prozesu batean duten indar politikoa, sinbolikoa eta pedagogikoa dutela ulertuta.

Indarkeria matxistei buruz hitz egitea erabaki genuen, mugimendu feministak eta beste gizarte-mugimendu batzuek erabilitako kontzeptua delako eta izen horren bidez zenbait elementu ikusarazten direlako.

Indarkeria matxistei buruz aritzeak **indarkerien kausak nabarmentzen ditu, bai eta horien eraginak ere; emakumeek emakume izateagatik pairatzen dituzten ondorioen** eraginpean daude, halaber, «beren jokabideen, harremanen, itxuren, maitasun-adierazpenen, genero-desadostasunen, erresistentzia-formen, eta, laburbilduz, gorputz menderakaitzen errebeldiaren bidez sexu-genero-sexualitate binarismoaren gainean ezarritako gizarte-ordena zalantzan jartzen dituztenak»¹³ ere. Gure ustez, horren alde egiteak funtsezkoa izaten jarraitzen du genero-nortasunen inguruan eta horiek pertsona askoren eskubide politikoak eta juridikoak aitortzeko duten inpaktuaren inguruan hainbeste eztabaidatzen ari den gizarte honetan.

Gainera, kontzeptu hori **indarkeriez pluralean** ari da, indarkeria moten aniztasuna aitortzeko egin diren aurrerapenak jasotzeko, ez soilik horien tipologiari eta bortiztasunari dagokienez, baizik eta indarkeria gertatzen den tokiei dagokienez ere, indarkeria esparru pribatutik haratago doala ulertuta.

Indarkeriaren esparru ezberdinak azpimarratzea ikerkuntza-prozesuaren analisi-ardatz argi bat izan da: egiturazko indarkeria, indarkeria sinbolikoa eta indarkeria zuzena. Izan ere, lehen itxuraz, kontsumoak ez dauka lotura argia indarkeria zuzenarekin, baina bai indarkeria sinbolikoarekin edo egiturazko indarkeriarekin.

^{12.} María Viaderok (Mugarik Gabe) egin du atal hau. 2023ko apirila.

^{13.} *Indarkeria matxisten aurkako borrokari buruzko iritzia*. Alianza por una Cooperación Feminista Global (Lankidetzeta Feminista Globalaren aldeko Aliantza). 2017.



EGITURAZKO INDARKERIA

- > Analisiaren ardatza da emakumeen aurkako indarkeria mundu osoan gertatzen dela. Ez da gertaera isolatua, eta haren euskarria genero-desorekatzeko egitura argia da, egitura politikoez, sozialez eta ekonomikoek mantentzen dutena. Egiturazko indarkeriari erantzuteko, proposamen eta araudi integralak behar dira.



INDARKERIA SINBOLIKOA

- > Mezu kultural eta sinbolikoetan adierazten da, eta horiek «emakumeen eskubideak mugatu eta egiturazko indarkeria ukatu, naturalizatu, normalizatu, justifikatu eta txikiagotzen duten harreman ereduak, mugak, aginduak eta jokabideak legitimatzen dituzte»¹⁴. Kontsumoaren kasuan, publizitatea, hizkerak, kontsumo-joerak eta abar indarkeria mota horren ohiko adibideak dira.



INDARKERIA ZUZENA

- > Agerikoena da. Hainbat modu (fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa, sexuala...) eta espaziotan adierazten da, emakumeen gaineko kontrola mantentzeko, emakume izateagatik baino ez, bai eta haiek menderatzeko, kaltetzeko eta zigortzeko ere. Ikerkuntza-prozesuan, indarkeria mota hori ez zen hain agerikoa, baina hura nola gauzatzen den bistan uzten zuten adibide ugari aurkitu genituen; esaterako, aztertutako kontsumo-esparru askoren osasun fisiko eta mentalaren gaineko inpaktuak.

Gaur egun, ikerkuntzaren lehen fasetik erabilitako kontzeptuak indarrean daude oraindik, argi eta garbi. Beraz, estrategikoa litzateke horiei eustea, egoiak direlako eta aurreko faseei jarraipena ematen laguntzen dutelako. Hala ere, une askotan, azterketaren esparruetan indarkeria mota bakoitza ezin da argi eta garbi mugatu edo zehaztu, eta feminismoen zein beste agenda politiko eta akademikoaren oraingo eztabaiden eskutik bilakaturik doaz.

¹⁴. Ibidm. 11. or.

Aditzera eman nahi dugu, ordea, azken urteetako testuinguruaren eta araudien aldaketa batzuen eraginez, ikerkuntza-prozesu honen baitan indarkeria matxistak aztertzeko, zenbait elementuri heldu behar diegula, hala nola:

- Gorrotoa bultzatzen duten diskurtsoak dauden eta mugimendu feministak lortutako aurrerapenak atzeratzen ari diren garai honetan, kontzeptuak inoiz baino garrantzitsuagoak dira, are gehiago «indarkeriak generorik ez duela» edo eztabaida batzuetan genero indarkeria «benetako emakumeen» aurkakoa baino ez dela entzuten dugunean¹⁵.
- Indarkeria-tipologiak berrikusi eta beste batzuk gehitu behar dira daoeneko definitu diren esparruetan: genero-indarkeria digitala, indarkeria instituzionala¹⁶ (ekintzarik ezak sortutako indarkeriak eta agintaritzaren publikoen omisioa), mugimendu feministak kriminalizatzea, post-matxismoa eta indarkeria sinbolikoa (gorroto diskurtsoak, gizonen sareak, elkarteak...).
- Ikuspegi interseksionalaren alde egiteko, ezinbestekoa da indarkeria horri aurre egiten dieten pertsonen ikuspegi zabala izatea: LGTBIQA+¹⁷ kolektiboak, giza eskubideen babesleak, pertsona migratzaile edo arrazializatuak, eta abar.

Marko hau sortzerako unean, indarkeria patriarkalaren kontzeptua gehitzea egokia ote zen eztabaidatu genuen, kontzeptu horrek lotura estrategikoa baitu ikuspegi interseksionalarekin, indarkeria patriarkalek ordena patriarkalaren barruko indarkeria mota guztiak barne hartzen dituelako, eta ordena horixe baita indarkeria matxistaren jatorria. Azkenean, indarkeria matxistak terminoa mantentzea erabaki genuen, zis emakumeengan, transengan eta gorputz ez-heteronormatiboengan duten inpaktuak lehenesteko eta aurreko faseei jarraitasuna emateko apustu estrategikoari eutsiz.

15. *Delitos de odio contra las Mujeres* (Emakumeen aurkako gorroto-delituak) monografikoa. Pikara Magazine. 2023.

16. Hauxe da Beijinggo Plataformaren definizioa (A/CONF.177/20): «Estatuak egindako edo onartutako indarkeria fisikoa, sexuala eta psikologikoa, edonon gertatzen dela ere» (113. c).

17. LGTBIQA+ siglek termino hauei egiten diete erreferentzia: Lesbiana, Gay, Trans, Bisexual, Intersexual, Queer, Asexual eta +.

ZER DA KONTSUMOA?

Ikerketaren lehen fasetik, kontsumoak aipatu ditugu (pluralean) (1) kontsumo kapitalistaz eta (2) kontsumo kritiko, arduratsu eta eraldatzaileaz (KKAE) aritzeko. Kontsumo kapitalistaz aritzen garenean, kontsumo amorratu, harripakari, ekozida eta desoreka-eragileaz ari gara. Kontsumo akritiko hori egunez egun ikusten dugu, eta etekinik handiena lortzeko eta metatzeko logika kapitalistaren ondoriozkoa da; hura hautematea eta KKAEaren bidez ordezkatzea planteatzen dugu. SETEM Hego Haizean ulertzen dugu kontsumo kritiko, arduratsu eta eraldatzailea (KKAE) honakoa dela: zerbait erosteko edo ez erosteko ekintzak eraldaketa soziala dakar, eta, produktuak edo zerbitzuak hautatzeko, kalitatea eta prezioa kontuan hartu ez ezik, irizpide etikoak, kulturalak, sozialak eta ingurumenekoak kontuan hartzen dira; horri esker, produktu eta zerbitzu bidezkoagoak eta jasangarriagoak eskuratzea bultzatzen da. Prozesu kolektiboak bi kontsumo motei heldu die, analisi horretatik abiatuta, KKAE aintzat hartuta lan egiten duten erakundeen gogoeta eta ekintza bideratzeko.

Hala, marko teorikoak eta Euskadin burututako landa-lanak arreta eman diote indarkeria matxisten eta kontsumo kapitalistaren arteko loturari; eta ezin izan da sakonean arakatu horien eta giza beharrak asetzeko beste eredu sozioekonomiko baten alde jotzen duen KKAEaren arteko lotura.

2 | AZTERTU DIREN KONTSUMO- ESPARRUAK ETA HAUTAKETA- IRIZPIDEAK

Sistema kapitalistari eginiko kritika nagusi horretatik eta eredu sozioekonomiko demokratiko eta ekitatibo bat garatzeko alternatiba gisa feminismoak dakarren bizitza jasangarriaren ikuspegitik, indarkeria matxistak dakartzaten kontsumo kapitalistaren zortzi esparru aztertu ditugu (lau 2015ean, hiru 2018an eta bat oraingoan):



1. TAULA INDARKERIA MATXISTAK DAKARTZATEN KONTSUMO KAPITALISTAREN ESPARRU AZTERTUAK

Noiz	Azterketa-esparrua
2016	<ul style="list-style-type: none">✓ Etxeko esparrua (2): elikadura eta etxeko produktuak✓ Esparru pertsonala: estetika✓ Esparru publikoa: mugikortasuna
2018	<ul style="list-style-type: none">✓ Ikus-entzunezko aisialdiaren esparrua: fikziozko serieak✓ Teknologiaren esparrua: telefono mugikorrak✓ Etxeko esparrua: etxeetako energia-kontsumoa
2023	<ul style="list-style-type: none">✓ Aisialdi eta denbora librearen esparrua

Kontsumo kapitalistaren esparru horiek zenbait alderdi erkide dituzte, eta, prozesu osoari koherentzia emateko, aditzera eman nahi ditugu:

- a. Prozesuaren hasieratik argi utzi dugu kontsumoa zer den guretzat, erosteko erabakiak ez baitira soilik erabaki indibidualen arabera. Egiturazko arazoien arabera ere badira, kontsumitzerako orduan pertsonok ditugun gaitasunei eta aukerei eragin dietenen arabera. Horrekin lotuta, zer kontsumitzen dugun hausnartu ez ezik, kontu hauek hartu ditugu aintzat: nola kontsumitzen dugun, zer faktorek eta mekanismok eragiten dieten erosteko erabakiei, kontsumitzen ditugun produktuak nondik datozen, nola ekoizten diren eta nola banatzen diren, eta kontsumoaren bidez sistema kapitalistak zer etekin dituen.

Aldez aurreko analisi horiei esker, kontsumoak egiturazko lau gai dituela egiaztatu dugu. Horiek aztertu eta mahai gainean jarri behar dira, ulertzeko sistema kapitalistak kontsumoaren bidez eskuratzen dituen interes eta etekinen sarea; hain zuzen ere, dokumentu honetan adierazten dugunez, sistema horrek hainbat indarkeria matxista eragiten ditu.

Ikuspegi horretatik, KKAEaren eredia lortze aldera, hiru ahalmen-mailatik ekin behar zaio¹⁸:

- ✓ **Aldaketa pertsonalaren ahalmena:** arlo pertsonaletik zer erabaki hartu eta zer jardun egin ditzakegun modu kritikoago, ardurasuago eta jasangarriagoan kontsumitzeko, aldi berean tresna eraldatzaile izanda.
- ✓ **Indar kolektiboaren ahalmena:** talde gisa nola antolatzen garen giza bizitza eta planeta errespetatzen dituen kontsumo eredia sortzeko.
- ✓ **Joko-arauak aldatzeko ahalmena:** kontsumo kapitalistaren oinarrien egitura aldatzerako orduan zeintzuk diren erantzukizun politikoak eta ekonomikoak.

Prozesu horretan hautatutako azterketa-esparruek hainbat zehaztapen mailatan kokatzen badira ere, denek dute inpaktu argia pertsonen bizitzan eta ondasunak pilatzearen logika kapitalista sendotzen dute.

¹⁸. Kontsumoarekin lotutako hiru ahalmenak kokatzeko modu hori kontsumo kontziente eta eraldatzailean espezializatutako *Opciones* aldizkaritik dator. Ahalmenaren analisi horren jatorria da Jo Rowlands-en ahalduntzearen dimentsioen proposamena (1997): a) gauza pertsonalak, niaren zentzuaren eta norberaren konfiantza zein gaitasunaren garapena; b) gertuko harremanen garapena, adibidez, negoziatzeko eta harremanen zein erabakien izaeran eragiteko gaitasuna; eta c) kolektiboa, esaterako, egitura politikoetan parte hartzea eta lankidetzan oinarritutako ekintza kolektiboa.

b. Bestalde, prozesuaren fase berrirako azterketa-esparrutzat aisialdiaren eta denbora librearen kontsumoaren hautaketa ondo zehaztutako lau irizpidetik abiatu da:

- ✓ **Indarkeria matxisten eta kontsumo kapitalistaren arteko lotura:** hautatutako azterketa-esparruak aukera eman behar zigun hipotesi bat egiteko, esparru horretako kontsumoaren bidez sistema kapitalistak zer indarkeria matxista iraunarazten dituen ikusteko. Hipotesi horiek balioztatu nahi izan ditugu gerora egin dugun landa-lanaren bidez.
- ✓ **Ikuspegi interseksionala zeharkakotzea:** hautatu dugun azterketa-esparruak aukera eman digu kontsumo-ohiturak hautemateko honako alderdi hauen arabera bereizita: sexu- eta genero-identitatea, adina, gaitasuna, jatorria, arrazializazioa eta egoera sozioekonomikoa. Horren helburua zen opresio-mekanismo eta indarkeria matxista jakinak antzematea.
- ✓ **Giza Eskubideen ikuspegia:** eragin politiko eta sozialeko prozesuak gauzatzeko xedez, garrantzitsua zen eskubideen titularrak, erantzukizunen titularrak eta betekizunen titularrak argi eta garbi hautemateko aukera emango zuen kontsumo-esparru bat aztertzea.
- ✓ **Bikoiztasuna saihestea:** hautatu dugun azterketa-esparruak, genero ikuspegitik aztertu bada ere, ez du kontsumo kapitalistaren eta indarkeria matxisten arteko loturaren inguruko analisirik, prozesu honen testuinguruan ulertzen dugunez.

3 | ERREALITATEARI NONDIK BEGIRATZEN DIOGUN

- **Feminismotik, bai, baina haren barruko (edo feminismoen barruko, pluralean) korronte ezberdinetako ikuspegi eta kontzeptuak hartuz.** Horietako batzuk kontraesanetan egon litezke; hala ere, nahiago izan dugu agerian utzi prozesu honetan parte hartu dugun erakundeen artean darabiltzagun ikuspegi eta kontzeptuen aniztasuna. Horretarako, korronte batzuek eta besteek eskaintzen dituzten ñabarduren alde egin dugu, malgutasunez, eta, sarritan, korronte baten eta besteen arteko mugak hautsi ditugu. Ikuspegi horretatik, feminismo dekolonialek eginiko ekarpenak berreskuratu nahi ditugu; izan ere, askotariko pentsamendu-korronte eta mugimendu ugarien bidez, pentsalari feminista isilduen ekarpenak eta ezagutzak berreskuratzen dituzte, eta feminismo hegemonikoaren barruan duten ikusezintasunari heltzen diote. Horrekin lotuta, prozesuak feminismo dekolonialekin konektatzen du bi alderditik: alde batetik, elkarrekin ezagutzak eraikitzeko prozesu bat planteatzen dugulako, eremu akademiko eurozuritik haratago doazen jakintzetatik abiatuta, beren planteamendu zein marko teorikotik ikuspegi anitzak jasotzen saiatzen dena, eta ikuspegi aniztasuna barne hartzen ikasten ari den prozesu parte-hartzaile bat eta analisi bat definituz; eta, beste alde batetik, analisi feministari ikuspegi interseksionala aplikatu nahi dion prozesua delako.
- **Sexu- eta genero-aniztasunaren ikuspegitik,** sexu-genero binarismoa gainditzeko tresna baliotsua denetik. Binarismo horrek generoa bi kategoria bakar eta kontrajarrira mugatzen ditu: emakumeak eta gizonak. Nahia Taldeak azaldutakoarekin bat eginez¹⁹, ulertzen dugu ikuspegi horrek alternatiba bat dakarkiola eredu nagusiari; heteroarautasuna sexualitatea eta nortasuna bizitzeko modu bakartzat hartzea salatzen du, eta hura hautaketaren planoan kokatzen du. Hortaz, ikuspegi horrek, LGTBIQA+ pertsonen eta kolektiboen eskubideak aldarrikatu ez ezik, planteatzen du gizarteak aurrera egin behar duela sexuaren, generoaren, genero-nortasunaren eta sexu-orientazioaren inguruko kontzeptuen eskubideei eta betebeharrei dagokienez. Bestalde, interesgarria iruditu zaigu marko teoriko honetan «bazterketaren hirukoa» kontzeptua gehitzea. Fernando Altamirak²⁰, sortu zuen kontzeptua, ikerkuntza-prozesu honetan parte hartu duten SETEM Hego Haizea eta Mugarik

19. Nahia (2013): *Los deseos olvidados. Género eta sexu aniztasun ikuspegia Garapenerako Kooperazioan, Hiriratasun Globalerako Hezkuntzan eta etorkinek eta errefuxiatuek dituzten GGEEn sustapenean eta babesean*. Bizkaiko Foru Aldundia.

20. Altamira Basterretxea F. (2017): *Bailando con el deseo. Algunas claves para incorporar la diversidad sexual y de género en las ONGD. (Desirarekin dantzan. GGKEetan sexu eta genero aniztasuna sartzeko zenbait gako)*. Garapen-prozesuetako ikerkuntza-koadernoak, 19. zk.

Gabe erakundeekin batera egindako beste prozesu batean. Egile horren aburuz, eredu neoliberal, heteronormatibo eta etnozentrikoa da nagusi. Eredu nagusiaren hiru ezaugarri horiek bat egiten dute eta «bazterketaren hirukoa» sortzen dute. Kontzeptu horrek esan nahi du «nagusi denaren» ordezkio edozer subjektu, jardunbide, eredu, pentsamolde edo aukera «hegemonikoa den» horretatik baztertuta geratuko dela, bai eta hainbat opresio eta indarkeria motaren mende ere. Gure prozesuan, eza-gutzera eman nahi dugu hiru ezaugarri horiek kontsumo eredu kapitalistari lotuta daudela, eta horrek guztiak hainbat opresio mota eragiten dituela, emakumeengan ez ezik, arauarekin bat egiten ez duten pertsona guztiengan ondorioak dituztenak, adibidez, pertsona transexualengan edo lesbianengan.

- **Interseksionalitate**tik, Kimberlé Crenshaw-ek definitu zuen lehenbiziz 1989an: «Gizabanako bakoitzak opresioa jasan edo pribilegiarik edukitzea erabakitzen duen fenomeno, hainbat kategoria sozialetan duen partaidetzaren arabera». *Mapping the Margins: Intersectionality, Identity Politics, and Violence against Women of Color* (Interseksionalitatearen, nortasun-politiken eta kolorezko emakumeen aurkako indarkeriaren bazterrak kartografiatzea) artikuluan²¹, Crenshawek interseksionalitatea honela aurkezten du: arrazaren eta generoaren arteko eraginak ulertzeko markoa emakumeen aurkako indarkeriaren testuinguruan. Argudiatzen duenez, interseksionalitatea funtsezkoa da feminismoaren eta antirrazismoaren bazterretan dauden emakume beltzen esperientzietatik hartzeko, eta arrazaren eta generoaren kategoriek, sozialki eraikiak diren arren, ondorio sozialak eta materialak dituzte; beraz, nortasun-politikek nortasunaren dimentsio anitzak aitortu behar dituzte. Horregatik, nortasunaren ulermen interseksionalaren alde jotzen du, esperientziak dimentsio ugari dituela eta nortasun taldeen barruan bazterketak eta marjinazioei heldu behar zaiela aitortuz.
- **Bizitzaren jasangarritasunaren** ikuspegitik, zeinari esker beste gizarte-eredu bat ikusteko gai garen; eredu horrek planetaren muga biofisikoen barruan gizakion eta beste izaki bizidunen beharrak asetzearantzian du arreta. Pentsamendu-korronte hori osatzen duten ikuspegi barruan, eta ikerkuntzaren lehen faseari berritasun bat sartuz (2015), ekonomia politiko feministaren ekarpenak ikustera eman nahi ditugu²²; hauxe da haren helburu nagusia: «ekonomikotzat» jotzen denarekin lotuta ez dauden prozesuek merkataritza- eta ekoizpen-logikari nola eusten dioten identifikatzea. Horretarako, diziplina horrek honako alderdi hauen alde jotzen du: i) ikuspegi etikoa txertatzea²³ analisi ekonomikoan eta bizitzaren zaintzari arreta ematea; eta ii) diziplinartekotasuna beste pentsaera-adarrekin edo ezagutzeekin. Horren harira, ekonomia politiko feminista proposamen horrekin lotzen da, kontsumo kapitalista aztertu dugulako giza bizitzaren zein planetaren jasangarritasunetik abiatuta, eta, horretarako, hainbat diziplina lotzen ditugu, hala nola ekonomia sozial eta solidarioa eta analisi feminista, kontsumoetan indarkeria matxistarik ez birsortzeko.

21. Crenshaw K. (1991): *Mapping the Margins: Intersectionality, Identity Politics, and Violence against Women of Color* (Interseksionalitatearen, nortasun-politiken eta kolorezko emakumeen aurkako indarkeriaren bazterrak kartografiatzea). Eskuragarri hemen: <https://www.uncuyo.edu.ar/transparencia/upload/crenshaw-kimberle-cartografiando-los-margenes-1.pdf> (gaztelaniaz) edo <https://blogs.law.columbia.edu/critique1313/files/2020/02/1229039.pdf> (ingelesez)

22. Agenjo Calderón A. (2016): *Repensando la economía feminista desde las propuestas de(s) coloniales* (Ekonomia feminista berriz pentsatzea proposamen dekolonialetatik). Revista de Economía Crítica, 22. zk.

23. «Analisi sozioekonomikoan dimentsio etikoa aplikatzea honako printzipio hauetan oinarritzen da (besteak beste): desunibertsalismoan, gizartearen heterogeneotasunean, giza aniztasunean eta generoaren, klasearen, arrazaren, etniaren eta abarren arteko desberdintasunetan» (Agenjo, 2016).

- **Giza eskubideetatik**, indarkeria matxistaren adierazpen guztiek giza eskubideak urratzen baitituzte. Mundu osoko kolektibo feministen aldarrikapenei esker, emakumeen eta LGTBIQA+ kolektiboen eskubideak mailaz maila gehitu dira nazioarteko markoan, eta funtsezkoa izan da indarkerien izaera kolektiboa eta politikoa ikusarazteko eta fenomeno hori desegiteko Estatuaren erantzukizuna aldarrikatzeko (Mugarik Gabe, 2017). Horren harira, prozesu horren barruan, giza eskubideen ikuspegiak nazioarteko markoa eskaintzen digu, eta, horri esker, aukera dugu hautatutako esparruari legitimotasuna emateko, aisialdirako eskubidea hainbat araudi-tresnatan jasota baitago.

Azkenik, zintzotasunez jokatzeko, nabarmendu behar da azterketa honen hipotesiak egin eta haren emaitzak aztertu dituen talde aholkulariak jakin nahi izan duela zer faktore pertsonalek eragin dieten ikerkuntza horri ekiteko erabili diren ikuspegiei. Horretarako, taldeka aztertu dugu zer aisialdi mota egiten dugun eta nola eragiten dieten opresio-aldagarriek hautatutako aisialdi-espazioen erosotasun-mailari.

Analisi horren arabera, esan dezakegu generoa (emakumeak izatea), sexu- eta genero-aniztasuna, adina, arraza eta amatasuna aldagarriek eragiten diotela nagusiki ikerkuntzaren talde aholkulariaren partaideentzako hautatutako aisialdi-espazioen erosotasun-mailari.

4 | SISTEMA KAPITALISTAREN ETA SISTEMA HETEROPATRIARKALAREN ARTEKO ALIANTZA: Bizitza bortiztea

Indarkeria matxistak ez dira fenomeno isolatu bat, eta egitura politikoaren, ekonomikoaren, kulturalen, sozialen eta familiarren testuinguruan gertatzen dira, eta horiek justifikatzen, legitimatzen eta iraunarazten dituzte. Sistema kapitalista horietako bat da, genero-desorekak gauzatu eta iraunarazten dituelako (haiez elikatzen da eta horiek ezinbestekoak dira sistema hari eusteko), heteropatriarkatuari eusten diolako eta indarkeriak ahalbidetzen dituelako. Eta kapitala-bizitza gatazkaren eta beste zenbait tresnaren bidez egiten du, esaterako, kontsumoaren bidez.

Ekonomia sozial eta solidarioaren bitartez, kapitala-bizitza gatazka ikusarazten da, proposamen hori eta ekonomia kapitalista bereizten dituzten dimentsio hauen bidez:



2. TAULA EKONOMIA KAPITALISTAREN ETA EKONOMIA SOLIDARIOAREN ARTEKO DESBERDINTASUNAK

Ekonomia solidarioa	Ekonomia kapitalista
✓ Ekonomia pertsonen zerbitzura	✓ Pertsonak ekonomiaren zerbitzura
✓ Berdintasuna eta horizontaltasuna	✓ Desberdinkeria eta bertikaltasuna
✓ Lankidetzeta eta inklusioa	✓ Konpetentzia eta bazterketa
✓ Aurrerapenaren kontzeptu zabala eta anitza	✓ Aurrerapenaren kontzeptu bakarra
✓ Etekin soziala	✓ Etekin finantzieroa
✓ Kolektibismoa	✓ Indibidualtasuna
✓ Ingurune sozialarekiko konpromisoa	✓ Ingurune sozialarekiko deslotura
✓ Ingurumenarekiko konpromisoa	✓ Ingurumenarekiko deslotura
✓ Ekimen eta parte-hartze soziala	✓ Ardura eta parte-hartze sozialik eza
✓ Erakunde txiki eta ertainak	✓ Enpresa transnazional handiak

KAPITALA-BIZITZA GATAZKA

Hainbat pentsamendu- eta ekintza-korrontek identifikatu dutenez, sistema kapitalistak bizitza ustiatu eta suntsitzen du –animaliena eta landareena–, eta etekin potentzialak susmatzen dituen bizitzaren edozer arlotan indarrez sartzen da haren gailu guztiekin. Ekonomia feministak eta ekofeminismo kritikoa salatzen dutenez, kontraesankorrak dira nork bere etekin ekonomikoa pilatzearen logika kapitalista eta animalien bizitza zein natura zaintzearen logika. Zehazki, salatu dute sistema kapitalistak gizatarra denaren ustezko nagusitasunari eusten diola, eta, zehatzago, maskulinitasunari (antropozentrismoa eta androzentrismoa), bizitzaren kalteberatasuna eta gure arteko mendekotasuna zein naturarekiko mendekotasuna baztertzen dituen garapen-eredu bat abian jartzeko.

Oso sistema bidegabea da maila askotan, non gutxiengo baten garapena munduko biztanleen zati handi baten bazterketan edo prekarietatean oinarritzen den. Horrekin lotuta, feminismoen funtsezko kritiketako bat zuzentzen zaio mendebaldeko bizi estiloari. Kontsumismoan²⁴ oinarritzen da, eta ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa etengabe handitu beharra sustatzen du. Hazkunde horren maila ez da jasagarria, eta, horren truke, munduko zenbait biztanle-sektoreen ongizatea kaltetzen da.

Hori guztia sistema heteropatriarkalarekin eginiko aliantzak ahalbidetzen du, bizitzaren zaintza ekonomiaren esfera ikusezinei, feminizatuei eta arrazializatuei eskuordetzen dienak. Merkatua denez garrantzitsuena, eremu horretatik eta txanpon-transakzioetatik kanpo dagoen guztia baztertzen da. Logika horretan etxeko eta zaintzako lanak erabat beharrezkoak dira bizitzari eusteko, baina ezkutuan geratzen da, dakigunez, sistemaren existentzia zuzenean emakumeen doako eta aitortu gabeko lanaren arabera bada ere.

Horren harira, sistema kapitalista eraiki da esfera (publiko-pribatua vs etxekoa), lan (ekoizleak-erreproduktiboak vs zaintzak), pertsona (gizonak-emakumeak vs beste subjektu ez heteronormatiboak), arrazializazio (zuria vs ez-zuria) ezberdinen arteko botere-desoreken gain; bai eta lurralde ezberdinen gain ere, adibidez, ipar globaleko herrialdeen eta hegoalde globaleko herrialdeen arteko desorekak kontuan hartuta. Horrela, sistema kapitalista eta sistema heteropatriarkala hertsiki inbrikatuta daude eta bien euskarriak dira naturaren eta pertsonen aurkako indarkeria eta esplotazioa, zehazki, emakumeen aurkakoa.

²⁴ Marko horretan kontsumo kapitalistaz aritzea erabaki dugu. Kontsumismoaren ideiarekin lotzen da, biek eusten baitiete kapitalismoari. Fernández Mirandaren arabera (2015), kontsumismoaren ereduaren kontsumoa bera da helburua; eta hautemandako beharra, erositako objektuarekin lotu beharrean, erosteko egintzarekin berarekin lotzen da. Egile horren iritziz, jardunbide horien atzean ideien eta balioen sistema bat dago, eta kontsumoaren gizarteak zentzua ematen die: dena izan daiteke salgai eta dena tratatu ahal da salgai gisa.

KONTSUMO KAPITALISTA: DESOREKAK IRAUNARAZTEA ETA BIZITZA JASANGARRIA GALARAZTEA

ZarenSare-EnRedando Sareak²⁵ adierazi duenez, gaur egun, kontsumo-gizartea da sistema kapitalistaren oinarria, eta zenbait egilek kontsumoaren kapitalismo deritzote. Kontsumo-gizartea oinarritzen da, alde batetik, giza beharrek ondasunak eta zerbitzuak kontsumituz ase daitezkeela dioen idealean, eta, bestetik, merkatuko nitxo bihur daitezkeen dimentsio guztien -adibidez, bizitza zaintzearekin lotutakoen- merkantilizazioan. Merkantilizazioaren bidez, lanaren sexu-banaketa eta bizitzari eusteko zaintzaren nagusitasunaren ikusezintasuna eta aitorpenik eza hautsi beharrean, kapitalismoaren logikari moldatzen ari zaizkio. Alde batetik, gailentasuna ematen dio etekin ekonomikoari, gizakion eta beste izaki bizidun batzuen beharren bilaketa ekitati-boaren eta kalitatezkoaren kalterako; eta, bestetik, merkatuan birsortzen ditu esparru pribatuan dauden desorekak: balio gutxiago, ikusezintasuna, etab.

Dinamika horiei eusten zaie eta iraunarazten dira zenbait baliori esker, hala nola mugarik gabe ekoiztea eta pilatzea, independentzia ekodependentziaren eta interdependentziaren aurrean, individualismo hedonista, beste mundu-ikuskerak eta balio batzuk ikusezin egin eta zapaltzen dituen etnozentrismoa eta homogeneizazioa globalizazioak saltzen dituen desberdintasunen ustezko balorazioaren aurrean. Azken batean, ondasunek eta zerbitzuek garrantzia galtzen dute, helburua ez baita ustez beren helmugak diren giza beharrei benetan erantzutea. Aitzitik, kontsumoa bera da gailentzen dena, «ongizate handiagorako eta poztasun individual eta kolektibo handiagorako» (Orellana, 2007); kontsumo horrek oso balio zalantzarriak ditu atzean.

25. ZarenSare-EnRedando sarea erakunde hauek osatzen dute: Kolonbiako Mujeres que Crean eta Penca de Sábila, El Salvadorreko Fundación REDES eta Mujeres Transformando, Guatemalako AFEDES, Chiapaseko (Mexiko) K'inál Antsetik eta EAeko SETEM Hego Haizea. Sareak gizartearen eraldaketa sustatzen du, kontzientzia eta praktika eraldatzaileen bitartez, eta ikuspegi feminista batetik. Horrela, ekoizpen, banaketa eta kontsumo kontziente, arduratsu eta eraldatzailea bultzatzen du maila lokalean zein globalean, eredu ekonomiko (kapitalismoa), politiko (demokrazia liberala) eta soziokultural (indibidualtasuna eta heteropatriarkatua) nagusiak zalantzan jarriz. Berdintasunean eta errespetuan oinarritutako harremanak sustatzen ditu talde sozial eta kulturalen artean, herrien eta pertsonen artean, bai eta horien eta naturaren artean ere.

5 | INDARKERIA MATXISTEN ETA AISIALDIAREN ETA DENBORA LIBREAREN KONTSUMOAREN ARTEKO LOTURA

Argi utzi behar dugu, ikaskuntza kolektiboko eta ezagutzak sortzeko prozesuan, kontsumoari eman diogula arreta, baina aitortzen dugu kontsumoa kate handiago baten parte dela, hain zuzen ere, hura barne hartu, azaldu eta konplexu egiten duen ekoizpen-, komertzializazio-, banaketa-, kontsumo- eta baztertze-kate zabalarena. Kate horretan desorekak daude, eta, ulertzen dugunez, indarkeria matxistak ezkututzen dituzte etapa guztietan.

Beraz, kontsumoaren eta indarkeria matxisten arteko lotura hori osatu ahal da eta osatu behar da gure prozesuan aintzat hartu ez ditugun kate horren beste mailak aztertuz.

Gure gogoeta eta ikaskuntza kolektiboko prozesuan darabilgun indarkeria matxisten ikuspegi zabaletik, aisialdia eta denbora librearen kontsumo kapitalistaren tresnak dira, eta indarkeria matxistak ahalbidetu eta iraunarazten dituzte.

Marko teorikoaren atal honetan, izendatu eta ikusarazi nahi ditugu, agerian uzteko eta hurrengo kapituluan azalduko dugun landa-lanaren emaitzak aztertzeke.

5.1 HURRERATZE KONTZEPTUALA: AISIALDIA, DENBORA LIBREA ETA DENBORA ASKATUA

Gazteleraz, *aisia* terminoaren (*ocio*) jatorri etimologikoa latinezko *otium* hitza da, atsedean esan nahi duena²⁶.

Ongizatearen gizartearen testuinguruan²⁷, aisialdia funtsezko ezaugarria da bizi kalitatea ziurtatzeko. Hala ere, XXI. mendean zehar, aisiaren fenomenoak eraldaketa handiak izan ditu termino sozialei, ekonomikoei eta politikoei dagokienez, eta, horien ondorioz, haren garrantzia eta dimentsioa aldatu da.

Aisialdia denbora librearekin lotu zen iraultza industrialaz geroztik, lanorduak murriztu eta denbora demokratizatu zenean. Ondorioz, «eguneroko» aisialdia sortu zen; pertsona bakoitzak bere modura hartzen du hori, eta, bere lehenetsuen eta baliabideen arabera, zenbait jardueratan eta esperientzian parte hartzen du.

Gaur egungo gizartean aisialdiaren kontzeptua ulertzeko, beste bi kontzeptu-ri heldu behar zaie: denbora libreari eta denbora askatuari. Horiek guztiak ekoizpen-lanarekin lotuta daude.

Denbora librea da pertsonen lan-erantzukizunak bete behar ez dituzten tarteak. Hala ere, denbora libre horretan zehar, pertsonok eguneroko jarduerak egiten ditugu, gizakion bizitzari eusteko beharrezkoak direnak (erosketak egin edo elikagaiak eta beste ondasun beharrezko batzuk eskuratu, lo egin, etxeko lanak edo zaintza-lanak); eta ekoizpen-lanerako beharrezkoak diren beste batzuk egiten ditugu ere bai (lantokira joan, adibidez).

Denbora askatuak adierazten du pertsonak jarduera jakinik egin behar ez duen tarteak, eta hura nola erabili nahi duen askatasunez erabaki dezake. Denbora askatu horren dimentsioak pertsona bakoitzaren egoeren arabera dira.

²⁶. Down21 fundazio iberoamerikarra. Aisiaren eta denbora librearen profesionalentzako atala- Aisialdi kontzeptua. Eskuragarri hemen, gazteleraz: <https://www.down21.org/desarrollo-personal/110-ocio-y-tiempo-libre/847-seccion-para-profesionales-de-ocio-y-tiempo-libre.html?start=1>

²⁷. Idurre Lazcano eta Aurora Madariaga (2016): *El valor del ocio en la sociedad actual* (Aisialdiaren balioa gaur egungo gizartean). Aisiaren Ikasketa Institutua - Deustuko Unibertsitatea. Eskuragarri hemen, gazteleraz: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6149004>

Orduan, aisialdia da denbora askatua jarduera pozgarriak eta atseginak egiten direnean, modu libre eta autonomoan. Manuel Cuencaren arabera **aisialdia ohiko betekizunetatik kanpoko denbora libre da (denbora askatua), eta funtsezko hiru alderdi nabarmentzen ditu:**

- Askatasunez hautatzen da.
- Pozgarria da.
- Autotelikoa²⁸ da, helburu jakinik gabe egiten baita.

Aurrez aipatutako egileak, halaber, **dimentsio anitzeko ikuspegia**, ematen dio aisiari, eta hauek nabarmentzen ditu:

- 1. OSAGAI LUDIKA:** dibertimendua eta jolasa da aisia. Ezinbestekoa da oreka fisikorako eta mentalerako.
- 2. INGURUMENAREN DIMENTSIOA:** lurraldearen testuinguruaren eta testuinguru ekologikoaren eragina jasotzen du aisiak.
- 3. SORMENA GARATZEA:** aukera ematen du norbere buruari buruz ikas-teko eta trebetasunak eskuratzeko.
- 4. JAIAREN DIMENTSIOA:** ospakizun eta jarduera komunitarioak barne hartzen ditu, harreman sozialak sendotzen dituztenak.
- 5. IZAERA SOLIDARIOA:** komunikazio eta partaidetza soziala errazten ditu, eta inklusioa eta komunitatearen garapena sustatzen ditu.

Hala ere, adierazi behar da aisialdiaren eta denbora librearen analisia egin behar dela sistema kapitalista eta heteropatriarkal nagusiaren testuinguruan, botere-egiturek gure pertzepzioetan, jolasaldian eta jolas-jardueretan nola eragiten duten antzemateko.

Hortaz, aisialdi-jardueretarako eta denbora askaturako aukera izateaz ari-tzean, azpimarratu behar da aukera ugari daudela eta ongizate emozionala, sormena eta lotura soziala suspertzen dituzten aisialdi motak balioztatzea garrantzitsua dela, beren onura ekonomikoa eta ekoizlea alde batera utzita. Horrela, aisialdiaren eta denbora librearen analisiak aukera ematen du kontakizun kapitalistari aurre egiteko, hau da, ekoizpen-lana eta kontsumoa pozik egoteko modu bakarra dela bultzatzen duenari; eta, aisialdi-jarduera garrantzitsu eta pozgarrien bidez, gure osasun mentala eta emozionala zaintzearen garrantzia aitortzen du.

²⁸. Aisialdi autotelikoaren kontzeptua Deustuko Unibertsitateko Aisia eta Ezgaitasun Katedrak proposatu zuen, eta hauxe esan nahi du: xede jakin bat duten jarduerak, helburu terapeutikoekin egiten ez direnak. Aisialdi autoteliko horrek zenbait dimentsio barne hartzen ditu, esaterako, ludikoa, kirola, jai-giroa, sormena, ekologia eta elkartasuna.

5.2 AISIALDIA GIZA ESKUBIDE GISA

Aurrez esan dugunez, aisialdia ezinbestekoa da pertsonon ongizate emozional, mental eta fisikorako.

Aisiaren Mundu Erakundeak (WLO, World Leisure Organization), aisialdiari buruzko gutunean, dio: «Aisialdiak barne hartzen ditu: denbora libre, alegia, betekizunez askatu samarra dagoen denbora, adibidez, lan ordaindua edo ez ordaindua edo nork bere burua mantentzeko lana; eta aisialdi-jarduerak, denbora libre horretan zehar egiten direnak»²⁹.

Aisialdiari buruzko gutunaren funtsa 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (GEAU) da. 24. artikuluan ezartzen duenez, «pertsona guztiek eskubidea dute atseden hartzeko, denbora libreaz gozatzeko, lanaren iraupena arrazoiz mugatzeko eta aldizka opor ordainduak izateko»; eta 27. artikuluan dioenez, «pertsona guztiek dute eskubidea komunitatearen bizitza kulturean aske parte hartzeko [eta] arteez gozatzeko».

Aisialdiari eta denbora libreari giza eskubideen ikuspegitik heltzeak aukera ematen digu aitortzeko aisialdia eta denbora libre funtsezko elementuak direla pertsonon garapen osorako³⁰. Horrekin lotuta, aisialdia horrela ulertu behar da: pertsona guztiak gizarteratzeko tresna bat, beren generoa, arrazializazioa, egoera sozioekonomikoa edo klase soziala edozein dela ere, edo dibertsitate funtzionalik izanda ere. Izan ere, jolas, kultura edo kirol jardueretan parte hartzeak elkarreagin soziala sustatzen du eta oztopoak eta estereotipoak suntsitzen laguntzen du. Beraz, dibertsitatetik gizarteratzea suspertzen du.

Horrela ulertuta, aisialdiak komunitatearen garapenari laguntzen dio, harreman sozialak sendotzen dituelako, gizartearen kohesioa sustatzen duelako eta komunitatearen partaidetza-zentzua eragiten duelako.

29. Aisiaren Mundu Erakundeak: Aisialdiari buruzko gutuna. Eskuragarri hemen: <https://www.world-leisure.org/wlo2019/wp-content/uploads/2021/07/Charter-for-Leisure-es.pdf>.

30. Yolanda Lázaro, Aurora Madariaga, Idurre Lazcano eta Joseba Doistua (2012). Hitzaldia: *El derecho al ocio: un derecho humano en ocasiones desconocido*. (Aisialdirako eskubidea: batzuetan ezaguna ez den giza eskubide bat).

5.3 AISIALDIA KONTSUMOAREN GIZARTEAN³¹

XX. mendean aurrerapen handia izan du aisialdiaren aitorpenak, hiru alderdi nagusik bultzatuta:

- 1. DENBORA ASKATUA ESKURAGARRI IZATEA:** baldintza sozioekonomikoei, lan-merkatuari, bizi itxaropena handitzeari, teknologiak gartzeari eta beste hainbat faktoreri esker, pertsonak denbora libre gehiago dute. Halere, denbora gehiago izateak ez du beti ekarri aisialdiaren erabilera positiborik.
- 2. JARDUERAK DIBERTSIFIKATZEA:** aisialdi-jardueren eskaintza handiaren ondorioz, beren nortasuna sendotu eta interesak betetzen dituzten esperientziak bilatzen dituzte pertsonak. Hala ere, dibertsifikazio horrek denbora librea nola erabili erabaki beharra ekarri du ere bai, barne eta kanpo faktoreek eraginda.
- 3. AISIALDIA KONTSUMO GISA:** aisialdiak gero eta lotura handiagoa du gastu ekonomikoarekin, kontsumo-jardunekin (erosketak, ondasunak eta zerbitzuak eskuratzea), aisialdi-jarduera askoren parte osoa direnekin. Joera horren ondorioz, aisialdia merkaturatu da eta harekin lotutako produktuak eta zerbitzuak kontsumitzean oinarritutako bizi estiloak sortu dira.

Aipatu berri dugunarekin lotuta, nabarmendu behar da kapitalismoaren gorakadak eta gizarte post-industrialerako trantsizioak, bereziki 1960ko hamarkadan, eraldaketa handia ekarri diotela aisialdia ulertzen eta eskuratzen dugun moduari. Ikusi denez, gero eta joera handiagoa dago kontsumoaren zentraltasunerako, funtsezko prozesu sozial, ekonomiko eta kultural gisa, multinazionalen bidez kapitalismoaren globalizazioak bultzatuta.

Aisialdiaren kontsumoa eskuragarriago izatea haren demokratizaziotzat jo da. Hala ere, gehiago kontsumitze hutsak ez du zertan bermatu poztasun edo gozamen handigorik. Azken 60 urteetan aisiaren eskaintza eta kontsumorako aukerak areagotzeak kezka eragin du aisialdiaren esperientziaren benetako esanahia galduko ote zen, «gizabanakoa aktore izatetik kontsumitzaile hutsa izatera igarotzearen mehatxua» baitauka esperientziak.

³¹. Atal hau egiteko, Idurre Lazcano eta Aurora Madariagaren (2016) artikulua hartu da ardatz: *El valor del ocio en la sociedad actual* (Aisialdiaren balioa gaur egungo gizartean). Aisiaren Ikasketa Institutua. Deustuko Unibertsitatea. Eskuragarri hemen: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6149004>.

Gainera, ezin dugu ahaztu aisialdia, egitura kapitalistetan txertatuta egoteaz gain, heteropatriarkaletan ere badagoela. Eta, horregatik, aisialdiaren eta denbora librearen inguruko azterketetan kontuan hartu behar dira botere-harremanak eta genero-desorekak, subjektu batzuen (emakume, gizon eta pertsona ez-normatiboak eta klase sozial, adin, gaitasun, arraza ezberdinekoak, etab.) esperientziei eta denbora horren gozamenari dagokienez.

5.4 KRITIKA FEMINISTAK AISIALDIAREN AZTERKETEI ETA ANALISI-IKUSPEGI BERRIAK ³²

Tania Mérelasen eta Belén Caballoren aburuz, aisialdiaren azterketetan genero-ikuspegia analisi-kategoria gisa txertatzeari esker, aukera egon da gogoeta sakona egiteko egitura sozialek eta botere-egiturek aisialdiaren esperientziak moldatzeari buruz. Iraganean, aisialdiari buruzko ikerkuntzek ez zituzten aintzat hartzen genero-desorekek emakumeen denbora libreari eta aisialdi-esperientziei eragiten dietela; ondorioz, errealitatearen irakurketa partziala ematen zuten:



«Lanaren esparruko eta etxearen arloko desorekek, besteak beste, emakumeen nortasun emantzipatua zailtzen dute; Rosemary Deem-ek (1986) adierazten duenez, gizarteak eman dizkien roletatik ihes egiteko zailtasunak dituztelako. Egoera horrek nolabaiteko mugapena dakarkie emakumeei, aisialdiarako eskubideak dituzten subjektu gisa beren burua eraikitzeari dagokionez; beraz, denbora horri buruz dituzten jarrerak mugatzen ditu ere bai».

Aitchison, 2003; Henderson eta Bialeschki, 1991; Wearing eta Wearing, 1988; Deem, 1986

Egileek aipatzen dituzten kritika nagusietako batek arreta ematen dio lanarekin lotuta aisialdia kontzeptualizatzen den moduari. Aisialdiaren ikuskera tradizionalak, hau da, lan ordaindutik askatutako denborak, alde batera uzten zituen emakumeek etxean eta komunitatean beren gain hartzen zituzten (eta hartzen jarraitzen dituzten) ordaindu gabeko erantzukizun ugariak:

³². Atal hau egiteko, Tatiana Mérelasen eta Belén Caballoren (2018) artikulua bat hartu da ardatz: *Enfoques feministas sobre los tiempos de ocio de las mujeres* (Ikuspegi feministak emakumeen aisialdi-tarteei buruz). Eskuragarri hemen: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6817379>



«Denboren esperientziari eragiten dio gizartearen egitura patriarkalak, eta horrek denbora femeninoen zatiketa eta konplexutasun handiagoa dakartza, beren nortasunari atxikitako rol sozialen ondorioz –ama, alaba, emazte eta beste batzuk–. Cara Aitchisonen (2003) dioenez, emakumeen aisialdia aztertzen dugunean, beste zeregin eta esperientzia batzuekin konbinatzen dela ikusten dugu, eta, aldi berean hainbat jarduera egiten dituztenez, azterketa hori zailagoa egiten da, eta, hortaz, jarduera zehatzetan sailkatzea ere bai».

Aisia askatasunerako eta autonomiarako espazio gisa ulertzea kritikatu izan da. Aisialdiak nork bere burua adierazteko eta garatzeko aukerak badakartza ere, pertsona guztiek ez dituzte aukera horiek guztiak beti. Gero-desorekek eta beste zenbait faktorek emakumeen ahalmena mugatu ahal dute poztasuna eta ahalduntzea dakarkieten denbora libreaz eta aisialdiko jardueraz erabat gozatzeko, esaterako, klase sozialak, arrazializazioak, adinak edo dibertsitate funtzionalak.

Azkenik, **aisia jarduera gisa hartzea zalantzan jarri da, emakumeen esperientzien aniztasuna barne hartzeko mugatuta dagoelako.** Emakumeek denbora librean egiten dituzten jarduera asko, adibidez, besteak zaindu edo etxeko lanak egin, ez dira aisialdi tradizionaltzat hartzen, atsegina edo poztasuna eragin badezakete ere. Aisialdiaren ikuspegi mugatzaile horrek alde batera uzten ditu emakumeen eguneroko esperientziak, eta modu mugatuan ulertzen du aisialdiak benetan zer hartzen duen barne:



«Kozinatzeak izaera ludikoa izan dezake edo lan-zama gisa har daiteke; jardueraren egi-leak emango dio zentzu bat edo beste, ez baita berdina pertsona maitatuentzako janaria prestatzea nahikoa astiarekin eta prozesuaz gozatzea eta denbora urriekin kozinatzea nork bere burua elikatu behar duelako. Berdina gertatzen da haurtxoekin partekatutako denborekin, erantzukizunak gorabehera, zaintzak egitean jolaserako eta dibertimendurako tokia baitago ere bai. Edonola ere, egoera horrek agerian uzten duenez, aisiari buruzko ikerkuntzetan kontuan hartu behar dira emakumeek zenbait esperientziari eta ekintzen aldiberekotasunari ematen dizkieten esanahiak».

Kritika horien aurrean, ikerkuntza gehiago egin ziren aurrerantzean, eta Tania Mérelas eta Belén Caballo egileek hiru ildo hauen bidez laburtu dituzte:

1. IKERKUNTZA-ILDOA.

DESOREKA SOZIALAREN IKUSPEGIA: emakumeek aisialdi-esperientzietan parte hartzea mugatzen edo zailtzen duten faktoreak.

Ilido horretan egin diren ikerkuntzetan, emakumeen aisialdi-esperientziak oztopatzen dituzten faktoreak aztertu dira, eta, nagusiki, hiru hauteman dira: **denbora erabilgarria, baliabide ekonomikoak eta komunitateko aisialdi-zerbitzu eskuragarriak.**

Denbora erabilgarritik hasita, ikerketa askok agerian utzi dutenez, aldaketa sozialak gorabehera, lanaren sexu-banaketa iraunkorraren eta genero-rolen ondorioz, lan produktiboa eta erreproduktiboa ezin dira zuzen banatu. Emakumeek zama handiagoa dute oraindik, eta, ondorioz, denbora libre gutxiago dute; beraz, aisialdiaz gozatzeko aukera urriago ere bai.

Jarraitzeko, baliabide ekonomikoen inguruan, nabarmendu behar da gaitasun ekonomikoak aisialdi-jardueretan parte hartzeko aukerei eragiten diela. Adibidez, baliabide ekonomiko urriago izateak emakumeen mugikortasunari eragiten dio bereziki, garraio publikoa erabiltzeko edo oinez mugitzeko joera dutelako. Gizonak, ordea, autoz mugitzen dira nagusiki. Ondorioz, desorekak sortzen dira aisiaren, kulturaren eta kirolaren aukerak eskuratzeko eta jardura horiek egiteko denbora erabilgarriari dagokionez.

Komunitatean eskuratu daitezkeen aisialdi-baliabideei dagokienez, nagusiki, zehazki emakumeei zuzendutako programak eta zerbitzuak eskasak direla hauteman da, bereziki, kirolaren esparruan.

Aipatu berri ditugun hiru faktoreez gain, ez dugu ahaztu behar aisialdi-jarduerak egiten diren tokiak funtsezko rola duela, segurtasun-pertzepzioaren arabera emakumeen aisialdiari lagundu edo hura galaraz dezakeelako. Esate baterako, hiri-eremuetan eginiko azterketen arabera, sexu-indarkeriaren beldurrak emakumeek kirol-jardueretan parte hartzea muga dezake.

Oztopo horiek aisialdiari eta indarkeria matxistei buruzko ikerkuntza honetan aztertu dira ere bai, eta, horri esker, lotura zuzena ezartzeko aukera izan dugu egiturazko zenbait indarkeriaren (lanaren sexu-banaketa, prekariedade ekonomikoa, etab.) eta zuzeneko indarkerien (segurtasunik eza, estigmatizazioa, etab.) eta aisialdiaren kontsumoaren artean. Gainera, emakumeen eta pertsona ez-bitarren aisialdi-esperientzietan sakondu ahal izan dugu, zenbait aldagai oinarri hartuta: adina, arrazializazioa edo dibertsitate funtzionalik ote duten edo ez. Horiei esker, opresio-egitura jakin batzuek indarkeria-adierazpen zehatzak dakartzatela ikusi ahal izan dugu.

2. IKERKUNTZA-ILDOA.

ERREPRODUKZIO SOZIALAREN IKUSPEGIA: aisialdi-esperientziak genero-rolen eta -estereotipoen zerbitzura.

Illo horrek barne hartzen ditu genero-estereotipoek aisialdiko esperientziei eragiten dietela aztertu duten ikerkuntzak.

Horri dagokionez, ideologia heteropatriarkalak ezartzen ditu emetasun- eta gizotasun-arketipo nagusiak, eta botere-harreman desorekatuak ere bai. Horiek, gizabanakoen eskaletara ez ezik, egitura sozialetara errotzen zaizkie. Aisialdiaren esparruan, genero-estereotipoek argi eta garbi baldintzatzen dituzte pertsonen jarrerak eta jokaerak beren denbora librean.

Aisialdiko esperientzietan genero-estereotipoen inpaktua ikerkuntza honen testuinguruan aztertu da ere bai, eta, horri esker, emakumeen eta pertsona ez-bitarren aisialdiko esperientziak mugatzen dituzten zenbait indarkeria simboliko ikusarazi dira. Berriz ere, analisi hori ikuspegi intersektionaletik egin da, eta hori lagungarria izan da zenbait opresio-ardatzek kolektibo jakinen aisialdia eta haren kalitatea baldintzatzen eta zailtzen dutela ikusteko.

3. IKERKUNTZA-ILDOA.

ERRESISTENTZIAREN IKUSPEGIA.

Aurreko ikuspegiak aisiaren ikuskera kritikoa aurkezten dute, esperientzia ludikoak mugatzen dituzten faktoreak ikusarazten dituztelako edo, genero-estereotipoak indartzen dituen eszenatokia denez, aisia bera zalantzan jartzen dutelako. Hala ere, **erresistentziaren ikuspegia hartzen duten ikerkuntzen arabera, aisiak gaitasuna du botere patriarkalaren harremanak eraldatzeko.** Ideologia nagusiek aisialdia eskuratzeko aukerari eragiten badiote ere, aitortzen da aisialdiak emakumeen eta subjektu ez-normatiboaren erresistentzia-gaitasunari lagundu ahal diola.

Ikuspegi horretatik, emakumeentzako mugapenak eta oztopoak ekarri ez ezik, aisialdia erresistentziarako eta ahalduntzerako tokia ere bada. Aisiak, hortaz, beste nortasun eta arrazoibide batzuk sortzen lagundu dezake, nork bere burua adierazteko, sormenerako, gizartearen kohesiorako eta abarrerako espazio indibidualak eta kolektiboak eskaintzen dituelako.

Indarkeria matxistei eta aisialdiko kontsumoei buruzko ikerketa honetan, erresistentzia ikuspegi horri lagundu ahal dioten hainbat gogoeta bildu ditugu. Zehazki, azken kapituluan, indarkeria matxistarik gabeko aisialdiaz gozatzeko proposamen batzuk aurreratuko ditugu, dokumentu honetan aipatutako hiru ahalmenen arabera antolatuta: aldaketa pertsonalaren ahalmena, indar kolektiboaren ahalmena eta joko-arauak aldatzeko ahalmena.



3

Ikerketaren emaitzak

1 | HELBURUAK ETA HIPOTESIAK

Aisialdiko eta denbora libreko kontsumoak indarkeria matxistak dakartzala aztertzeke helburu orokorrarekin, ikerkuntza lau helburu zehatzen eta zortzi hipotesiren inguruan antolatu da.





Lehenik eta behin, aisialdia eta denbora librea nola ulertzen diren aztertu da, eta galdetutako pertsonen gai hori nola kontzeptualizatzen duten eta aisialdia eta denbora librea nola bizitzen duten jakitea bilatu da (1. helburu espezifikoa). Bigarrenik, desoreka-ardatzek aisialdiari eta denbora libreari nola eragiten dieten arakatu nahi izan da. Aztertutako opresio-ardatz nagusiak izan dira arrazializazioa, klase soziala eta lanaren sexu-banaketa (2. helburu espezifikoa).

Jarraian, 3. helburu espezifikoaren bidez, indarkeria matxisten analisisan sakondu da. Horiek aisialdi merkantilizatua bultzatzen dute, eta horrela antolatu dira: egiturazko indarkeriak, indarkeria sinbolikoak eta indarkeria zuzenak. Azkenik, aurrez eginiko analisisetan oinarrituta, 4. helburu espezifikoa indarkeria matxistarik gabeko aisialdia lortzeko proposamenak hautematea izan da.



3. TAULA

IKERKUNTZAREN HELBURU ESPEZIFIKOAK ETA HIPOTESIAK

Ikerkuntzaren helburu espezifikoak	Helburu espezifikoei lotutako hipotesiak
 <p>1. HELBURUA. AISIALDIA ETA DENBORA LIBREA NOLA ULERTZEN DIREN AZTERTZEA</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ 1.H.1.H. Galdetutako pertsonen aisialdia eta denbora librea nahasten dituzte. ✓ 1.H.2.H. Aisialdia eta denbora librea nahastearen nahitasun hori sistema kapital/kolonial/hetropatriarkalak sortzen du (indarkeria sinbolikoa). ✓ 1.H.3.H. Galdetutako pertsonen aisia logika kontsumistarekin ulertzen dute.
 <p>2. HELBURUA. BALDINTZA MATERIALEK EDO DESOREKA-ARDATZEK DENBORA LIBREARI ETA AISIALDIARI NOLA ERAGITEN DIETEN ARAKATZEA</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ 2.H.1.H. Atzeritarren Legeak Euskadira etorritako etorkinei galarazten die espazio publikoaz gozatzea. ✓ 2.H.2.H. Gero eta erosteko ahalmen handiagoa, orduan eta BBVA ereduaren gozamen-gaitasun handiagoa³³. ✓ 2.H.3.H. BBVA aisialdi-ereduak pribilegio handiagoak dituzten profil jakinei dakarkie onura. ✓ 2.H.4.H. Lanaren sexu-banaketak eta maitasun erromantikoaren kontzeptuak emakumeen aisialdia eta haren erabilera murrizten dituzte.
 <p>3. HELBURUA. AISIALDI MERKANTILIZATUAREN BBVA³⁴ EREDU KONTSUMISTAK SORTU ETA BIRSORTZEN DITUEN INDARKERIA MATXISTAK AZTERTZEA</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ 3.H.1.H. Aisialdi merkantilizatuaren BBVA eredu kontsumistak indarkeria matxistak sortu eta birsortzen ditu (egiturazkoak, sinbolikoak eta zuzenak).
 <p>4. HELBURUA. INDARKERIA MATXISTARIK EZ ERREPRODUZITZEKO AISIAK KONTUAN HARTU BEHAR DITUEN GAKOAK/IRIZPIDEAK HAUTEMATEA</p>	<p>Helburu horri ez zaio heldu hipotesi zehatzetatik; aitzitik, indarkeria matxistarik gabeko aisialdia lortzeko gakoak antzematea bilatu da.</p>

Emaitzen aurkezpena antolatu da goian aipatutako helburuen eta hipotesien arabera. Hipotesi bakoitza aztertu ondoren, ondorioak aurkeztuko dira.

33. Amaia Pérez-Orozok, *Subversión feminista de la economía* (Ekonomiaren iraultza feminista) (Traficantes de Sueños, 2014) liburuan, María José Capellín aipatzen du, «Mendekotasunari Arreta emateko Euskal Legearen alde emakumeen kolektiboek eta sindikatuek antolatutako kanpaina aurkezteko mintegian eskainitako hitzaldian (Bilbo, 2005eko maiatzaren 13an), BBVAz berba egin baitzuen: zuria, burgesa, gizona, heldua (blanco, burgués, varón, adulto gaztelaniaz)».

34. María José Capellín sortutako BBVA eredu kontsumistaren kontzeptuak aipatzen du kontsumoa indarkeria-tresna dela ezaugarri jakin batzuk (zuria, burgesa, gizona, heldua) betetzen ez dituzten pertsonen aurka; ezaugarri horiek sistema ekonomiko nagusiak pribilegiatutako subjektuari dagozkie.



1. HELBURUA

NOLA ULERTZEN DIRA AISIALDIA
ETA DENBORA LIBREA

2 | 1. HELBURUA: Nola ulertzen dira aisialdia eta denbora librea

1. HIPOTESIA. GALDETUTAKO PERTSONEK AISIALDIA ETA DENBORA LIBREA NAHASTEN DITUZTE

Lehen hipotesi horretan sakontzeko, eztabaida taldeetan parte hartu duten emakumeen eta pertsona ez-bitarren arrazoibideak aztertu ditugu. Pertsona horiei galdetu zaie ea nola definituko zituzten aisialdia eta denbora librea. Esan dezakegu, orokorrean, **denbora librea norberaren gozamenerako denborarekin lotzen dela, eta, aisialdia, ordea, jarduera «egituratua-goekin» (zina joan, lagunekin geratu, etab.).**

Hala ere, arrazoibideak apur bat anbiguoak ziren eta bi kontzeptuak nahasten zituzten, zenbait nabardurarekin parte-hartzaile bakoitzaren profilararen arabera nolana ere:

- 27 urte baino gutxiagoko emakume eta pertsona ez-bitarrentzat, batez ere jarduera nork egiten duen arabera izango dira elementu bereizgarriak. Bakarka egiten diren jarduerak denbora librearekin lotzen dira, eta, beste batzuekin egiten direnak, ordea, aisialdiarekin:

«Nik, nagusiki, gogoetarako aldiarekin lotzen dut denbora librea, nire buruarekin egoteko dudana denborarekin, beste inor gabe, bakarrik; eta, gero, aisialdia lagunekin, ezagunekin, senideekin eta abarrekin partekatzen duzu. Azken batean, zure erantzukizunez ahazteko balio zaizkizun tartea dira».

27 urte baino gutxiagoko emakumeak eta pertsona ez-bitarrak

«Nik aisialdia gozatzearekin lotzen dut, eta denbora librea lanik eta betekizunik egin behar ez duzunean da, eta aisialdirako edo beste ezertarako erabil dezakezu. Adibidez, kozinatzea gustuko badut, kozinatzen dut, baina hori ez da aisialdirik. Aisialdia jai-giroarekin edo lagunekin egotearekin lotzen dut».

27 urte baino gutxiagoko emakumeak eta pertsona ez-bitarrak

- Emakume migratzaileak edo arrazializatuak aisialdia diru-kontuekin lotzeko joera dute, eta denbora librea erantzukizunik gabeko denbora-tartearekin:

«Aisialdiaz ari garenean, dirua behar duten gauzekin lotzen dut; denbora librea ez da zertan dirurik gastatu behar».

Emakume migratzaileak edo arrazializatuak

«Ez dakit aisialdia zer den... Denbora librea da erantzukizunik ez dudana, ez da lan produktiboa ezta erreproduktiboa ere».

Emakume migratzaileak edo arrazializatuak

- 27 urtetik gorako emakumeen artean, arrazoibideak anitzagoak dira. Haietako batzuek ez dituzte bi kontzeptuak bereizten, baina beste batzuek bi kontzeptuak bereizten dituzten honako hausnarketa hauek adierazi dituzte:

«Gauza berdina da, denbora librean gustuko zerbait egitea, esaterako, kirola, irakurtzea, kozinatzea, esku-lanak, etab.».

27 urtetik gorako emakumeak

«Aisialdian nahi dudana egiten dut, eta batzuetan ez daukat denbora liberrik, ez dakit nola azaldu. Aisialdian nahi dudana egiten dut, eta denbora libre batzuetan ez da ezertarako erabiltzen edo batzuetan ez daukazu.».

27 urtetik gorako emakumeak

«Nik esango nuke denbora libre delako lan-merkatu arruntak merkantilizatu ez duen denbora, eta, aisialdia, ordea, gustuko ditudan edota poztasuna dakarkidaten jardueraz gozatzeko denbora (...); esan dezakegu (aisialdiaren) kapitalismo bortitz honetan ez dela dirurik ekoizten niretzako erabiltzen dudalako denbora hori, nirea delako.».

27 urtetik gorako emakumeak

LABURBILDUZ...

Aurrez esan dugunez, hiru taldeetan aisialdia eta denbora librea anbiguotasunez bereizten badituzte ere, nabarmendu beharra dago, antzaz, **arrazializazioaren aldagaia bereizgarria dela hura definitzeko.**

Izan ere, gogoratu behar dugu, lan kualitatiboaren emaitzek adierazten dutenez, aisialdiaren kontzeptuak ikuspegi eurozentrikoa duela, eta emakume arrazializatuek beste ikuspegi batekin interpretatuko dutela agian. Prozesu kolonialarekin eta ebangelizazioarekin zerikusia du:

«Aisialdi hitzak erlijio katolikoaren eraso jasan zuen denbora luzez. Denbora-tarte lotsagabea, balio-gabea, bekatuzkoa eta arriskutsua zela zioten, eta kongregazioarenganako errorik erakusten ez zuten gazteei, gizonei eta emakumei zegokien»³⁵.

Horrekin lotuta, emakume migratzaileen eta arrazializatuen taldean, honako ideia hau dute abiapuntu: termino horiek gizartearen eraikuntzak dira, eta bizitza ekoizpenaren inguruan antolatzen duen eredu sozialari jarraitzen diote, non gainerako alderdiak –giza harremanak, zaintzak edo aisialdia eta denbora librea– logika produktibo horren eraginpean dauden ere bai.

Horri dagokionez, eztabaida taldean adierazi zenez, **aisialdi-eredu horrek ez du bat egiten pertsona migratzaile eta arrazializatu askoren bizitzarekin.** Horrek premia hausnartzeko beharra dakar, zehazki, **gozatzeko denbora librerik benetan nortzuk duten ikusteko, eta, horrela, aisialdia eta denbora librea gero eta pertsona gutxiagorentzako pribilegio bat bihurtzen ari direla ikusarazteko, funtsezko giza eskubide bat izan beharrean.**

35. Salazar C., C. M., & Arellano Ceballos, A. C. (2015). Aisialdiaren kontzeptua Latinoamerikako bizitza modernoan: ingeniari-tza soziokulturalerako berrikuspena eta oharra | Review and notes for a sociocultural engineering: leisure in modern life in Latin America concept. *Razón Y Palabra*, 19(2_90), 223-232. Hemendik hartu da: <https://revistarazonypalabra.org/index.php/ryp/article/view/153>.

2. HIPOTESIA. AISIALDIA ETA DENBORA LIBREA NAHASTEAREN NAHITASUN HORI SISTEMA KAPITAL/ KOLONIAL/HETEROPATRIARKALAK SORTZEN DU

Aipatu berri dugunaren inguruan, elkarrizketatutako emakume adituen arrazoibideek adierazi zutenez, zenbait elementuk eragiten diote aisialdiaren eta denbora librearen kontzeptualizazioari.

Hauxe da Zaira Garcia Dafonteren oinarrizko ideia: aisialdia **espazio fisikoa da, baina aldi berean bizi espazioa da, eta gizakion garapenerako oinarritzko beharrari erantzuten dio**. Halaber, aisialdiak gure izaera eraikitzen du, bertan gertatzen baitira gizakion garapenerako edo garapen pertsonalerako oinarrizko zenbait harreman afektibo. Hala, gizarteak gaur egun duen antolaketaren arabera, aisialdia funtsezkoa da osasun mentalerako, berdinekin egoteko edo berdinak ezagutzeko aukera dakarrelako.

Hala ere, aurrez aipatutako adituaren arabera, **ikuspegi horrek talka egiten du errealitatearekin, aisialdia ekoizpenaren logikarako oso funtzionala den sistema kapitalistaren tresna gisa konfiguratzeko baita**; izan ere:

Aisiaren ideia oso mugatuta dago honetara: «Gure ongizatea sortzera edo elikatzerako sistema kapitalistaren baitan produktiboak izaten eta zaintzailanak eta erreproduktio-zeregin guztiak betetzen jarraitzeko».

Zaira García Dafonte

Orduan, bizitza sektore ezarrietan sailkatzen duen gizarte kapitalista eta produktibista batean dagoenez –non, antzaz, gauza produktiboak eta erreproduktiboak bereizi ahal diren–, aisiak talka egiten du giza bizitzaren interdependenziaren errealitatearekin eta zaintzen balio nagusiarekin.

Izan ere, Matxalen Legarretaren arabera, lan ordainduak eta ez ordainduak egunero zeharkatzen ditu emakumeak, modu zehaztugabea eta aldi berean. Gizonek gaitasun handiagoa dute sailkatzeko, eta horrek aisiaren dimentsioari eragiten dio ere bai:

«Hortxe sartzen dugu baina, sarritan, nahasitzat eta gutxi sailkatutzat hartzen dugu. Horregatik, denbora gureganatzeko estrategiak ditugu, esferak bateratzeko, baina, jakina, zenbait egoera sortzen dira, esaterako, metroko joan-etorria eguneko tarte librea izatea. Ordu erdi hori irakurtzeko erabiltzen baduzu, denbora hori zureganatzen ari zara aisialdirako».

Matxalen Legarreta

Hortik ondoriozta dezakegunez, **eztabaida taldeetan aisialdia eta denbora librea anbiguotasunez ulertzen dute emakumeek ez dutelako aisialdi hautemanik eta sailkaturik; eta, horregatik, «beren buruarentzako tarteak lapurtzen dituzte ahal dutenean».**

Mónica Gortayreren analisiari jarraituz, —ikuspegi **feminista eta antirrazistatik**—, **aisialdiaren kontzeptua arazotsua da:**

«Zaintza-lanak etengabe egin behar dituzunean, aisialdi hitza ez da inon agertzen. Ez eta atsedean hartzeko edo deskonektatzeko denborarik ere».

Mónica Gortayre

Logika feminista eta antirrazista horretatik, Mónica Gortayreren ustez, hau xe izango litzateke aisialdiaren definizioa: «Denak zaintzeaz atsedean hartzea. Nork bere burua zaintzeko tarte bat eta aisialdirako beste bat izateko: ez pentsatzeko, atsedean hartzeko, sortzailea izateko eta autorrealizatzeko».

Hala ere, **emakume migratzaileentzako edo arrazializatuentzako ez dago lan ordainduaren, ez ordainduaren eta aisialdiaren benetako bereizketarik**. Egoitzetan pertsonak zaintzen dituztenek eta jantokietan, dendetan edo bulegoak garbitzen lan egiten dutenek –Mónica Gortayreren arabera–, etengabe zaintzeko pentsamoldea dute. Deskonektatzeko denbora dutenean, denbora hori darabilte lagun maiteen beharrak asetzeko. Orokorrean, besteak zaintzea lehenesten dute, beren burua zaintzearen aurretik, eta beren burua bigarren mailan uzten dute. Eta, gainera:

«Espazio pribatuetako zaintza hori ez da polita eta atsegina, gogorra da, material urriekin zaintzen dutelako, lurraldeen arteko distantzia handiarekin eta oso bortitza da emozionalki, gaitzespenak jasaten dituztelako zaintzean».

Mónica Gortayre

Itxi Guerrak analisi horri gehitu dio **dibertsitate funtzionala duten pertsonen errealitatea**. Argudiatu duenez, gizarte kapitalista produktibista honetan aisialdia langileek atseden hartzeko eta gozatzeko tartetzat jotzen da, eta, horren ondorioz, **dibertsitate funtzionala duten pertsonak ez dute eskubiderik atseden hartzeko, lan egiten ez dutenez, sistemarentzako ez baitira emankorrak**.

Gainera, dibertsitate funtzionala duten pertsonen aisialdiari buruzko imajinario kolektiboa **estereotipoz beteta** dago, egiten dituzten zeregin guztiak sendatzekoak izan behar direla uste baita:

«Logika kapitalistatik, aisialdia geure burua sendatzeko izan behar dela uste da. Egiten ditugun jarduera denak terapeutikoak izan behar dira: ez dugu zaldiketarik egiten, zaldiketa terapeutikoa baizik; ez ditugu fanzineak egiten, gure desgaitasunari buruzko fanzineak baizik; ez gara irteten dantza egitera, gurpil-aulkian doan pertsonentzako dantza egiten dugu, etab. Hau da, pertsona elbarri izatearen baldintza ezerean aurretik doa eta dena hartzen du».

Itxi Guerra

LABURBILDUZ...

Orain arteko datuei esker, esan dezakegu **aisialdia, logika kapitalista, produktibista eta heteropatriarkal baten barruan, desberdintasuna eta indarkeria matxistak sortzen laguntzen duen faktore bihurtzen dela. Gainera, arrazakeria edo dibertsitate funtzionala bezalako faktoreen intersekzioak atsedean eta gozamenerako kalitatezko espazio eta uneetara iristeko zailtasunak areagotzen ditu.**

Aipatu berri dugunak azpimarratzen du **aisialdien azterketan ikuspegi interseksionala hartzearen garrantzia, zenbait aldagaik emakumeen aisialdirako sarbidean duten eragina ikusarazteko.** Era berean, ikuspegi horrek aisialdiak modu inklusiboan antolatzen garrantzitsuak diren eraginen, esperientzien, beharren eta lehentasunen aniztasuna kontuan hartuta.

3. HIPOTESIA. GALDETUTAKO PERTSONEK AISIA LOGIKA KONTSUMISTAREKIN ULERTZEN DUTE

Galdetutako pertsonen aisialdia logika kontsumistarekin ulertzen ote duten ikusteko xedez, inkestan galdetu zaie ea zer aisialdi-jarduera mota egiten dituzten maizago, norekin eta non egiten dituzten eta horretarako zer gastu ekonomiko duten. Informazio hori osatu da eztabaida taldeekin eta elkarrizketa sakonekin.

ZER AISIALDI-JARDUERA MOTA EGITEN DITUZTEN

Inkestako datuekin hasita, inkestatuek gehien egiten dituzten aisialdi-jarduerak dira «lagunekin edo ahaideekin hitz egin edo denbora ematea» (%23), «kirola egitea» (%18), «paseatzea» (%12), «entretanimenduko programak, telesailak edo filmak ikustea» (%11), «irakurtzea edo musika entzutea» (%8) eta «jan eta edatera irtetea» (%7).


Datuak sexu-generoaren arabera ikusita, zis emakumeak nagusi dira jardueren hauetan: familiarekin hitz egin (%23), kirola egin (%19) eta paseatu (%13). Eta gehiago parte hartzen dute aktibismoko jardueretan edo jardueren boluntarioetan (%4), zis gizonen eta pertsonen ez-bitarren bano.

Pertsonen ez-bitarren³⁶ denbora gehiena darabilte kirola egiteko (%38) eta lagunekin edo ahaideekin hitz egiteko (%31).

Gizonen kasuan, gehienek denbora lagunekin edo ahaideekin hitz egiteko (%19) edo kirola egiteko (%15) badarabilte ere, zis emakumeek edo pertsonen ez-bitarren bano maila txikiagoan egiten dute. Zenbait jardueretan gehien errepikatu diren ehunekoak aurkeztuta, jardueren hauei dagokienez, zis gizonak nagusi dira, zis emakumeak eta pertsonen ez-bitarrak bano: irakurri edo musika entzun (%11), jan eta edatera irteten (%9), kultura- eta kirol-ekitaldi-etara joan (%5) eta festa egitera irteten (%3).

³⁶. Nabarmendu behar da inkestari erantzun dion inork ez duela bere burua gizon edo emakume trans gisa definitu.

1. GRAFIKOA. MAIZTASUN HANDIAGOZ EGITEN DEN AISIALDI-JARDUERA, SEXU-GENEROAREN ARABERA (%)




Aisialdi-jarduerak ezberdinak dira adinaren arabera. 18 eta 27 urte arteko taldean, kirola da jarduera nagusia, eta, ondoren, lagunekin eta ahaideekin egon eta irakurri edo musika entzun. 28 eta 37 urte arteko taldean, lagunekin edo ahaideekin egotea da lehentasuna, eta, ondoren, kirola egin eta entretenimenduko programak ikustea. Nagusiagoen artean, jan eta edatera irtetea garrantzitsuagoa da, eta paseatzea nabarmengarria da 58 eta 67 urte artekoen eta 67 urte baino gehiagokoan artean.

Datuei heltzen badiegu arrazializazioa kontuan hartuta, ikusten dugunez, pertsona zuri gisa antzemandako pertsonak batezbestekoaren joera mantentzen dute, eta horietako %23k lagunekin edo ahaideekin hitz egitea edo denbora ematea lehenesten dute; pertsona arrazializatuen kasuan, ordea, jarduera %16ra murrizten da, eta, jarraian «kirola egin», «entrenimenduko programak, serieak edo filmak ikusi» eta «irakurri eta musika entzun» datoz.


Emakume migratzaileekin eta arrazializatuekin eginiko eztabaida taldean, nagusiki, kirol-jarduerak eta etxeko jarduerak aipatzen dira ere bai. Etxeko jarduerak hedatuenak dira hainbat arrazoiengatik: batzuentzako, denborarik edo baliabide ekonomikorik ez edukitzeak kanpoaldean jarduerarik egitea galarazten du; beste batzuk ez dira eroso sentitzen aisialdi-espazio publikoetan eta beren etxeetako segurtasuna nahiago dute. Gainera, kultura batzuetan, lagunaren arteko aisia etxeetan egiten da, kanpora irten behar gabe. Azkenik, sare sozialik eza etxetik kanpo planak egiterako orduan oztopo bat dela nabarmentzen da.

Dibertsitate funtzionalaren aldagaiari helduta, dibertsitate funtzionalen bat duten pertsonak ehuneko handiagoak dituzte, bereziki, sormen-jardueretan, adierazpen artistikoetan, brikolajeetan, eta abarretan.

2. GRAFIKOA. MAIZTASUN HANDIAGOZ EGITEN DEN AISIALDI-JARDUERA, ARRAZIALIZAZIOAREN ARABERA (%)




3. GRAFIKOA. MAIZTASUN HANDIAGOZ EGITEN DEN AISIALDI-JARDUERA, DIBERTSITATE FUNTZIONALAREN ARABERA (%)



NOREKIN EGITEN DITUZTE AISIALDI-JARDUERAK

Jarduera nagusia zer pertsonarekin egiten duten faktoreari dagokionez, inkestatuen %47k adierazi dutenez, lagunekin egiten dute, %44k bikotekidearekin eta %44k bakarka. Sexu-generoaren arabera, alde txikia dago pertsona ez-bitarretan; zis gizon eta emakumeekin alderatuta, ehuneko handiagoak dituzte aisialdia animaliekin eta lagunekin partekatzeari dagokionez.

4. GRAFIKOA. JARDUERA NAGUSIA ZER PERTSONEKIN EGITEN DUTEN (%)



Unera arte adierazitako emaitzei esker ondorioztatu ahal dugunez, gaur egungo gizartean aisialdiaren oinarria logika produktibista bada ere, inkestaren emaitzek iradokitzen dutenez, galdetutako pertsonentzako **aisialdiaren funtzio nagusia da harreman afektibo garrantzitsuak eragiten jarraitzen dutela**. Baieztapen horren funtsak dira nagusiki egiten diren jarduerak (lagunekin hitz egin eta paseatu) eta norekin egiten diren (lagunekin eta bikotekidearekin).

Aisialdia beste pertsonekin partekatutako denbora gisa ulertzeak garrantzi handia du, bereziki, gazteen artean. 27 urte baino gutxiagoko emakumeen eta pertsona ez-bitarren eztabaida taldean aipatu zen zenbait jarduera «arrarotzat» hartzen direla familiarekin egiten badira, eta bakarrik eginez gero ere bai. Adibidez, ahaideekin bidaiatzea, garagardo bat hartzea bakarrik taberna batean edo zinemara bakarrik joatea. Horren harira, **gizartearen arabera, lagunduta «egin behar diren» jarduera batzuk egiteko lagunen eta bikotekideen** beharra nabarmentzen da.

«Asko gustatzen zait bakarrik bidaiatzea, adibidez, Madriler a bi egunez joatea, eta bakarrik egotea, eta zerbait hartzea nahi badut, taberna batera noa. Orain 26 urte ditut. Lehen, txikiagoa nintzenean, ez nuen egiten lagunik ez nuela edo arraroa nintzela pentsatuko ote zuten beldur, eta orain ez zait hainbeste inporta, ez dakit adinarekin edo nolabaiteko independentziarekin zerikusirik izango ote duen horrek».


27 urtetik beherako emakumeak eta pertsona ez-bitarrak

:

NON EGITEN DITUZTEN AISIALDI-JARDUERAK

Pertsona inkestatuek toki ezberdinetan egiten dituzte beren aisialdi-jarduerak. %40k adierazi dute etxean egiten dituztela; %36k naturan; %33k espazio publikoan, adibidez, auzoan edo plazetan; %25ek ostalaritzako tokietan, adibidez, tabernetan edo jatetxeetan; eta %20k kultura- edo kirol-espazio publikoetan.

5. GRAFIKOA. AISIALDI-JARDUERAK EGITEN DIREN ESPAZIOAK




ZENBAT GASTATZEN DUTEN AISIALDI-JARDUERETAN

Inkestan galdetu da **zenbat diru gastatzen duten jarduera egiten den bakoitzean**. Kasu horretan, inkestatuen %38k adierazi dute ez dutela ezer gastatzen; %15ek 1 eta 5 euro artean gastatzen dutela; %13k 6 eta 10 euro artean; %12k 11 eta 20 euro artean; %10ek 21 eta 50 euro artean.

Sexu-generoaren arabera, gizonek emakumeek eta pertsona ez-bitarrek baino maiztasun handiagoz adierazi dute ez dutela ezer gastatzen aisialdian. Neurrizko gastutik gastu handira bitarteko kategorietan sailkatzeko joera dute emakumeek, eta 50 eta 100 euro arteko tartean haiek bakarrik agertzen dira.

Ez dugu datu nabarmengarririk ikusi nazionalitateari edo arrazializazioari dagokionez; bai, ordea, lan-egoerari dagokionez. Kasu horretan, kontraturik gabeko soldatapeko lana duten pertsonak adierazi dute 0 euro gastatzen dutela maiztasun handiagoz (%67); eta, jarraian, prestazio ekonomikoen onuradunek (%58) eta langabezia daudenek, hau da, langabeziako prestazioa kobratzen ari direnek (%50). Autonomoen araubidean alta eman duten pertsonak (%29), erretiroa hartu dutenek (%33) eta besteren konturako enplegua dutenek (%36) maiztasun gutxiagorekin adierazi dute ezer ez dutela gastatzen. Langabeziako prestazioa kobratzen ari direnen artean (%17) gastu-ehuneko handiagoa dago ere bai (21 eta 50 euro artean), eta, jarraian, besteren konturako enplegatuen (%13) eta erretiroa hartu dutenen (%9) artean.

6. GRAFIKOA. GASTUAREN ETA AISIALDIAREN ARTEKO LOTURA LAN-EGOERAREN ARABERA (%)



Laburbilduz, lan-egoerak lotura argia du gastuaren jokabidearekin. Kontraturik gabe lan egiten dutenek eta prestazio ekonomikoak jasotzen dituztenek gutxi edo ezer ez gastatzeko joera dute. Ikasleek, seguru asko diru-sarrera mugatuak dituztenek, gutxiago gastatzeko joera dute ere bai. Besteren konturako lana dutenen artean, gastu-jokabideen atalasea zabalagoa da, eta, diru-sarrerarik ez duten pertsona langabetuen kasuan, neurrizko gastuetara mugatzen da. Autonomoen araubidean alta eman dutenen artean aldakortasuna handia da, beharbada diru-sarrerek gorabeherak dituztelako.

AISIALDI-EREDUAREN INGURUKO PERTZEPZIOA

Landa-lan kualitatiboan, inkestatuek aisialdi-eredua nola hautematen duten sakondu nahi izan da. **Arrazoibide gehienek adierazten dute, hain zuzen ere, aisialdia eta denbora libre logika kapitalistan eta merkantilistan oinarrituta antolatzen direla, eta horrek bazterketa dakarrela.**

Eztabaida taldeetan eta elkarrizketa sakonetan gizarteratu diren gogoeten ñabardurak errazago ulertzeko, informazioa **tentsio-ardatzetan** oinarrituta antolatu dugu. **Tentsio-ardatzak aipatzen ditugu aisiaren inguruko erabakiak aldi berean eragiten dituztela erabaki pertsonalek eta gizartearen aginduek; azken horiek, sarritan, presioa egiten eta aisialdiaz nola gozatzen dugun erabakitzean baldintzatzen digute.**

a. 1. TENTSIO-ARDATZA. Aisialdia sozializatzeko: doakoa vs ordainpekoa

Aisialdiaren funtzio sozializatzailearen –eta aurrez aipatu ditugun harreman garrantzitsuak sortzeko duen garrantziaren– eta hura barne hartzen dituen dinamika kontsumisten arteko kontraesanaz ari gara.

Zehazki azaltzeko, 27 urtetik gorako emakumeen eztabaida taldean erreferentzia egin zitzaizen dinamika sozializatzaileei, non haurtxoen amak murgilduta dauden; eta haiek presioa jasaten dute aisialdi-eredu kontsumistan parte hartzeko, haurtxoek sozializatzeko aukera izan dezaten:

«Zaila da jendearekin harremanak izatea. Ni askotan jaisten naiz parkera nire seme txikiarekin, diru gutxi dudalako eta une horretan ezin dudalako 10 euro gastatu kañetan. Nora zoaz? Terraza batera, eta, jakina, ezin zara hor hiru orduz egon kontsumitu gabe, eta ez duzu nahi denbora osoan zu gonbidatzea (...) Orduan, parkera noa nire semearekin, eta, azkenean, ez banaiz banku batean jesartzen, terraza batean jesarriko naiz eta gastatu behar dut derrigorrez».

27 urte baino gehiagoko emakumeak

b. 2. TENTSIO-ARDATZA. Aisialdia atsedean hartzeko vs Aisialdia produktiboa izaten jarraitzeko

Tentsio-ardatz hori baliagarria da irudikatzeko aisiaren funtzioak, atsedean hartzearekin, deskonektatzearekin eta gozatzearekin lotzen denak, **logika kapitalistan funtzio instrumentala hartzen duela nagusiki, ekoizten jarraitu dezagun beharrezkoa baita.** Ideia hori adierazi zuen Matxalen Legarretak, eta aisia lan-erritmo biziekin eta ekoizpenaren erritmoa jarraitu ahal izateko deskonektatu beharrezkin lotuta dagoen ustea sendotzen du: «Adibidez, kirola egiten dugu gauzak kanpotzeko eta eztanda ez egiteko».

Halaber, tentsio-ardatz hori baliagarria da hauxe azaltzeko: galdetutako pertsonentzako aisialdia birziklatzeko eta ikasteko unea izan daiteke, profesionalki hazteko. Hau da, gozamenari edo atsedeanari lehentasuna eman beharrez, ekoizpena handitzeko erabiltzea. **Beraz, aisia funtzionala da ekoizpenari lehentasuna ematen dion gizartean, eta tresna beharrezkoa da sistemak pertsonen etekina ateratzen jarraitzeko:**

«Nik denbora libre erabili ohi dut nire lanbideari buruzko informazioa bilatzeko, neure burua eguneratuta izatea gustuko dudalako eta nire aztarna digitala edo profesionala uzteko denbora erabiltzea gustuko dudalako, eta, gero, aisialdian lagunekin noa afaltzen eta bazkaltzen asteburuetan».

27 urtetik beherako emakumeak eta pertsona ez-bitarrak

«Nik egiten dudana da (denbora librean eta aisialdian), gizon nagusi batekin lan egiten dudanez, bazkaria prestatzea eta abar; tutorialak ikusten ditut hemengo janaria nola prestatzen den jakiteko, kanpotarrak garelako».

27 urtetik beherako emakumeak eta pertsona ez-bitarrak

C. 3. TENTSIO-ARDATZA. Hautatzea vs Inposatzea

Matxalen Legarretaren hausnarketek argitasuna dakarkiotte, pertsonok gure aisialdia zer modutan gozatu nahi dugun erabakitzerako orduan, erabakiak hartzeko eskubidea izatearen eta gizartearen inposaketaren (sarritan, isilpekoa, sotila eta ezkutukoa) arteko kontraesanaren kontuari. Izan ere, denbora hori bikaintasunarekin lotutako gizartearen aginduak betetzeko erabiltzea bultzatzen du gizarteak, eta horren inpaktua bereziki ikusgarria da emakumeen kasuan.

Idea hori irudikatzeko, Legarretak gogora ekarri zuen bere doktorego-tesiko ideia bat, non emakume batek zioen:

«Emakume perfektua izan behar nuen, langile perfektua, ama perfektua, eta, gainera, aisialdiko jarduera zehatzak egin behar nituen, zentzu horretan ere perfektua izateko. Emakume horrek zioen ez zuela igerilekura joan nahi».

Matxalen Legarreta

d. 4. TENTSIO-ARDATZA. Aisialdi eskusiboa vs Aisialdi baztertzaila

Aisia zeharkatzen duen logika kapitalista eta kontsumistak jarduera horiek antolatzeko moduari eragiten dio ere. Mónica Gortayrek horri buruz argudiatzen duenez, aisialdia oso egituratuta dago gure gizartean, eta tokietan, ordutegietan eta parte hartzeko oso modu espezifikoean zatikatzen da. Antolaketa horrek **eragin patriarkala eta kapitalista islatzen du, non zenbait aisialdi-espaziotan bakarrik sar daitekeen jantzi egokiak izanez gero, eta, horrek, bestalde, nolabaiteko erosteko ahalmena eskatzen du**. Aisia egituratzeko modu hori baztertzaila da.

Zehazki, Gortayrek nabarmentzen duenez, migratzaileak eta pertsona arrazializatuak ez daude ohituta aisialdia modu horretan esperimentatzera. Haienzako funtsezkoa da beren familia zabalekin (seme-alabekin, aita-amekin, aitona-amonekin eta osaba-izekoekin) egoteko aukera duten tokiak edukitzea eta hainbat jarduera egitea, hala nola, futboleko aritzea, errekiak egitea, dantza egitea edota ehuntzea, dena aldi berean. Horregatik, emakume migratzaileek sarritan toki jakinak bilatzen dituzte, esaterako, industria-nabeak edo parke urrunak, non jarduera horiek guztiak toki berean egin.

Halaber, **aisialdirako espazioak oso zatikatuta daude adinaren arabera eta kapazitistak dira, forma fisiko ona duten eta zaintza-erantzukizunik ez duten gizon eta emakume gazteentzako diseinatuta baitaude.** Hortaz, Latinoamerikako emakumeak baztertuta sentitzen dira: «Beren seme-alabak berriz taldekatzeko zortea badute, haiek ezingo dituzte lagundu». Gainera, emakume horietako askok gurasoak edo amonak berriz taldekatu dituzte ere bai, eta horiek behar dituzten aisialdi-espazioak ezin dira soilik mugatu pertsona nagusiekin egotera.

e. 5. TENTSIO-ARDATZA. Doako aisiari eta ordainpeko aisiari ematen zaien balioaren artean

Kontsumoari dagokionez, aisiaren analisi sakona egiteko aukera ematen duen beste tentsio-ardatz bat islatzen da doako aisiaren eta ordainpeko aisiaren arteko kontraesanean. Inkestaren emaitzek aisia nagusiki harreman afektiboak sendotzeko aukeratzat jotzen dela eta gehienbat egiten diren jarduerak gehiegizko gasturik behar ez dutela iradokitzen badute ere, **eztabaida taldeetan sortutako arrazoibideak agerian uzten du ordainpeko aisiaren eta doako aisiaren arteko hierarkia, eta balio gutxiago ematen dio lehenengoari.**

Mónica Gortayreren arabera, aisiaren kontakizun kapitalistak sustatzen du aisialdi garestia hobea delako ideia, eta horrek eragina du hautemate orokorraren gain. Jendeak uste du aisialdi-jarduera garestienek kalitate hobea dutela, adibidez, dantza-eskolak hartzea akademia pribatuan ikastetxe publiko batean baino edo gimnasio pribatu batera joatea udaleko batera baino.

Adituaren arabera, gainera, aisialdi baliotsuena da zorpetuta esku-ratzen dena, esaterako, parke tematikoetara joatea, gastu ekonomiko handia eskatzen duena. Hala ere, hautemate horrek ez du esan nahi aisialdi mota horrek zoriontsuago egin gaituenik, txirotzea eragin dezakeelako eta ez diolako lagunduko gure garapen pertsonalari.

LABURBILDUZ...

Inkestaturen artean, gehien egiten duten aisia da lagunekin edo ahaideekin hitz egitea (%23), gero, kirola egitea (%18), eta, jarraian, paseatzea (%12). Pertsona ez-bitarrek kirola egitea eta lagunekin eta ahaideekin hitz egitea nahiago dute, bai eta emakumeek ere.

Kirola hedatua da gazteen artean, eta bazkaltzera irtetea ohikoagoa da adin nagusietan. Pertsona zuriek lehenetsia ematen diote hitz egiteari, baina arrazializatuek nahiago dute kirola, entretenimendua eta irakurtzea. Dibertsitate funtzionala dutenek neurri handiagoan egiten dituzte jarduera artistikoak edo dibertimenduzkoak.

Aisialdi-jarduerak, nagusiki, etxeetan, naturan eta espazio publikoan egiten dira. Jarduera horiek, nagusiki, lagunekin egiten dira (%47), baina bikotekidearekin eta bakarka ere bai (%44 kasu bietan).

Inkestaturen %38k adierazi dute ez dutela ezer gastatu aisialdi-jarduerak egiteko, eta gastatutako zenbatekoa handitu ahala, ehunekoak txikitzen dira. Sexu-generoari dagokionez, **gizonek joera handiagoa dute gastu gutxiago adierazteko, emakumeek eta pertsona ez-bitarrek baino. Emakumeek joera dute neurrizko gastutik gastu handira bitarteko kategorietan sailkatzeko.**

Laburbilduz, galdetutako pertsonentzat aisiak funtzio garrantzitsua betetzen du beste pertsona batzuekin harreman sozialak sortu edo sendotzerako orduan, esperientziak partekatzea eskatzen duten jarduerak egitea lehenesten delako (lagunekin hitz egitea edo paseatzea, adibidez). Aisialdi partekatua bereziki garrantzitsua da 27 urte baino gutxiagoko emakumeentzat eta pertsona ez-bitarrentzat, baina azpimarratu dutenez, lagunen eta bikotekideen nolabaiteko mendekotasuna dute zenbait jarduera egiteko, hain zuzen ere, gizartearen arabera norbaitekin egiten badira onartuagoak daudenak (taberna batera joan, zinemara joan, etab.).

Aisialdiaren eta denbora librearen pertzepzioari buruz, landa-lan kualitatiboaren emaitzek adierazten dutenez, hain zuzen ere, aisialdia eta denbora libre logika kapitalistan eta merkantilistan oinarrituta antolatzen direla eta horrek bazterketa eragiten duela hautematen da. Aztertutako arrazoibideak horrela laburbil daitezke: «tentsio-ardatzak» lagungarriak dira azaltzeko aisialdi-erabakiek aldi berean jasotzen dituztela erabaki pertsonalen eta gizartearen aginduen eragina, zeinak sarritan presioa egin eta aisialdiaz nola gozaten dugun erabakitzen baldintzatzen digun.

Hala, **denbora libreaz nola gozatu erabakitze gaitasunean aisialdi autoinposatuak eragiten du sarritan; aisialdi inklusiboaren eta doakoen aurrean, balio handiagoa hartzen dute aisialdi eksklusiboko eta ordainpekoen proposamenek;** logika kapitalistan txertatuta, aisialdia produktibitatearen zerbitzura dagoen tresna osagarri bihurtzen da.



2. HELBURUA

NOLA ERAGITEN DUTE DESOREKA-ARDATZEK
AISIALDIAREN ETA DENBORA LIBREAREN GOZAMENEAN

3 | 2. HELBURUA:

Nola eragiten dute desoreka-ardatzek aisialdiaren eta denbora librearen gozamenean

1. HIPOTESIA. ATZERRITARREN LEGEAK EUSKADIKO BIZTANLE MIGRATUEI GALARAZTEN DIE ESPAZIO PUBLIKOAZ GOZATZEA

Zenbait faktore aztertzea, adibidez, arrazializazioa, ezinbestekoa da desoreka-ardatzek aisialdiaren eta denbora librearen aukerei nola eragiten dieten antzemateko. Eta, analisi horren testuinguruan, aintzat hartu behar dugu Atzerritarren Legearen inpaktua, gizarte-bazterketa dakarren faktorea baita.

Mónica Gortayreren arabera, Atzerritarren Legeak (4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubideei eta Askatasunei eta beren Integrazio Sozialari buruzkoa) bi modutan eragiten die migratzaileei: lehenik, barneratze-zentroetara legez kanpo bidaliz; eta, bigarrenik, espazio publikoaz gozatzeko gaitasuna murriztuz. Migratzaile bat legeztatuta badago ere, legeak gogoratzen duenez, haren eskubideak baldintzatuta daude eta ezeztatu daitezke.

Lege horrek indarkeriaz jokatzeko esparru pribatua eta publikoa. Adibidez, pertsona migratzaileek edo arrazializatuek beren etxeetan edo publikoki arreta deitzea saihesten dute, eta agintariek beste modu batera epaitzen dituzte:

Atzerritarren Legeak iraunarazten du egoera administratibo erregularrean eta irregularrean dauden pertsonen arteko bereizketa, «legeztatuta» daudenean ere bai, eta, ondorioz, «espainolak ez izatearen» sentsazioa dute etengabe, herrialdean jaio badira ere. Pertsona arrazializatuen ekintzak modu ezberdinean interpretatzen dira. Ondorioz, askotari-ko indarkeria formak jasan ditzakete, besteak beste, beren burua mugatzea.

Ikerkuntza honen testuinguruan banatutako inkestan, galdera bat jaso zen honen inguruan: «Aisialdi-espazioetan deseroso sentitu ote zara edonoiz?». Baietz erantzun zutenek aukera zuten arrazoia adierazteko, eta horietako bat izan zen «polizien agerpena».

Inkestaren emaitzei esker, ikusi genuen **pertsonen %9k polizien agerpena aisialdi-espazio batzuk saihesteko edo deseroso sentitzeko arrazoia dela adierazi zutela**. Arrazializazioak, antzaz, ez dio eragiten polizien agerpenagatiko deserosotasun-sentimendu horri, inkesta honen testuinguruan behintzat. Nazionalitateak, ordea, aldeak dakartza. Izan ere, **atzerriko nazionalitatea duten pertsonen %18k arrazoi hori adierazi zuten aisialdi-espazio batzuetan deseroso sentitzen direla azaltzeko**.

Mónica Gortayrek azaltzen duenez, **polizien agerpenak beldurra eragiten du, Atzerritarren Legea dela medio**. Pertsona ugari dauden aisialdi-espazioetan, polizien agerpena beharrezkoa da segurtasuna edo edukiera bermatzeko. Hala ere, pertsona arrazializatuak eta migratzaileak negatibotzat jotzen dute agerpen hori, haientzako arriskutsua izan daitekeelako. Hori arazotsua da, polizia dagoen espazioetatik baztertzen dituelako.

Horri buruz, Mónica Gortayrek salatzen du **ez dagoela gaitasun nahikorik komunitatearentzako espazio ziurrak sortzeko zigor-ikuspegirik gabe**. Espainian ez dago arrazoibide prestaturik zigorraren aurka, pertsona migratzaileen segurtasuna ziurtatzen duten tokietan pentsatzeko aukera dakarrenik. Inguru feministetan nork bere burua zaintzeko jardunbideak sortzen ari badira ere, esaterako, «ez nau poliziak zaintzen, nire lagunak baik» leloa, beste alderdi batzuetan ez dago autodefentsarik.

Emakume migratzaileen eta arrazializatuen errealitatean sakontzean, ikusten da Atzerritarren Legeak inpaktua duela maila askotan. Lehenbizi, **prekarietate ekonomikoa eta soziala areagotzen du, eta, ondorioz, aisialdi-jarduerak egiteko oztopo gehiago daude, adibidez, bidaiatzeko; jarraian azaltzen denez:**

«Pertsona migratzaile bat bere etxean dagoenean, ez du musika oso altu jarriko, arreta ez deitzeko, autoan ezingo du lege-hausterik egin, poliziek ez baitute pertsona zuri bat bezala tratatuko; gazte talde batek autobus batean iskanbila sortzen badu *latin king*-tzat joko dituzte. Kontakizuna ez da berdina batzuentzat eta besteentzat».

Mónica Gortayre

«Nik dokumenturik gabe bidaiatu dut trenean nire semearekin, Italiaraino, ezer axola gabe, bidaiatzea gustuko dudalako eta horixe gustuko dudalako; eta dokumenturik ez izateak mugatzen nau, jakina, diru gutxi izateak, *no ticket no money*, trenean sartzen zara eta ez zaude ondo, harrapatzen bazaituzte, haurrarekin, etorriko denagatik. Horixe, denek bezala egitea nahiko nuke, baina ezin dut, diruaren eta dokumentuen muga daukat. Batzuetan, aske sentitzeko eta zoriontsu sentitzeko muga da hori».

Emakume migratzaileak edo arrazializatuak

Bigarrenik, eztabaida-taldean parte hartu duten emakume migratzaileek eta arrazializatuak maiz esan dute emakume migratzaileak eta arrazializatuak izateagatik **estigmatizatuta sentitzen direla eta horrek beren aisialdiari eta denbora libreari eragiten diela**. Estigmatizazioaren ondorioz, «ez dira eroso sentitzen inon, hemen jaio badira ere»; adibidez, dendetan zelatatzen dituztela sentitzen dute edo beste termino batzuk darabiltzatelako (beren herrialdeetakoak) erostera doazenean:

«Emakume migratzaileez eta erbestean bizi direnez ari gara. Ez gaude gure jatorrizko herrialdeetan, eta horrek zaugarritasuna eragiten digu. Estigmatizazioak aisialdian eta denbora librean eragiten du».

Emakume migratzaileak edo arrazializatuak

Baina **opresio ezberdinen interseksionalitatean estigma bikoizten da**, eta arbuioz zein bakardadez betetako bizi esperientziak dakartzatza. Horrek desoreka, diskriminazio eta indarkeria gehiago dakarkie emakume migratzaile eta arrazializatuak, bai eta beren seme-alabei ere. Egoera administratibo irregularrean dagoen eta ama ezkongabea den emakume migratzaile eta arrazializatu honen kasua da; eta lekukotza hau dakarkigu:

«Ni neu ez naiz seguru sentitzen. Ama ezkongabea naiz, ama migratzailea, eta ez naiz seguru eta eroso sentitzen ikastetxeko bileretan, haurrak kirola egin dezan bere aisialdiari buruzko ezer eskatzeko noanean, gauza guztietan arbuiatu gaituztelako, jantokian, toki guztietan, ez naiz ezer puzten ari, eta hiru urte daramatzagu horrela, nondik hara kolpeak jasotzen, eta ez naiz seguru eta eroso sentitzen, ez didate inon lagundu (...) emakume eta ama ezkongabea naizen heinean, ez naiz ondo sentitzen».

Emakume migratzaileak edo arrazializatuak

LABURBILDUZ...

Atzerritarren Legeak pertsona migratzaileen eta arrazializatuen gain duen eragina modu ezberdinetan eta bizitzako hainbat esparrutan ikusten da, **espazio publikoaz gozatzea mugatzen dielako, «erregulizatuta» dauden pertsoneri ere bai**. Lege hori **indarkeriaz aritzen da esparru pribatuetan eta publikoetan**, eta administrazio-egoera irregularretan eta erregularretan dauden pertsonen arteko zatiketa iraurarazten du. Ondorioz, pertsona migratzaileek eta arrazializatuek ez dute sentitzen bertakoak direnik, eta aisialdi-espazioez eta -tarteez gozatzeko aukerak kaltetzen ditu horrek.

Inkesta batean, %9k adierazi zuten deseroso sentitu direla aisialdi-espazioetan, polizien agerpenagatik; eta hori ohikoagoa da atzerritarren artean (%18).

Emakume migratzaileentzat eta arrazializatuentzat, **Atzerritarren Legearen inpaktua haiek jasaten duten estigmatizazioan hautematen da ere bai. Horrek aisialdiaz gozatzeko aukerak kaltetzen dituzten indarkeriak eragiten ditu (kontrola, deserosotasuna, «tokiz kanpo» sentitzea)**. Gainera, hainbat opresio elkarteak (emakume migratzailea, arrazializatua, egoera irregularrean eta ama ezkongabea, adibidez) **estigma hori handitzen du, eta horrek arbuio eta bakardadeko esperientziak dakartza, emakumeek jasaten dituzten berdintasunik eza, diskriminazioa eta indarkeria iraurarazten dituztenak**.

Emaitzen arabera, **premiazkoa da segurtasun-espazio komunitarioak sortzea ikuspegi antipunitibista eta antirrazistarekin**. Espazio horiek ulertu behar dira, gainera, zaintza-toki gisa, emakume migratzaileei eta arrazializatuari eragiten dizkieten opresio ezberdinak elkarteak sortutako indarkerien inpaktua arintzera zuzenduak; eta, halaber, integrazioko, segurtasuneko eta komunitatearen partaide izatearen sentimenduak sustatzen dituztenak.

2. HIPOTESIA. GERO ETA EROSTEKO AHALMEN HANDIAGOA, ORDUAN ETA BBVA EREDUAREN GOZAMEN- GAITASUN HANDIAGOA

Hipotesi horri heltzeko, inkestatuek aisian gastatzen dutenaren datuak gogorarazi behar ditugu lehenik, 1. helburuaren hirugarren hipotesian aipatu direnak. Ondoren, informazio hori osatuko dugu; horretarako, hautemango dugu inkestatuek zer jarduera mota egin nahiko lituzketen eta egin ezin dituzten, bai eta horiek egitea galarazten dizkieten oztopoak ere. Analisi hori aberastuko dugu eztabaida taldeetan sortutako gogoetekin.

Nabarmendu beharra dago BBVA aisialdi-ereduaz ari garenean Amaia Pérez-Orozco emandako definizioaz ari garela; honetaz, hain zuzen ere: «Kapitala-bizitza gatazkaz ari garenean, kapitalaren atzean bizitzak ere badaude. Batzuetan, metafora bat erabiliz, esan ohi dugu kapitalaren atzean dagoen aurpegia BBVArena dela; gaztelaniaz, *Blanco Burgués Varón Adulto*, heterosexuala, hiritarra. Sistema biozida eta suizida da, eta bertan bizitza batzuk onik ateratzen dira eta gainerakoek desoreka handi baten eraso larriak jasotzen ditugu».³⁷

³⁷. Amaia Pérez-Orozcoren hitzaldia, 2017ko uztailearen 4an egina Manu Robles-Arangiz Institutua Fundazioarentzat. Eskuragarri dago honako web-orri honetan: <https://www.mrafundazioa.eus/es/articulos/amaia-perez-oro-zco-la-economia-va-de-hacer-posible-la-vida>.


INKESTAREN EMAITZAK

Aisialdiko gastutik hasita, gogora dezagun inkestako emaitzek adierazten dutela gastu horrek generoaren, adinaren, arrazializazioaren eta diru-sarrerren mailaren eragina duela, eta faktore horiek rol garrantzitsuak betetzen dituztela pertsonen gastu-erabakietan. Hala, adibidez, inkestatuen joera orokorra aisian ez gastatzea bada ere (%38), emakumeek gizonak edo pertsona ez-bitarrek baino gehiago gastatzeko joera dute. Aisialdiko gastuaren jokabidea, gainera, lan-egoeraren arabera da.


Ikerkuntzan erabili dugun eta aurrez María José Capellínek eta Amaia Pérez-Orozok azaldutako BBVA ereduaren arabera aisiaren kontzeptuak kostu eta kontsumo handiko jarduerak barne hartzen ditu; eksklusiboak direnak, ingurumenarekiko jasagarriak ez direnak eta balio produktibisten eragina dutenak. Definizio hori urruntzen da inkestatuen aisialdi-jarduera irisgarriagoetatik; izan ere, ikusi dugunez, gastu-maila ertaina eta txikia duten jolas- eta sozializazio-jarduera multzoetara bideratzen dira (lagunekin hitz egitea, paseatzea, kirola, etab.).

Hala ere, inkestan galdetu genuenean ea zer aisialdi-jarduera egin nahiko lituzketen baina ez dituzten egiten edo nahi baino gutxiago egiten dituzten, jarduera bozkatuena «bidaiatu» izan zen (%37), eta, jarraian, «prestakuntzako eta hazkuntza pertsonaleko jarduerak» (%23).

7. GRAFIKOA. NAHI BEZALA EGITEN EZ DIREN JARDUERAK (%)



8. GRAFIKOA. NAHI DIREN JARDUERAK EGITEKO OZTOPOAK (%)



Hona hemen aipatutako jarduerak egitea galarazten duten oztopoak: inkestaren erdiak baino pixka batek gehiagok adierazi duenez, «**denborarik ezak**» (%57), «**dirurik ezak**» (%37) eta «**nekeak**» (%29) galarazten dizkiete. Arrazoi nagusi horien ondoren, beste hauek datoz: «**pertsonak zaintzea**» (%18), «**sare sozialik ez izatea**» (%18) eta «**eskaintza sozial eta kultural anitzik ez izatea**» (%11).

Jarraian, aipatutako oztopoen analisi labur bat aurkeztuko dugu, opresio-aldagaien arabera:

OZTOPOAK



OZTOPOA: DENBORARIK EZA (%57)

- > Denborarik ezari dagokionez, adinak garrantzia du, antza denez. Izan ere, 38-47 urte bitarteko pertsonen %18k adierazi dute oztopo horrek galarazten diela nahi dituzten jarduerak egitea.
- > Halaber, inkestari erantzun dioten pertsona zaintzaileen %62k eta bikotekidea dutenen %64k adierazi dute ezin dutela nahi duten jarduera egin, beste arrazoi batzuen artean, denborarik ez dutelako.



OZTOPOA: DIRURIK EZA (%37)

- > Kasu honetan ere, adina aldagai garrantzitsua da, pertsona gazteenak baitira gehien adierazi dutenak dirurik ez edukitzea nahi duten aisialdi-jarduera egiteko oztopo bat dela.
- > Datu horiek sexu-generoaren arabera aztertzen baditugu, ikus dezakegu gizonek adierazten dutela arrazoi hori gehien (%40), ondoren, emakumeek (%36), eta, jarraian, pertsona ez-bitarrek.



OZTOPOA: SARE SOZIALIK EZA (%18)

- > Sare sozialik ez izatea arazo bat da inkestaturen %18rentzat, eta ehuneko antzekoak dituzte emakumeek eta gizonek. Pertsona ez-bitarren kasuan handiagoa da (%23).
- > Oztopoen analisia, berriz ere, adina nabarmentzen da. Gazteenek (18-27) maizago adierazi dute (%24) ez dituztela nahi dituzten aisialdi-jarduerak egiten, besteak beste, sare sozialik ezagatik edo aisialdi-jarduerak inorekin egin ezin izateagatik.
- > Nazionalitatearen faktoreari dagokionez, atzeritarrek maizago adierazi dute sare sozialik ez izatea nahi dituzten jarduerak egitea oztopatzen diela (%27), eta nazionalitate espainola dutenen artean soilik %17k adierazi dute; nazionalitate bikoitza dutenen artean, %16k.
- > Dibertsitate funtzionalari dagokionez, alde handiak ikusi ditugu ere: dibertsitate funtzionalik dutela adierazi dutenen %25ek baieztatu dute sare sozialik ez izatea dela nahi duten aisia ez egiteko arrazoietakoa bat, eta dibertsitate funtzionalik ez dutenen artean, ehunekoa %17raino jaisten da.



OZTOPOA: ESKAINTZA SOZIAL ETA KULTURAL ANITZIK EZA (%11)

- > Pertsona ez-bitarrek arrazoi hori maizago adierazi dute (%15), zis emakumeek (%9) eta zis gizonek (%12) baino. Diru-sarrerarik gabe langabezian dauden pertsonen eta 500 eta 1.000 euro arteko soldatak dituztenen adierazi dute faktore hori gehien, aisialdi-jarduerak egiteko oztopo gisa. Adinari dagokionez, 67 urtetik gorako pertsonen adierazi dute arrazoi hori maiztasun handiagoz.
- > Dibertsitate funtzionala dutenen eta ez dutenen artean ere desberdintasun handiak ikusi ditugu: dibertsitaterik duten inkestaturen %25ek adierazi dute eskaintza sozialik eta kulturalik eza oztopo bat dela aisialdiaz gozatzeko; dibertsitaterik ez dutenen artean, berriz, bakarrik %10ek adierazi dute.
- > Aurrekoarekin lotuta, dibertsitaterik duten inkestaturen %43k adierazi dute oztopo arkitektonikoek eta beren beharretara egokitutako aisialdirik ez egoteak nahi dituzten aisialdi-jarduerak egitea galarazten dietela. Dibertsitate funtzionalik ez dutenen artean, ordea, soilik %0,7k adierazi dute hori.

Unera arte adierazitako emaitzei esker, esan dezakegu nahi diren aisialdi-jarduerak egitea galarazten dituzten oztopoetan, nagusiki, honako aldagai hauek eragiten dutela:

- **Adina**, kasu honetan, pertsona gazteek oztopo nagusi gisa aipatzen dituzte dirurik eza, denborarik eza eta sare sozialik eza.
- **Kapazitismoa**, dibertsitate funtzionala duten pertsonak nahi dituzten aisialdi-jarduerak egiteko oztopo nagusi gisa aipatzen dituzte sare sozialik eza eta eskaintza kulturalik eta sozialik eza, oztopo arkitektonikoe-kin batera.

EZTABAIDA TALDEETAKO ETA ELKARRIZKETA SAKONETAKO EMAITZAK

Landa-lan kualitatiboan honi buruz sakondu nahi izan da: eztabaida taldeetan parte hartu duten emakumeek eta pertsona ez-bitarrek zer punturaino bat egiten duten BBVA aisialdi-ereduarekin eta nahi dituzten aisialdi-jarduerak egiteko oztopo nagusiak zeintzuk diren:

- **Emakume migratzaileek eta arrazializatuek** ez dute bat egiten BBVA aisialdi-ereduarekin, erosteko ahalmenak mugatzen dielako. Halaber, pertsona arrazializatua izateak aisialdi-aukerei eragiten die:

«Diruak eta dokumentuek mugatzen naute. Batzuetan, aske sentitzeko eta zoriontsu sentitzeko muga dira».

Emakume migratzaileak edo arrazializatuak

- **27 urtetik gorako emakumeen taldean**, zenbait aldiz aipatu da ere bai diruak aisiaz erabat gozatzea mugatzen duela. Aurrez esan denez, hurren sozializazioan sortzen diren dinamikek aisialdi kontsumista sortzen dute. Aisialdi mota horrek profil burgesei dakarkie onura, eta ama ezkongabeak eta prekarioak kaltetzen ditu:

«Nekatuta nago larunbatero eta igandero irteteaz eta 20 euro gastatzeaz ordu gutxi batzuetan, eta, bestela, sozializatzen ez duzula edo zure semeak sozializatu ezin duela dirudi. Zure seme-alaben lagunen guraso guztiak terraza batean baldin badaude, ez zara zu bakarrik banku batera joango».

27 urtetik gorako emakumeak

Ez gara soilik hurrekin egindako aisiaz ari. Desiragarri gisa saltzen zaigun aisiak gastu bat dakar, eta eztabaida taldeko zenbait emakumek ezin dute hori ordaindu. Horrela azaltzen du batek:

«Ez dut aisialdi-jarduera gehiagorik egiten dena delako kontsumismoa eta ez dudalako dirurik. Ba ezin dut bidaiarik egin, ez noa kontzertuetara, ez noa zinemara, ez dut kanpoan afaltzen, ezin ditut kapritxo horiek ordaindu. Orduan, ez daukat aisialdirik; denbora librerik, ordea, badaukat».

27 urtetik gorako emakumeak

Hortaz, eztabaida taldeetan ikusi dugunez, **dirurik ez edukitzea da aisialdi-jardueretan parte hartzeko oztopo nagusia**. Muga ekonomiko horrek galdetutako emakume guztiei eragiten die, baina bereziki arrazializatuei eta ama ezkongabeei.

Ondorio horrek aukera ematen digu honako egitate hau berriro azpimarrazteko: **BBVA aisialdi-ereduak profil prekarioenak baztertzen ditu, eta, berriz ere, hainbat aldagai elkartzen direnez, nagusiki emakumeen aisialdi-aukerei eta denbora libreari eragiten die.**

LABURBILDUZ...

Ikerkuntza honetan erabili dugun BBVAren arabera aisiaren kontzeptuak barne hartzen ditu kostu handiko jarduera esklusiboak, oso jasangarriak ez direnak eta ekoizpena bideratutako balio arrazistak eta heteropatriarkalak dituztenak. Bestalde, inkestatutako pertsonen jarduera eskuragarriagoak egiten dituzte (paseatu, hitz egin, kirola egin, etab.). Azken horiek maizago egiten badira ere, inkestako emaitzen arabera, pertsonen egin nahi dituzten baina egin ezin dituzten jarduera nagusiak bidaiatzea (%37) eta hazkuntza pertsonaleko jarduerak (%23) dira.

Adierazi beharra dago Euskadin tabernetan eta terrazetan sozializatzea oso errotuta dagoela gizartean. Beraz, aisialdi-jarduera ugari toki horietan egiten dira. Hala ere, sozializazio mota horrek baliabide ekonomiko mugatuak dituzten pertsonak bazter ditzake. Bazterketa-dinamika hori gaitasun ekonomiko indibidualan oinarritzen da, beraz, horrek zenbait kolektibo kanpoan utz ditzake eta aisialdi-jarduerak eskuratzean desoreka eragin dezake.

Nahi diren aisialdi-jarduerak egitea galarazten duten oztopoetan, honako aldagai hauek eragiten dute nagusiki:

- **Adina:** gazteek aipatzen dute oztopo nagusiak dirurik, denborarik eta sare sozialik ez izatea direla.
- **Kapazitismoa:** dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat, sare sozialik eta eskaintza kultural anitzik ez izatea eta oztopo arkitektonikoak dira nahi egin dituzten jardueretarako oztopo nagusiak.

Eztabaida taldeetan nabarmendu denez, **dirurik ez izatea da oztopo nagusia nahi den aisialdi-jarduera egiteko. Muga ekonomiko horrek galdetutako emakume guztiei eragiten die, bereziki arrazializatuak eta ama ezkongabeei, eta horrek ideia hau sendotzen du: BBVA aisialdi-ereduak gizarteko profil prekarioenak baztertzen ditu. Gainera, azpimarratzen du hainbat aldagai elkartzeak emakumeen aisialdi-aukerari eta denbora libreari eragiten diela.**

Halaber, inkestan zein eztabaida taldeetan ikusi denez, **jendeak BBVA ereduarekin bat egin nahiko luke.** Galdetutako pertsonen zenbait aldiz aipatu dutenez, «bidaiatzea» edo «erosketak egitea» dira egin nahi dituzten jarduerak, baina hainbat arrazoiengatik egin ezin dituztenak. Hortaz, ondoriozta dezakegu **komunikabideek, publizitateak eta beste agentzia batzuek helarazten diguten aisialdi desiragarriak gure nahiei eragiten diela.**

Nahi horiek erraz lortzen dira aisialdia logika kapitalistan txertatuta dagoen heinean. Behintzat, nahi horien gutxieneko bat pertsona guztiek asetzeko antolatuta dago, beren klase soziala eta egoera ekonomikoa edozein dela ere.

Beraz, aisialdi-eskaintza oso anitza dago «poltsiko guztientzat»; adibidez, eskura ditugun baliabide ekonomikoen arabera, erosketak egitera joateko nahia ase daitekeelako: *boutique* edo *low cost* arropa-denda batera joanez.

Beraz, logika kapitalista batean txertatutako aisialdia tresna bihurtzen da pertsonok kontsumitzen jarrai dezagun, eta horrek eredu kapitalista, patriarkal eta arrazista indartu egiten du.

3. HIPOTESIA. BBVA AISIALDI- EREDUAK PRIBILEGIO HANDIAGOAK DITUZTEN PROFIL JAKINEI DAKARKIE ONURA

Hipotesi horretan sakontzeko, elkarrizketatutako adituen arrazoibideak aztertuko ditugu. Haiei galdetu zaie ea zer inplikazio dituzten opresio-ardatzek (generoa, arrazializazioa, sexu- eta genero-aniztasuna eta kapazitismoa) aisialdiaz eta denbora libreaz gozatzeko aukeretan.

Adierazi behar da arrazoibideetan adituek zenbait elementu nabarmendu dituztela egiturazko indarkeriekin lotuta. Laburki aipatuko ditugu atal honetan, eta xehetasun handiagoz azalduko ditugu ikerkuntza honetako 3. helburuan. Zehazki, aisialdiaren eta indarkeria matxisten arteko harremana aztertzen dute.

Sexu- eta genero-aniztasunaren ardatzetik hasita, Zaira García Dafontek LGTBIQA+ kolektiboaren barruko dibertsitatea nabarmendu du eta horren baitan esperientzia ezberdin asko daudela aitortu du. Hala ere, adierazi duenez, **kolektibo horrek gaitasun txikiagoa du aisialdiaz gozatzeko, aisialdi-jarduera gehienak sistema zisheteropatriarkalaren barruan diseinatuta daudelako**. Horren ondorioz, LGTBIQA+ pertsonak aisialdizisheteronormatibora egokitu behar dira, eta horrek aisialdi-aukerak eta -esperientziak mugatzen dizkie:

«Nire ustez, kolektiboak moldatzeko eta eusteko gaitasun ikaragarria du, baita espazio propioak bilatzeko eta sortzeko ere, eta espazio normatiboak espazio anitzagoak bihurtzeko ere bai».

Zaira García Dafonte

Ana M. Poveda Boj-ek gogoeta aberastu du izaera berdineko alderdi ezberdinek aisialdi-aukerari eta -erabakiei eragiten dietela nabarmentzean, eta horrek beste gogoeta bat dakar **opresio ezberdinak elkartzeak aisialdi-aukeren gaineko ondorio zehatzak izatearen inguruan**:

«Hau da, nik zerbait egin nahi dut familia gisa. Eta, orduan, neure buruari galdetzen diot eskaintzen didaten aisia edo nik sortu behar dudan aisia guk osatzen dugun familia anitzarekin bat egiten ote duen. Edo, Zairak dioenez, beste familia anitz batzuekin elkartzea nahiago izango dut, nire haurrak ikus dezan errealitate hori bertan dagoela eta errealitate hori bizi duen izaki bakarria dela sentitu ez dezan. Azkenean, kezka hori dago. Eta, nire ustez, jolas hori da, jadanik dauden espazioen barruan sortzeko borrokatu beharra, non hasiera batean ez gaituzten kontuan hartzen».

Ana M. Poveda Boj

Adituek nabarmendu duten beste elementu interesgarri bat da LGTBIQA+ pertsonak ez dutela espazio propioarik, horregatik, pertsona askok beren tokia aurkitzeko borrokatzen jarraitzen dute:

«Zis heteroekin espazioak partekatzen ditugu beste aukerarik ez dugulako».

Zaira García Dafonte

«Taberna, arteak, kirola eta abar behatzen baditugu, horiek guztiak gizonen eta gizontzako tokiak dira, eta komunitatearen gainerrako kideok borrokatzen ari gara bertan egoteko».

Ana M. Poveda Boj

Gehiengoaren espazioak inklusibo bihurtzea edo, bestela, espazio propioak sortzea hobe den ulertzeko eztabaidan, aditu biek adierazi dute aberasgarriena aukera biek jolastea dela. Hala ere, Ana M. Poveda Bojen eta Zaira García Dafonteren iritziz, premiazkoa da espazio propioak sortzea erresistentziako eta berrespenerako modu gisa:

«Nire ustez, oso beharrezkoa da hori, baina, uste dut oraindik beharrezkoa dela espazio propioak eta alternatiboak edukitzea, erresistentziarako eta nork bere burua berresteko forma gisa».

Zaira García Dafonte

Hala, espazio propioak lagungarriak izango dira komunitate bat edo sare batzuk sustatzeko edo sortzeko gaitasuna handitzeko, espazio zisheterosexualetan askoz zailagoa baita horiek eraikitzea edo hautematea.

Kapazitismoaren ardatzari dagokionez, Itxi Gerrak ideia hau sendotu du: aisialdi-espazioak ez dira sortzen komunitate osoan pentsatuz, beraz, dibertsitate funtzionala duten pertsonak ez dute benetan parte hartzen gizartearen gehiengoarentzako espazio horietan. Dibertsitate funtzionala duten emakumeentzako, gainera, emakume izateagatik jasan behar dituzten indarkeriak areagotzen dira:

«Haiengan efektu bikoitza izan dezakeela susmatzen dut: adibidez, gauez etxera bakarrik itzultzearen beldurraren kontua datorkit burura, emakume desgaitu batentzako beldurraren arrazoibideak nabarmenagoak dira».

Itxi Guerra

Sexualitaterako eskubidea ere, adituaren arabera, aisialdiko jarduera gisa ulertu behar da:

«Eta horren harira, bi genero-desoreka daude, emakume desgaituek ez baitute ligatzeko eskubiderik. Benetan, pertsona desgaitu batek ere ez du ligatzeko eskubiderik ikuspegi kapazitistatik, baina emakumeek are gutxiago».

Itxi Guerra

Generoaren ardatzari dagokionez, Matxalen Legarretak azaldu duenez, emakumeek oraindik dituzte zaintzaren erantzukizunak, eta horiei heldu behar diete denborarik gabe, errudun sentituz eta beren buruari denbora eskaintzeko zilegitasunik gabe.

Adituak, beste egile baten ideia berrartuz, argudiatzen du gizonek erraz bateratu ahal dutela enplegatu eta aita onak izatea, balio handia ematen baitiote seme-alabekin darabilten denborari, gutxi bada ere. Horri esker, beren rolak bete ditzakete zailtasunik gabe. Bestalde, emakumeek, sarritan, rol biak betetzeko gai ez direla sentitzen dute, eta gizartearen presio handiagoa jasaten dute horiek betetzeko.

Idea irudikatzeko, Legarretak «agerpen hirukoitza» aipatu du lan ordainduaren, zaintzen eta aisialdiaren arloetan:

«Horrek lotura du lana eta zaintzak bi arloetan uztartzen ditugun aldiberekotasunarekin eta agerpen bikoitzarekin: lan ordainduarena eta zaintzena. Eta aisialdiaren edo parte-hartze soziopolitikoaren arloa gehitzen badugu, are zailago bateratuko da, ezinbizia eragiten baitu arlo biak kudeatu behar izateak eta gizonen zatikatzeko-gaitasuna ez izateak. Zatikatzeko gaitasun hori genero-ikaskuntzaren emaitza da».

Matxalen Legarreta

Azkenik, **arrazializazioaren ardatzari** dagokionez, gogoratu behar da dokumentu honetako aurreko ataletan adierazitakoa. Lehenik, emakume migrazioaileek eta arrazializatuek aisialdia eta denbora librearen ulertzen dute berea ez den gizarte-eredu batean oinarritutako eraikuntza sozial gisa, eta ez dute bat egiten horretatik eratortzen den aisialdi kontsumista eta produktibistaren ereduarekin. Halaber, urritasun ekonomikoak eta estigmatizazioak aisialdiaz eta denbora libreaz gozatzeko emakume horien gaitasuna kaltetzen du. Azkenik, hainbat opresio elkartzek, esaterako, egoera irregularrak edo ama ezkongabea izateak, estigma hori larritzen du eta jasaten dituzten diskriminazioa eta indarkeria iraunarazten ditu.

LABURBILDUZ...

BBVA eredia baztertzalea eta zatikatua da, eta sistema heteropatriarkalean eta kapitalistan txertatuta dago; eta hori ez da egituratzen giza aniztasunera moldatutako proposamen inklusiboetatik.

Aisialdi-jarduera gehienak ikuspegi zisheteronormatiboarekin diseinatzeko direnez, LGTBQIA+ pertsonen aisialdi-aukerak mugatzen dira, eta, gainera, erresistentziarako eta nor bere burua berresteko espazio propioak sortu beharra planteatzen du.

Komunitate guztiari zuzendutako aisialdi-jarduera inklusiborik ezak dibertsitate funtzionala duten pertsoneri eragiten die ere bai, eta horiek zailtasun handiagoak dituzte jarduera mota horiek egiteko sare soziala edukitzeko.

Nagusiki emakumeek beren gain hartzen dituzten erantzukizunen eta prekaritatearekiko eta indarkeriarekiko zaugarriago egiten dizkieten genero-desoreken ondorioz, beren aisialdi-aukerak urritzen dira. Gainera, haientzako duten denbora erruz eta zilegitasunik gabe bizi dute.

Emakume migratzaileek eta arrazializatuek aisia esperimendatzeko duten berea ez dela sentituz eta bat egiten ez duten gizarte-eredu batetik. Halaber, zenbait faktorek, esaterako, prekaritate ekonomikoak eta estigmatizazioak aisialdiaz eta denbora libreaz gozatzeko gaitasunari eragiten diote.

Azkenik, ezin dugu ahaztu, sarritan, opresio-ardatz horiek (arrazializazioa, sexu- eta genero-aniztasuna, etab.) ez dutela eraginik izaten beren kabuz soilik, baizik eta denek batera, eta, ondorioz, atsedean hartzeko eta gozatzeko kalitatezko espazioak eta uneak eskuratzea zailago bihurtzen dutela.

4. HIPOTESIA. LANAREN SEXU- BANAKETAK ETA MAITASUN ERROMANTIKOAREN KONTZEPTUAK EMAKUMEEN AISIALDIA ETA HAREN ERABILERA MURRIZTEN DITUZTE


Hipotesi horri heltzeko, emakumeek eta gizonek astean zehar eta asteburuan duten aisialdiari eta denbora libreari buruzko datuak aztertu dira, inkestan adierazitakoaren arabera. Gainera, aztertu da zaintza-erantzukizunak eta bikotekidea izateak nola eragiten dioten inkestatuen aisialdiaren eta denbora librearen esperientziari.

AISIALDIA ASTELEHENETIK OSTIRALERA

Astelehenetik ostiralera bitarteko aisialdiarekin hasita, sexu-generoaren arabera zatikatutako datuek diotenez, aldeak daude nortasun ezberdinen artean. Adibidez, **astean zehar aisialdirako ordurik erabiltzen ez duten gizon (%5) baino emakume (%8) gehiago daude**. Aisialdirako erabilitako orduak hazi ahala, genero bien artean oreka handiagoa dagoela ikusi da.

9. GRAFIKOA. ASTELEHENETIK OSTIRALERA AISIALDIRAKO ERABILTZEN DIREN ORDUAK SEXU-GENEROAREN ARABERA (%)

Gizonezkoak Emakumeak Pertsona ez-bitarrak




Datuak zaintza-zamaren arabera aztertzen baditugu, ikus dezakegu zaintzai-leak gehiengoa direla aisialdirako ordu gutxien darabiltzaten tarteetan (0 eta 5 ordu artean). Izan ere, **inkestaturako zaintzaileen %61ek adierazi dutenez, lanegunetan 0 eta 5 ordu dituzte aisialdirako. Aitzitik, zaintza-erantzukizunik ez dutenen %29k bakarrik adierazi dute tarte hori.**

Halaber, arrazializazioa eta nazionalitatea bezalako faktoreek nabarmenki eragiten diote aisialdiari. Izan ere, aisialdirako 21 eta 70 ordu bitarteko tarteetan pertsona zuriak baino ez daude, eta atzeritarrek ehuneko handiagoak dituzte aisialdirako ordu gutxiagoko tarteetan.

10. GRAFIKOA. ASTELEHENETIK OSTIRALERA AISIALDIRAKO ERABILTZEN DIREN ORDUAK ZAINZA-ZAMAREN ARABERA (%)

■ Zaintza-zamarik gabe ■ Zaintza-zamarekin




AISIALDIRAKO ORDUAK ASTE BURUETAN

Asteburu etako aisialdirako orduei dagokienez, **ikusi dugunez, emakumeak nagusi dira aisialdirako ordu gutxiagoko tartetean**. Hala, adibidez, 1 eta 5 ordu artean darabilte emakumeen %25ek; eta gizonen kasuan, berriz, %13k. Bestalde, 11 eta 20 ordu artean darabilte emakumeen %24k, eta gizonen %32k. Eta, gainera, gizonek joera dute astean zehar denbora gehiago erabiltzeko aisialdirako, bereziki, epe ertaineko tartetean (6-20 ordu). Gizonek ere gehiagotan adierazi dute 20 ordu baino gehiago darabiltela aisialdirako.

11. GRAFIKOA. ASTEBURUAN AISIALDIRAKO ERABILTZEN DIREN ORDUAK SEXU-GENEROAREN ARABERA (%)


■ Gizonetzkoak
 ■ Emakumeak
 ■ Pertsona ez-bitarrak



Zaintza-zama kontuan hartzen badugu, **ikus dezakegu zaintzaileek zaintza-zamarik ez dutenek baino ordu gutxiago darabiltela aisialdirako. Hala, inkestatutako zaintzaileen %41ek adierazi dutenez, 0 eta 5 ordu dituzte aisialdirako lanegunetan. Aitzitik, zaintza-erantzukizunik ez dutenen %14k bakarrik adierazi dute tarte hori.** Desberdintasunak, gainera, nabarmenak dira aisialdirako denbora gehiago darabiltenen tarteetan: zaintza-zamarik ez dutenen %36k adierazi dute 11 eta 20 ordu artean darabiltela aisialdirako, eta, zaintzaileen artean, ordea, %14k soilik.

Arrazializazioari dagokionez, nabarmendu behar da zaintza-zamarik duten pertsona zurien %28k 11 eta 20 ordu artean darabiltela aisialdirako, eta, pertsona arrazializatuen artean, %21ek.

12. GRAFIKOA. ASTEBURUAN AISIALDIRAKO ERABILTZEN DIREN ORDUAK ZAIN-TZA-ZAMAREN ARABERA (%)



Aipatu dugunez, inkestan galdetu zen nahi den aisialdi-jarduera egitea galarazten duten oztopoei buruz. **Inkestatuen %18k adierazi dute beste pertsona batzuk zaintzea oztopo bat dela.**

Mendekotasuna duen pertsona batez arduratzen diren inkestatuen %43k adierazi dutenez, «beste pertsona bat zaintzea» oztopo bat da nahi diren aisialdi-jarduerak egiteko. Datuak sexu-generoaren arabera zatitzen baditugu, emakumeen %44k adierazi dute arrazoi hori, eta gizonen %40k.

Inkestan hauteman den beste elementu bat da **zaintzaileek nolabaiteko errua sentitzen dutela aisialdiaz gozatzegatik haiek zaintzen duten pertsonarik gabe, batez ere, 58-67 urte bitarteko emakumeen artean.** Matxalen Legarretaren arabera, erru-sentimendu hori generoaren sozializazioarekin lotuta egon liteke: «Adin horietan genero-sozializazio indartsuagoa dago, non besteentzako bizitzearen agindua gailentzen den, norbere buruarantzako bizitzearen gaineratik». Gainera, adin horietan ohikoa da emakumeak beren seme-alaba helduak eta independizatuak elikatzeaz arduratzea. Hau da, bilobak eta helduak zaintzen jarraitzen dute.

Azkenik, nabarmendu behar da **inkestatutako zaintzaileen %19k adierazi dutela zaintzarako beste aukerarik ez dutela.**

BIKOTEKIDEA DUTEN PERTSONAK

Inkestan honako esaldiarekiko identifikazio-mailari buruz galdetu zen: «**Nire aisialdi-aukerak beti negoziatu behar ditut nire bikotekidearekin**». Emaitzek adierazi zutenez, desberdintasun handia dago gizonen eta emakumeen artean.

Bat-egite handieneko aukeretan (10), zis emakumeek (%7) zis gizonek (%4) baino ehuneko pixka bat handiagoa dute. Erdiko eskalan (5), zis emakumeek (%23) gehiago bat egiten dute zis gizonek (%19) baino. Laburbilduz, **antzaz, zis emakumeek gehiago egiten dute bat aisialdi-aukerak beren bikotekidearekin negoziatu behar izateko ideiarekin, zis gizonek baino.**


Adin-tartearen arabera emaitzek adierazi dutenez, gazteenek (18-27 urte) ez dute hainbeste bat egiten proposatutako esaldiarekin; izan ere, %23k ez dute inola ere bat egiten. Aitzitik, adin ertainekoen taldeetan (28-57 urte), bat-egitearen erdiko eskalan kokatzeko joera dago. Adin nagusiagoko taldeetan (58-67 urte eta 67 urtetik gora), antolaketa anitzagoa da, eta nolabaiteko joera dago bat-egite txikietan edo ertainetan kokatzeko.

Zaintza-zamak eragiten du bikotekidearekin aisialdi-aukerak negoziatzeko beharrean, eta baieztatu daiteke zaintza-zama duten pertsonen zaintza-zamarik ez dutenek baino gehiago bat egiten dutela proposatutako esaldiarekin. Horrek iradokitzen du zaintzearen ardurak aisialdi-erabakien autonomia zailago bihur dezakeela eta bikotekidearekin gehiago negoziatu beharra dakarrela. Bestalde, erantzukizun hori ez duten pertsonen banaketa uniformeagoa erakusten dute eskala horretan.

13. GRAFIKOA. «NIRE AISIALDI-AUKERAK BETI NEGOZIATU BEHAR DITUT NIRE BIKOTEKIDEAREKIN», ZAINZA-ZAMAREN ARABERA (%)

Zaintza-zamarik gabe

Zaintza-zamarekin



27 urte baino gutxiagoko emakumeen eta pertsona ez-bitarren eztabaida taldean adierazi denez, **bikotekiderik izateak edo ez izateak gaueko aisialdiarekin lotutako dinamika batzuei eragiten die**. Emakume inkestatuaren iritziz, aisialdi mota horren baitan presioa egiten da ligatzeko, eta horrek deserosotasuna edo antsietatea sor dezake gizonekin aritzean. Bikotekidea edukitzea babes baten antzera ulertzen da, presio hori kentzen duena eta nolabaiteko lasaitasuna dakarrena:

«Aitzakia gisa erabili behar duzu (bikotekidea), figura hori zu zeu baino gehiago errespetatzen dutelako, antzaz».

27 urte baino gutxiagoko emakume eta pertsona ez-bitarrak

Azkenik, bere ikasle batek **gazteen arteko maitasun erromantikoari** buruz eginiko azterketa baten emaitzak adierazi ditu Matxalen Legarretak. Haren arabera, emakume gazteek joera handiagoa dute bikotekideekin egoteko lagunekin egoteko baino edo aisialdi-jarduera pertsonalak egiteko baino. **Beste jarduerak batzuen aurretik bikotekideari lehentasuna ematea maitasun erromantikoaren ideia eraginagatik izango da beharbada.**

LABURBILDUZ...

Inkestaren, eztabaida taldeen eta elkarrizketa sakonen bidez bildutako datuei esker, **lanaren sexu-bereizketak aisialdiaren eta denbora librearen aukerei eragiten diela ondoriozta dezakegu**; izan ere:

- Lan-astean zehar aisiari eskaintako orduak aztertzean, aisiari ordurik eskaintzen ez dioten emakume (%8) baino gizon (%5) gehiago dago. Pertsona zaintzaileek ordezkartza handiagoa dute aisialdirako ordu gutxieneko tarteetan, eta, haietako %61ek adierazi dutenez, astean zehar 0 eta 5 ordu bitartean darabilte aisialdirako; zaintza-zamarik ez dutenen artean, ordea, %29k bakarrik adierazi dute tarte hori.
- Asteburuko aisialdiari dagokionez, emakumeak nagusitzen dira ordu gutxieneko tarteetan: haietako %25ek 1 eta 5 ordu artean darabilte aisialdirako; eta gizonen %13k. Zaintzaileek ere denbora gutxiago darabilte, eta haietako %41ek 0 eta 5 ordu artean darabilte asteburuetan; zaintza-zamarik ez dutenen artean, %14k.
- Inkestatuen %18ren ustez, beste pertsona batzuk zaintzea oztopo bat da aisialdi-jardueretarako; eta hori emakume gehiagok (%44) esan dute, gizonek baino (%40).
- Horrez gain, erru-sentsazioa hauteman da zaintzaileen artean, zaintzen dituzten pertsonak gabe aisialdiaz gozatzerakoan, bereziki 58-67 urte arteko emakumeen kasuan. Seguru asko, sentimendu hori genero-sozializazioarekin lotuta dago.
- Azkenik, zaintzaileen %19k adierazi dute ez dutela zaintzarako beste aukerarik.

Emaitzei esker, halaber, **ondoriozta dezakegu bikotekidea edukitzeak edo ez edukitzeak emakumeen aisialdiari eta denbora libreari eragiten diela, batez ere, harreman heterosexualak dituztenei.**

Inkestan, honako esaldiarekiko identifikazio-mailari buruz galdetu zen: «**Nire aisialdi-aukerak beti negoziatu behar ditut nire bikotekidearekin**». Gizonen eta emakumeen erantzunak ezberdinak izan dira. **Zis emakumeek gehiago bat egiten dute aisialdi-aukerak beren bikotekidearekin negoziatu behar izatearekin, zis gizonek baino.** Gainera, aisialdi-aukerak bikotekidearekin negoziatu beharrari eragiten dio zaintza-zamak, eta zaintza-zamarik dutenen artean nabarmenagoa da hori. Horrek iradokitzen du zaintzearen ardurak aisialdi-erabakien autonomia zailago bihur dezakeela eta bikotekidearekin gehiago negoziatu beharra dakarrela.

Gaueko aisialdiari dagokionez, **emakume gazteek ligatzeko presioa jasaten dute gizartearen aldetik, non, antzaz, bikotekidea edukitzeak lasaitasuna eta egoera deserosoak saihesteko aukera dakarren.** Gainera, nabarmengarria da emakume gazteek lehentasuna ematen diotela beren bikotekideekin denbora igarotzeari, lagunekin egotearen edo beren aisialdi propioaren gainetik; eta horrek **maitasun erromantikoaren eragina** islatzen du.



3. HELBURUA

AISIALDI MERKANTILIZATUAK DAKARTZAN
INDARKERIA MATXISTAK

4 | 3. HELBURUA:

Aisialdi merkantilizatuak dakartzan indarkeria matxistak

1. HIPOTESIA. AISIALDI MERKANTILIZATUAREN BBVA EREDU KONTSUMISTAK INDARKERIA MATXISTAK SORTU ETA BIRSORTZEN DITU (EGITURAZKOAK, SINBOLIKOAK ETA ZUZENAK)

Ikerkuntzaren azken hipotesi honen emaitzak aurkezteko, lehenik «intersektionalitatearen diagramak» aurkeztuko ditugu, alegia, eztabaida taldeetako parte-hartzaileekin eginiko talde-dinamika bat, zenbait aldagai edo opresio-ar-datz elkartzeak emakumeen eta nortasun ez-normatiboak dituzten pertsonen aisialdi-aukerei eta denbora libreari eragiten diela irudikatzen lagunduko duena.

Jarraian, aisialdi merkantilizatuak dakartzan indarkeria matxistak aurkeztuko ditugu, eta tipologiaren arabera antolatuko ditugu: egiturazko indarkeriak, indarkeria sinbolikoak eta indarkeria zuzenak.

Eduki hori inkestaren emaitzetan, eztabaida taldeetako arrazoibide sozializatu-tuetan eta elkarriketa sakonetan oinarritu da.

INTERSEKZIONALITATEAREN DIAGRAMAK

Hiru eztabaida taldeetan talde-dinamika bat egin da, non parte-hartzaileei haxe eskatu zitzairen: baloratu 0tik 10era zer gustura zauden aisialdi-espazio batean, opresio-aldagai edo -ardatzetan oinarrituta (arraza, dibertsitate funtzionala, gorpuztasuna, sexu- eta genero-aniztasuna, klasea...), non 0-k oso desgogara eta 10-ek oso gustura esan nahi duten.

Emakume migratzaile eta arrazializatuetatik hasita, grafikoan lerroak etenak dira eta gorabeherak dituzte. Horrek adierazten du emakume horiek modu ezberdinean sentitzen direla bizi diren tokietan. Zehazki, honako kontu hauek nabarmendu ahal dira:

- Zortzi emakumeetatik guztiek aipatu dute **espazio publikoan** egoten direla aisialdian eta denbora librean. Parkeak, tabernak, jatetxeak eta, oro har, espazio publikoa nabarmentzen dira. **Haietako gehienek 0 eta 5 arteko nota jarri dute**, eta toki horietan oso gustura ez daudela nabarmendu dute. **Notarik baxuenak agerian geratu dira atzerritarren kasuan**, eta espazio publikoko notarik altuenak argaltasunarekin eta emakume izatearekin lotuta daude.
- Hezkuntzako eta prestakuntzako guneetan eta instituzioekin kudeaketak eta izapideak egiteko espazioetan deserosotasuna agerian geratu da, emakume edota atzerritarra izateagatik.
- Enplegatua izatearen ezaugarria bizipen positiboekin lotzen da espazioetan.
- Gusturago sentitzen diren lekuak etxeak, bizikidetzako gune seguruak eta lagunekin partekatutako espazioak dira.

27 urtetik gorako emakumeei dagokienez, oro har, aisialdirako eta denbora librerako espazioei nahiko nota altuak eman dizkiete. Espazioetan edo jardueretan deserosotasuna adierazten duten notak, 5 edo txikiagoak, toki hauetan ikusi dira:

- Etxean, dibertsitate funtzionala dela medio.
- Gimnasioan, genero-estereotipoarekin bat egiten ez duen gorputz ez-normatiboa izateagatik.
- Arrantza-espazioan, emakumea, ama eta altua izateagatik.
- Erosketak egiterakoan, altuera txikia izateagatik.
- Espazio publikoan, emakume, baxua eta dibertsitate funtzionala izateagatik, bereziki, begiradekin lotuta.

27 urte baino gutxiagoko emakumeen eta pertsona ez-bitarren grafi-koek lerro etenak dituzte. Besteak beste, aisialdirako eta denbora librerako espazio hauek adierazi dituzte: unibertsitea, jai-eremuak (tabernak, diskotekak...), espazio publikoak, herria eta gimnasioa.

Oro har, taldeko parte-hartzaileen bizipenetatik abiatuta, honako gai hauek nabarmendu dira:

- **Emakume izateagatik**, parte-hartzaile gehienek 5 batekin edo gutxiagorekin baloratu dute beren erosotasun-maila, gutxienez, espazio batean. Ikusi denez, talde horretako emakumeak, emakume izateagatik, ez daude gustura unibertsitean, familian oro har, tabernetan edo diskoteketan, herrian eta gimnasioan.
- **Gizentasunak** negatiboki eragiten du lanean eta espazio publikoan.
- **Emetasun ez-normatiboa izateak** negatiboki eragiten dio herrian eta jai-eremuetan sentitzen diren moduari.
- **Pertsona ez-bitarra izateak** eragin negatiboa du jai-eremuetan eta unibertsitean sentitzen duten erosotasun-mailari.

LABURBILDUZ...

Eztabaida taldeetako parte-hartzaileak aisialdi-espazioetan eta hainbat opresio-ardatzen arabera sentitzen duten erosotasun-maila ezagutzeko antolatutako talde dinamikaren emaitzek hauxe adierazi dute:

- Emakume migratzaileentzat eta arrazializatuentzat, atzerritarra izatea espazio publikoetan deserosotasuna sortzen duen faktore bat da.
- 27 urte baino gehiagoko emakumeek ondoeza bizi dute etxean, espazio publikoetan eta gimnasioan, dibertsitate funtzionala, altuera edo genero-normatibitatea direla medio.
- 27 urte baino gutxiagoko emakumeek eta pertsona ez-bitarrek deserosotasuna adierazi dute unibertsitatean, familian, tabernan edo diskoteketan, herrian eta gimnasioan, genero-arauak edo dibertsitate funtzionala direla medio.

Nabarmendu behar da, hortaz, **emakume eta pertsona ez-bitar guztiek adierazi dutela deseroso sentitzen direla aisialdi-espazioetan –hein ezberdinean bada ere–. Eta deserosotasun hori areagotzen dela zenbait faktorek eragiten dutenean, hala nola arrazializazioak, dibertsitate funtzionalak, sexu- eta genero-aniztasunak edo gorputz ez-normatiboa edukitzeak.**

EGITURAZKO INDARKERIA

Marko teorikoan azaldu dugun moduan, **egiturazko indarkeriaren** analisisaren ardatza da emakumeen aurkako indarkeria mundu osoan gertatzen dela. Ez da gertaera isolatua, eta **haren euskarria genero-desorekazko egitura argia da, egitura politikoez, sozialez eta ekonomikoez mantentzen dutena.**

Hona hemen aisialdiari eta denbora libreari lotutako egiturazko indarkeriak, ikerkuntza honen testuinguruan hauteman direnak:



Emakumeek denbora gutxiago dute aisialdiaz eta denbora libreaz gozatzeko, nagusiki, beren gain hartzen dituzten zaintzalanak direla medio.

Aurreko atalean erakutsi dugun inkestaren emaitzek agerian utzi dute **emakumeek eta zaintzaileek denbora gutxiago dutela aisialdirako aste barruan eta asteburuetan, gizonek eta zaintza-zamarik ez dutenek baino.** Beste pertsona batzuk zaintzea oztopotzat jotzen da aisialdirako, bereziki, emakume zaintzaileen artean.

Baina zaintza-erantzukizunak emakume guztiei eragiten badiete ere, inpaktu ezberdina dute beste aldagai batzuekin batera badaude.

Mónica Gortayreren arabera, **emakume migratzaileek zaintzen egituraz arduratu beharra dute, familiaren babes emozionala barne, eta hori mundu mailan hedatzen ari da**³⁸. Egoera prekarioan dauden emakume migratzaileentzat, aisialdiak zordunketa dakar, eta, oro har, beren pertsona maitteen zaintzak indartzeko erabili ohi da. Gizartearen eraginez, emakumeek lehenasuna ematen diote besteak zaintzeari, beren burua zaintzearen aurretik. Hortaz, **nork bere burua zaintzea pertsona zurientzako eta klase altuko pribilegiotzat jotzen dute**, eta emakume migratzaileek ez dute horretarako aukerarik. Denbora zaintza pertsonalerako erabili beharrean, besteak zaintzeaz arduratzen dira, etxean zein jatorrizko herrialdean. Horrek barne hartzen ditu laguntza ekonomikoa ematea edo egoerak konpontzea urrutitik (familia-ospakizunak antolatzea, ahaideei euskarria ematea une zailetan, etab.), inpaktu emozional handia duten telefono-hizketaldi luzeen bidez:

³⁸. Zaintzen kate globala ekoizpen-lanaren nazioarteko banaketaz ari da. Nazioz gaindiko dimentsioko kateak dira, eta eguneroko bizitzari eusteko helburuz osatzen dira. Horetan, etxe batetik bestera igarotzen dira zaintza-lanak botere-ardatzetan oinarrituta, non nabarmengarriak diren generoa, etnia, klase soziala eta jatorria. Terminoa A.R. Hochschild soziologo estatubatuarren obran agertzen da (2000).

«Sendatze taldeetan ikusten dugunez, emakumeek bi ordu behar dituzte telefono-dei horietatik berreskuratzeko. Zure herrialdera eginiko dei baten ondoren, bi ordu behar dituzu berreskuratzeko eta sendatzeko, dei horrek hautsita utz ez zaitzan, eta hona eta orainera itzultzeko. Berreskuratzeko denbora hori ez da aisialdirako denbora, nork bere burua zaintzea eta sendatzea baizik».

Mónica Gortayre

Adituaren arabera, emakume migratzaileek sendatzeko eta berreskuratzeko uneak behar dituzte ematen dituzten zaintzengatik, sarritan, ulertu eta aitortzen ez direnengatik. Emakume horiei etengabe eskatzen zaie denbora eta baliabideak behar dituzten egoerei eusteko, eta emakume horiek ez dituzte denbora eta baliabide horiek haientzat berentzat. Adibidez, **beren jaioterrian dauden ahaideentzako bidaiak edo ikasketak finantzatzen dituzte, baina inoiz ez dute aukerarik izan antzeko esperientziarik izateko beren oraingo bizilekuan. Horrek agerian uzten du berdintasunik ez dagoela eta beren beharrak eta nahiak ez direla aitortzen.**

Generoa eta dibertsitate funtzionala gurutzatzearen inguruan, Itxi Guerrak iradoki du gogoeta egitea, **aisialdia eta denbora libre edukitzean zaintzek duten inpaktu bikoitzari buruz**, hauek kontuan hartuta: i) dibertsitate funtzionala duten emakumeen arteko langabeziak aisialdi-jardueretan parte hartzea mugatzen du, baita zaintzailearen rola egokitu ohi zaien amei ere; ii) emakumeak dira dibertsitate funtzionala duten pertsonen zaintzaile nagusiak, eta, pertsona horiek normalean laguntza handia behar dutenez, emakumeek ezin dute aisialdi-jardueretan erabat parte hartu:

«Ageriko dibertsitate funtzionala duten emakumeen langabezia nahiko altua da, orduan, ez dute benetan parte hartuko aisialdi-jardueretan, gizartearen gainerako kideek bezala, eta gauza bera gertatzen zaie gurasoei, tira, kasu honetan emakumeei, arrazoi patriarkala dela medio, zaintza beti egokitu zaielako emakumeei. Hortaz, emakumeek zaintzen dituzte behar orokor eta handiak dituzten pertsonak, eta, horregatik, ezingo dute benetako aisialdian parte hartu. Hor zeharkatzen dira alderdi guztien interseksionalitatea eta indarkeriak, egiturazkoak, sinbolikoak eta zuzenak, esparru guztiei eragingo dietenak».

Itxi Guerra



Dinamika kontsumistetan oinarritzen den aisialdi merkantilizatuak (gastatu, gastatu eta gastatu) emakumeak eta prekarie-tate-egoeran dauden beste profil batzuk baztertzen ditu.

27 urtetik gorako emakumeen eztabaida taldean zehaztu denez, dirua muga bat da eta aisialdi-aukerei eragiten die. Horregatik, **dinamika kontsumistekin lotzen ez diren aisialdi-alternatibak aldarrikatzen dituzte:**

«Nik muga asko ditut kontsumitzea eskatzen duten aisialdi-espazioetan parte hartzeko (...), eta, horregatik, tes-tuinguru jakinetan sozializatzeko gaitasuna mugatua da (...). Zenbait pertsonak ez dute hori ulertzen eta dinamika berdinak mantentzen dituzte, kontsumitzearenak, edatearenak, geratzearenak (...). Nik beste aukera batzuk fal-tan botatzen ditut.»

27 urtetik gorako emakumeak

Baina, beste behin ere, generoa eta desoreka ekonomikoa beste aldagai ba-tzuekin elkartzen baditugu, aisialdia eta denbora librea edukitzeko uneak are zailago bihurtzen dira. Mónica Gortayrek nabarmendu duenez, **emakume migratzaileentzat eta arrazializatuentzat aisialdi-espazioak garestiak dira, doakotzat jotzen diren jarduerak ere bai.** Adibidez, mendi-ibiliak egiteko, denbora librea, alde zurreko atsedena, jantzi egokiak eta seme-ala-bak zaintzea eskatzen duen euskarri-egitura bat behar da:

«Oztopo ekonomikoa ez da sortzen sarrera bat ordaintzerakoan, baizik eta instalatutako gaitasunagatik. Esaterako, paperak dituen emakume migratzaile batek, mendi-ibilian aritzeko, horri guztiari eusten dion egitura bat eduki behar du. Denbora behar du men-dira lau orduz joateko, lo egin eta atsedena hartu behar du aurrez, irteteko gogoa izan behar du, paseatzeko edo dena delakorako; sofán leher eginda egon gabe. Jendeak la-gundu behar dio seme-alabak zaintzen, mendian ibiltzeko jantzi egokiak izan behar ditu, autoa, garraioa eta abar, eta mendira joateko lagunak ere bai. Egitura horrek eutsiko dio emakumeak mendira joateko aukera izateari.»

Mónica Gortayre

Dibertsitate funtzionala duten pertsonak diruaren oztopoa dute ere bai aisialdirako, beren kasuan gastu bikoitza dutelako jardueretan parte hartze-ko, haientzat zein laguntzailearentzat:

«Dena da dirua, bidaiarik egin nahi baduzu, zure txartela eta zure laguna-rena ordaindu behar dituzu. Zuk afaltzera joan nahi duzu, jatetxe mexikar batera joateko gogoia duzulako, eta norbaitek lagundu behar zaitu, beraz, janaria ordainduko diozu laguntzen zaituen pertsonari. Dena da dirua».

27 urtetik gorako emakumeak

«Eta bestela etxean aspertu eta izorratu behar zara».

27 urtetik gorako emakumeak



Aisialdi merkantilizatuaren eredia normatiboa da, beraz, ez dago eskaintza sozial eta kultural anitzik.

Inkestaren emaitzek adierazten dutenez, **Bizkaian bizi diren inkestatuen %14k eskaintza sozial eta kultural anitzik eza hautatu dute** nahi diren aisialdi-jarduerak egiteko oztopoen artean. Bestalde, aukera hori hautatu dute Arabako inkestatuen %9k eta Gipuzkoako %8k.

Pertsona ez-bitarrek (%15) eta 67 urte baino gehiagokoek (%25) ere fak-tore hori adierazi dute maiztasun handiagoz.

Gaitasunei dagokienez, alde handiak hauteman dira ere bai: **dibertsitate funtzionalik duten inkestatuen %25ek adierazi dute eskaintza sozialik eta kulturalik eza oztopo bat dela aisialdiaz gozatzeko**; eta, desgaitasunik ez dutenen artean, bakarrik %10ek adierazi dute.

Horri buruz, elkarrizketa sakonetan, Ana M. Povedak eta Zaira García Dafontek iradoki dute filmetan eta beste entretenimendu forma batzuetan ordezkaritzarik ez izateak zailago egiten duela hainbat taldek, adibidez, LGTBIQA+ komunitateak, bat egitea antzetzutako pertsonaiekin eta gaiekin, eta horrek, bestalde, *mainstream* kulturean txertatuta eta ordezkatuta daudela sentitzeko gaitasuna mugatzen die.

Aisialdi inklusiborik ez egotearen elementua dibertsitate funtzionala duten emakumeen kasuan aipatu da ere bai. Kasu horretan, eztabaida taldeetan hau xe hausnartu dute: emakume horiek zenbateraino duten ahalmena nahi duten aisialdi mota erabakitzeko (jarduera motak, maiztasuna, etab.):

«Adibidez, gure elkarteak gero eta irteera gutxiago antolatzen ditu, gero eta gauza gutxiago egiten ditu, eta lehen hogeit hamar lagunekoak ziren taldeak hamar lagunekoak dira orain».

27 urtetik gorako emakumeak

INDARKERIA SINBOLIKOA

Indarkeria sinbolikoa mezu kultural eta sinbolikoetan zehazten da, eta horiek emakumeen eskubideak mugatu eta egiturazko indarkeria ukatu, naturalizatu, normalizatu, justifikatu eta txikiagotzen duten harreman motak, mandatuak eta jokabideak legitimatzen dituzte. Kontsumoa, publizitatea, hizkuntza, kontsumo-joerak eta abar indarkeria mota horren ohiko adibideak dira.

Hona hemen aisialdiari eta denbora libreari lotutako indarkeria sinbolikoak, ikerkuntza honen testuinguruan hauteman direnak:



Mezu patriarkalek eta arrazistek emakumeen aisialdia eta denbora libre mugatzen dituzte.

27 urte baino gutxiagoko emakumeekin eta pertsona ez-bitarrekin eginiko eztabaida taldean nabarmendu zen patriarkatuaren eragina aisialdiaren eta denbora librearen aukeretan. Parte-hartzaileen arabera, mezu patriarkal inplizitua da **emakumeek ez dutela eskubiderik gauetan**, beldurrez bizi beharko liratekeela sistema patriarkalaren objektutzat jotzen baitira. Horri dagokionez, autobusetako gaueko zerbitzuetako mezuak aipatu dituzte, emakumei zuzendu ohi zaizkienak, eta haiek aritu behar dira kontuz, «ezer gertatu ez dakien»:

«Mezu patriarkala da gaua ez dela gurea. Bizi ezazu beldurrez, zu oraindik objektu desiragarria zarelako sistema patriarkalerako eta ezer gertatu dakizukeelako. Ni txundituta geratzen naiz autobusetako mezuekin: 'Emakumea bazara eta bakarrik bazoaz 22:30etik 6:00etara bitartean...! Baina zergatik beti gu izan behar gara; hau da, gaua ez da gurea».

27 urtetik beherako emakumeak eta pertsona ez-bitarrak

Emakume migratzaileen eta arrazializatuen kasuan, aisialdiari eta denbora libreari eragiten die, gainera, aisialdi-espazio jakinetan beren jokabidea baldintzatzen duten jarreraren multzo batek –matxistak, arrazistak, iraunkorrak eta ikusteko zailak–. Emakumeak sexualizatzen dituzten jarrerak dira, deserosotasuna eta indarkeria sortzen dituztenak, antzaz sotilak direnak, baina ondoeza handia eragiteko gai direnak:

«Azken boladan gehien gogaitzen nauena matxismo zikina da, indarkeria matxista asko dago, mikromatxismo ugari, jarrera matxista asko espazio publikoetan, hau da, hain hain isilpekoa da, ez du zertan izan kolpe bat jasotzea, espazio publikoetan horrelako jarrera asko dago, bata besteari lotutako prozesu batzuen egoeretan, hau da, hain isilpekoa da, eta oso astuna da».

Emakume migratzaileak edo arrazializatuak

«Arroparena ere bai, nola janzten garen eta nola sentitzen garen espazio jakin batzuetan (...). Militantziako espazio batean zaude-nean, estetika bat edukitzea espero da, emakume eta militante baten estetika bat dago».

Emakume migratzaileak edo arrazializatuak

(Estereotipo horien eta sexualizazioarengatik) «Azkenean apaintzeari uzten diozu».

Emakume migratzaileak edo arrazializatuak

«Espazio askotan ez dizute ezta izaten ere uzten».

Emakume migratzaileak edo arrazializatuak



Aisialdi-espazioak emakumeen erotiziorako eta sexualizazio-rako espazio gisa.

Emakume migratzaileen eta arrazializatuen errealitatearekin jarraitzeko, Mónica Gortayrek **sakondu du emakume horiek espazio publikoetan, bereziki, aisialdi-tokietan, jasaten duten sexualizazioan eta exotizazioan.** Zehazki, adituaren arabera, emakumeek erotizazio hori jasaten dute dantza edo jai egitera doazenean, eta «ligatzea» eta «ehizatzea» kontzeptuak korapilatzearen mende dira. Egoera horren ondorioz, emakumeek nahiago dute pertsona zurien dantzalekuak saihestea eta latinoen tokietara doaz, non seguruago sentitzen diren, arriskuak badaude ere. Fenomeno horren eraginez, **aisialdi-espazioak zatikatzen dira.** Pertsona zurientzako eta pertsona arrazializatuentzako diskoteka bereziak daude, eta horrek agerian uzten ditu emakume migratzaileek eta arrazializatuek gure gizartean jasaten dituzten indarkeriazko dinamika konplexuak. Pertsona arrazializatuei zurientzako espazioetara sartzea debekatzen dien kartelik ez dagoen arren:

«Gauzak gertatzearen arriskua duzu, eta saihesten duzu. Horregatik, latinoen espazioetara joatea nahiago duzu. Arriskuak daude ere bai. Gizon zuriak doaz bertara ligatzera, baina laguntza dago horietan, ezer gertatuz gero».

Mónica Gortayre

Emakumeen erotizazioa aisialdi-espazioetan gai errepikakorra da eztabaida taldeetan, baina agertzeko modu zehatzak ditu. Hala, **LGTBIQA+ emakumeek harreman lesbikoen erotizazioa aipatu dute, dibertsitate funtzionala duten emakumeek, ordea, plazererako eskubideari buruzko eztabaida planteatu dute.** Eztabaida taldeetako batean parte hartu eta dibertsitate funtzionala duen emakume baten lekukotzak agerian uzten du genero-desoreka, aisialdiaren eta denbora librearen parte gisa sexuaz gozatzeari dagokionez. Haren arabera, dibertsitate funtzionala duten emakumeek estereotipo eta mugei aurre egin behar diete alderdi horretan; gizonetik, ordea, gupida handiagoa sentitzen da, eta maizago aitortzen da harreman sexualak «behar» dituztela:

«Ez da berdina gizon bat edo emakume bat joatea gupil-aulki batean, egunero ikusten baitut nire inguruan; gainera, ama izatea, ene (...). Ez da berdina desgaitasunik izatea emakume edo gizon izanda. Gizon gizajoa, harremanik izan ezin duena. Zer ba? Emakumeek ez dute harreman sexualik izan nahi? Gizonak, bai, gizajoa, egin diezaiozun hori eta beste, eta, gu, emakumeok, izorratzera. Sexuaz gozatzea aisialdiaren eta denbora librearen parte da, baina emakumeak garen heinean, ez dugu ezertarako eskubiderik, guretzat ez dago sexurik».

27 urtetik gorako emakumeak



Aisialdi merkantilizatuak genero-estereotipoak eta emetasun eta gizontasun ideal nagusiak birsortzen ditu.

Eztabaida taldeetan jasotako zenbait lekukotzaren arabera, **indarkeria sinbolikoa publizitatearen bidez agertzen da, bereziki, sare sozialetan.** Adierazi denez, publizitate-kanpainak askotan **genero-estereotipoetan oinarritzen dira estandar estetikoekin lotutako produktuak sustatzeko, batez ere, emakumeei zuzenduta.** Iragarki horien ondorioz, aisialdi-inguru jakin batzuetan onartua izateko produktu batzuk behar direlako ustea sortzen da, eta horrek genero-arauak sendotu eta gizarteak itxura fisikoari buruz egiten duen presioa bultzatzen du. Presio sozial horrek emakumeei eragiten die batez ere:

«Indarkeria sinbolikoa publizitate guztian dago, batez ere, sare sozialetan. Azken batean, publizitate-kanpaina batek beti dauka *target* bat: x ezaugarriak dituen emakume bat, egoera zehatz bat, hau da, erabili produktu hori zure bikotekidearekin afaltzera bazoaz, edo zure bikotekidearekin edo lagunekin bazaude. Produktu hori nola, non eta no-rekin kontsumitu behar duzun adierazten dizute».

27 urtetik beherako emakumeak eta pertsona ez-bitarrak

«Diskotekara bazoaz, makillajea erabili behar duzu, oso apainduta joan behar zara (...). Ni norma-lean ez naiz apaintzen, ezta makillatzen ere. Eta indarkeria sinbolikotzat jotzen dut hori, txarto begiratzen zaituztelako, 'neskato hau zer ari da hemen kirol-jertse batekin diskotekan'».

27 urtetik beherako emakumeak eta pertsona ez-bitarrak

«Nire ustez, egiturazko indarkeria asko sinboliko eta zuzeneko bihurtzen dira».

27 urtetik beherako emakumeak eta pertsona ez-bitarrak

Genero-estereotipoak birsortzea jardun jakinetan antzematen da ere bai. Horrekin lotuta, emakumeen eta pertsona ez-bitarren taldean aipatu da kirola gizonen espazio sinbolikoa dela, eta gizontasunarekin lotutako balioak nagusitzen direla bertan, esaterako, lehiatzea, indarra, irabazteko presioa:

«Nire lagunak partida bat jolasteko geratu daitezke informalki eta ez dute arazorik, baina ni deserosoago sentitzen naiz espazio horietan, presio handia sentitzen dudalako (...). Antzaz, gure taldeko emakume guztioi gertatzen zaigu. Gu normalean aparte geratzen gara, ez garelako sentitzen jolasaren parte, eta, jolasten badugu, presio ikaragarria dugu, eta haiek, berriz, ez dute sentitzen».

27 urtetik beherako emakumeak eta pertsona ez-bitarrak

«Ni ez naiz deseroso sentitzen, familia bat bezala garela uste dudalako. Gainera, haiek zaintzen gaituzte, ez dute gogor jolasten, eta beste inor baidator, lasai jolasteko esaten diete, kolperik eman ezin digutela edo».

27 urtetik beherako emakumeak eta pertsona ez-bitarrak

Horrez gain, parrandan irtetea aipatu dute ere. Gizartearen arabera, testuiguru horretan, emakumeek gehiago zaindu behar dute beren burua eta alkohol eta drogen kontsumoa neurtu. Gizonek, ordea, ez diote mugarik jarri behar beren buruari. **Horrek ideia hauek sendotzen ditu: gizontasuna zaurgarritasunetik urrun eraikitzen da, eta, emetasuna, berriz, zaurgarria da:**

«Guk ez dugu edaten edo gutxiago edaten dugu, ez dugu estupefazienterik edo beste ezer kontsumitzen, eta gizon gehienak oso sartuta doazela ikusten duzu. Orduan, are giro oldarkorragoa da, txarrago sentitzen zara, 4K-n ikusten ari zarelako gertatzen ari den guztia (...). Ba nola dakizu ez dizula ezer egingo erabat kontziente ez dagoen pertsona horrek?».

27 urtetik beherako emakumeak eta pertsona ez-bitarrak

LGTBIQA+ pertsoneri buruz, Povedak eta García Dafontek nabarmendu dute aisialdi-jarduera batzuetan, esaterako, jai herrikoietan, maskulinizazio handia ikusten dela eta herritarrek esaldi homofoboak esaten dituztela. Gogoeta horrek islatzen du **arau kultural zisheteronormatibo baztertzailleek irauten dutela.**

INDARKERIA ZUZENA

Zuzeneko indarkeria forma (fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa, sexuala...) eta espazio askotan adierazten da, **emakumeen gaineko kontrola, kaltea, mendetasuna eta zigorra mantentzeko helburuarekin, emakume izateagatik baino ez.**

Bildutako emaitzek hauxe adierazten dute:




Aisialdi-espazioek deserosotasuna eragiten diete emakumeei eta LGTBIQA+ kolektiboari.

Aisialdi-espazio merkantilizatueta indarkeria zuzena nola birsortzen den ikusteko, espazio horietan sentitutako deserosotasunari buruz galdetu da inkestan. Inkestatuen **%51k deseroso sentitu direla erantzun diote galdera horri.**

Deserosotasuna sentitzeko edo aisialdi-espazioak saihesteko arrazoi nagusia da «**emakume izatea**» (%20), jarraian, «**ez nago gustura nire gorputzarekin**» (%11), «**poliziak agertzea**» (%9) eta «**nire adina**» (%9).

14. GRAFIKOA. AISIALDI-ESPASIO BATZUETAN DESEROSO SENTITZEAREN ARRAZOIAK (%)



Jarraian, hein handiagoan emakumeei eta LGTBIQA+ pertsoneri eragiten dieten arrazoi horien analisia aurkeztuko dugu, zenbait aldagairen arabera:

- **DESEROSOTASUNA EMAKUME IZATEAGATIK (%20).** Emakume inkestatuak %24k adierazi dutenez, deseroso sentitzen dira emakume izateagatik eta aisialdi-espazio batzuk saihesten dituzte. Ehuneko hori %13ra txikitzen da gizonen kasuan, eta %8ra pertsona ez-bitarren kasuan. Emakume gazteek aipatu dute faktore hori gehien. Zuri eta espainol gisa identifikatzen diren emakume ezkongabeek aipatu dute deserosotasun hori gehien.
- **DESEROSOTASUNA NIRE GORPUTZAREKIN GUSTURA EZ NA-GOELAKO (%11).** Genero-identitatearen arabera, pertsona ez-bitarren %15ek adierazi dute deseroso sentitzen direla edo aisialdi-espazio batzuk saihesten dituztela beren gorputzarekin gustura ez daudelako. Zis gizonen eta emakumeen kasuan, ehuneko %11raino jaisten da. Hala-ber, zuri gisa definitzen ez diren pertsonen %21ek adierazi dute deseroso sentitzen direla ez daudelako gustura beren gorputzarekin zenbait aisialdi-espaziotan; zurien artean, berriz, %10ek.

Aisialdi-espazioetako deserosotasuna elementu nabarmena izan da eztabaida taldeetan. Horri buruz, gimnasioetan eta diskoteketan deserosotasuna haute-man dela aipatu da ere bai. Toki horiek ez dira seguruak eta, ondorioz, emakumeek beren aisialdi-arauak aldatzen dituzte:

«Nik ere murriztu dut nire gaueko aisialdi-kontsumoa, batzuetan ez naizelako seguru sentitzen, eta gimnasia joatearen kontsumoa murrizten ari naiz ere bai edo behintzat joaten nintzenera, oso behatuta sentitzen naizelako. (...) Etxean egiten dut kirola».

27 urtetik beherako emakumeak eta pertsona ez-bitarrak

«Reggaeton musikako diskoteka arruntetara doa mundu guztia, ba ni deseroso sentitzen naiz, nire izaeragatik, janzkeragatik, emakumea zaren heinean, batzuetan sartu eta, antzaz, lehia bat da ea nork ligatzen duen gehien, mutilen gustukoa ote zaren, mutilak zuri begira (...), orduan, jadanik ez noa giro horietara, (...) beste taberna mota batzuetan egotea nahiago dut, beste lagun batzuekin, beste giro batzuetan (...), non gusturago nagoen eta lasaiago eta gozatzen nagoen».

27 urtetik beherako emakumeak eta pertsona ez-bitarrak



Aisialdi-espazioetan, eraso fisikoaren edo bortxaketaren mehatxuak hein handiagoan eragiten die emakumeei eta pertsona ez-bitarrei.

Aipatu berri dugun horri helduta, 27 urte baino gutxiagoko emakumeen iri-tziz, **gaueko aisialdi-espazioak ez dira seguruak**, eta horrek aisialdi-jar-ducerak mugatzen dizkie, eraso bat jasatearen mehatxuagatik:

«Lehen gai nintzen festibal batera bakarrik joateko eta seguru eta eroso sentitzeko eta ondo pa-satzeko, eta gauez irten naizen azken bi edo hiru aldietan ez naiz seguru eta eroso sentitu, ez dakit, eraso asko jasotzen ditugu emakume izateagatik, orduan, gaueko aisialdia mugatzen hasi naiz, ikusi dudanez, eguzkia doanetik aurrera emakume izatea indartuta bezala dagoela».

27 urtetik beherako emakumeak eta pertsona ez-bitarrak

Aisialdi-espazioetan erasoak bizitzeko benetako arriskua aipatu dute ere bai LGTBIQA+ kolektiboaren errealitatearen inguruan elkarrizketatutako adituek. Horri buruz adierazi dute aisialdi-espazioetan joera handia egon daitekeela erasoetarako, pertsonak baretu ohi direlako eta «naturaltasun» handiagoz aritu ohi direlako toki horietan. Ondorioz, beste batzuk diskriminatzeko edo eraso egiteko joera dutenek zilegitasun edo zigorgabetasun handiagoa sentituko dute indarkeriaz aritzeko.

Azkenik, **dibertsitate funtzionala duten emakumeen egoerari buruz, Itxi Guerrak dio sexu-erasoak salatzeke zailtasuna area-gotzen dutela zenbait faktorek**, besteak beste, erasotzaileak sarritan gertuko pertsonak direla, adibidez, ahaideak edo zaintzaileak.

Gainera, aipatu dugunez, dibertsitate funtzionala duten emakumeen kasuan, «sexualki ez aktiboak» direlako oker ustearen ondorioz, ez zaie hartzen «sexu-abusuaren objektutzat», eta horrek modu esponentzian handitzen du babesik ez izatearen arriskua sexu-erasorik gertatzen bada.

«Zenbait ordutan bakarrik egotea-ren beldur naiz, noizbait bakarrik itzuli naiz etxera eta bizikideren batekin topatu eta txarto pasa dut, begirada lizun hori ikusi niolako, begiratzen zaitu, eta etxera iristeko irrikan nengoen, eta, mutila izanez gero, ez nuke arazo hori izango».

27 urtetik beherako emakumeak eta pertsona ez-bitarrak



«Ezer ez egitetik» eratorritako errua.

Inkestako datuek adierazi dutenez, **pertsonen %53 errudun sentitzen dira aisialdian ezer egiten ez dutenean. Horrek agerian uzten du gure gizartearen joera kezagarri bat, non balio pertsonala produktibitatearekin eta «egitearekin» lotzen den sarritan.** Horren harira, 27 urte baino gehiagoko emakumeen eztabaida taldean nabarmendu denez, lanaren eta ekoizpenaren balioak mauka-mauka sustatzen dira gizarte kapitalistan, eta horrek presio sozial handia dakar etengabe okupatuta eta ekoizten egoteko. Hortaz, ezer ez egitearen erru-sentimentua areagotzen da:

«Hau da, ezer ez egitea txarto ikusten da gizarte kapitalista basati honetan, baina batzuetan ez dugu ezer egin nahi, ezinezkoa bazaigu ere».

27 urtetik gorako emakumeak

Emakume gazteek aipatzen dute sentimendu hori hein handienez, eta hori itxaropen sozialekin eta generokoekin lotuta egon liteke. Horien ondorioz, emakumeek gehiegizko zama dute rol eta erantzukizun ugari orekatzeko, baita aisialdi-espazioetan ere.

Joera horrek ondorio negatiboak ekar diezazkieke emakumeen ongizate mental eta emozionalari, produktiboak izateko etengabeko presioak nekea, estresa eta antsietatea eragin ditzakeelako. Gainera, aisialdiaz eta atsedenaldira benetan gozatzeko gaitasuna zaildu dezake, eta, hainbeste aldiz errepikatu dugunez, horiek ezinbestekoak dira ongizate orokorrerako.



Estigmatizazioak zuzeneko inpaktua du emakume migratzaileen eta arrazializatuen aisialdi-esperientzian, sozialki (bazterketa suspertzen du) eta emozionalki (autoestimuari, partaidetza-zentzuari eta abarri eragiten die).

Gai hori aurrez landu badugu ere, uste dugu funtsezkoa dela berriz ere azpimarratzea **emakume migratzaileei eta arrazializatuei aisialdi-espazioetan eragiten dien estigmatizazioa**, eta, ikerkuntza honen testuinguruan, zuzeneko indarkeriatzat jo dugu.

Etengabe behatuak eta epaituak izatearen sententzia aipatu dute emakume migratzaileek eta arrazializatuek, bereziki, espazio publikoetan, esaterako, dendetan. Eta horrek eguneroko jardueraz eta aisialdi-jardueraz erabat gozatzeari mugatzen die, adibidez, erosketak egiteaz. Gainera, toki edo jarduera batzuk saihestea ekar dezake, bidegabe epaituak izatearen beldur. Egoera horrek **argi eta garbi azaleratzen ditu gure gizartearen arrazismoa, xenofobia eta matxismoa**, aisialdi-espazioetan islatzen direnak ere bai:

«Begiradei buruzko adibide bat, asko gertatzen zait, denda batera noa arropa ikustera, (...) eta tira, zalantzatia naiz, (...). Bi orduz egon naiteke dendan begiratzen, begiratu nahi dudalako; eta konturatzen naizenean, segurtasuneko langilea nire atzean dago, eta banoa, agian pentsatuko dute dendan denbora hainbeste nagoela zerbait lapurtu nahi dudalako. Orduan, ez naiz ez seguru ez ondo sentitzen begiratzen nautenean, nire azalaren koloreagatik edo bertako nesken ezberdina naizelako. Edo lapurtu nahi dudala pentsatuko dutelako agian (...). Horrela maiz sentitu eta gero, politikak diren baina eduki ezin ditudan gauzak begiratzeari utzi nion, hori saihesten dut ez naizelako ondo sentitzen (...), begiradek hitz egiten dute, ezer esan gabe».

Emakume migratzaileak edo arrazializatutak

LABURBILDUZ...

Aisialdi merkantilizatuko egiturazko indarkerietatik hasita, ikerkuntzak hauxe ondorioztatzen du:

- **Lanaren sexu-banaketak eragiten du aisialdian eta denbora librean, eta, zehazki, nagusiki emakumeek beren gain hartzen dituzten zaintza-erantzukizunetan.** Horren ondorioz, jarduera mota horietarako denbora gutxiago eta kalitate txarragoko denbora dute haiek. Emakume migratzaileek eta arrazializatuek, gainera, beste zama bat dute, beren jatorrizko herrialdeko zaintzen sareari eutsi behar diotelako, beren bizitokikoari ez ezik. Beraz, beren aukerak mugatzen dira, aisialdirako ez ezik, beren burua zaintzeko jardueraz gozatzeko ere; ondorioz, azken hori klase altuko pertsona zurientzako pribilegiotzat hartzen dute. Halaber, hauteman denez, dibertsitate funtzionala duten emakumeen aktibitatearik ezako tasa altuak mugatzen du aisialdi-jardueretan erabat parte hartzea.
- **Aisialdia logika kontsumista eta produktiboaren inguruan egituratzen da, eta zenbait talde baztertzen ditu, bereziki, prekaritate ekonomikoan dauden emakumeak eta pertsonak.** Emakume migratzaileen eta arrazializatuen kasuan, muga ekonomikoek doako zein ordainpeko aisialdi-jarduerari eragiten diete. Izan ere, doako jarduera batzuk egiteko, adibidez, mendi-ibilietarako, egitura oso bat behar da: denbora, aurrez atsedean hartzea, jantzi egokiak eta seme-alabak zaintzeko laguntza. Egoera hori are gehiago larritzen da dibertsitate funtzionala duten emakumeentzat, aisialdi-jardueretan laguntzen dituzten pertsonen kostu osagarria ordaindu behar dutelako.
- **Aisialdi merkantilizatuaren eredia normatiboa da, beraz, ez dago eskaintza sozial eta kultural anitzik.** Emaitzen arabera, inkestak %14k uste dute ez dagoela aisialdi-jarduerak egiteko eskaintza sozial eta kultural anitzik. Batez ere, pertsona ez-bitarrek, 67 urtetik gorakoek eta dibertsitate funtzionala duten emakumeek baieztatu dute horrekin lotutako oztopoak aurkitzen dituztela. Elkarrizketetan aipatu denez, LGTBQA+ komunitateak zailtasunak ditu beren burua identifikatzeko filmetako eta beste entretenimendu motetako pertsonaiekin eta gaiekin, ordezkariarik eta aniztasunik ez dagoelako horietan. Horrez gain, dibertsitate funtzionala duten emakumeentzako aisialdi inklusiborik ez dagoela hauteman da. Horrek hausnarketa-prozesu bat eragiten du: emakume horiek zer neurrira arte duten gaitasuna nahi duten aisiari buruz erabakitzeke.

Jarraitzeko, **indarkeria sinbolikoei** buruz, honako emaitza hauek dituzte ikerkuntzako datuek:

- **Mezu patriarkalek eta arrazistek emakumeen aisialdia eta denbora libre mugatzen dituzte.** 27 urte baino gutxiagoko emakumeekin eta pertsona ez-bitarrekin eginiko eztabaida taldean aipatu da patriarkatuaren eragina aisialdiaren eta denbora librearen aukeretan. Emakumeentzako mezu patriarkal inplizitua da gaueko aisialdia beldurrez bizi behar dutela. Emakume migratzaileentzat eta arrazializatuentzat patriarkatuaren eta arrazismoaren eragina batzen da; beraz, beren aisialdiari eragiten diote jarrera matxistek eta arrazistek, emakumeak sexualizateaz gain deserosotasun eta indarkeria «sotil» garrantzitsuak dakartzatenak.

- **Aisialdi-espazioak emakumeen erotizazioarako eta sexualizazioarako.** Emakumeen erotizazioa eta sexualizazioa aisialdi-espazioetan gai errepikakorra da eztabaida taldeetan, eta modu ezberdinetan agertu da. **Emakume migratzaile eta arrazializatuak** erotizatuak izaten dira parrandan edo dantza egitera doazenean, eta pertsona zurien «ligatzearen» ulermena jasan behar dute, «ehizatzearekin» lotzen dutena. Egoera horren ondorioz, pertsona zurientzako aisialdi-espazioak saihestu nahi dituzte eta latinoen tokietara joatea nahiago dute, seguruago sentitzen direlako. Horrek, bestalde, aisialdi-espazioak zatikatzea dakar. **LGTBIQA+ pertsonak** aipatu dutenez, gizonak harreman lesbikoak erotizatzen dituzte, dibertsitate funtzionala duten emakumeek, ordea, plazererako eskubideari buruzko eztabaida planteatu dute. Azken kasu horretan, nabarmendu da genero-desoreka dagoela aisialdiaren parte gisa sexuaz gozatzean, eta dibertsitate funtzionala duten emakumeen aurkako estereotipoak eta mugapenak daudela.
- **Aisialdi merkantilizatuak genero-estereotipoak eta emetasun eta gizontasun ideal nagusiak birsortzen ditu.** Aisialdi merkantilizatuan, indarkeria sinbolikoa publizitatearen bidez agertzen da ere bai. Genero-estereotipoak darabiltza publizitateak, nagusiki, emakumeei zuzendutako estandar estetikoekin lotutako produktuak saltzeko. Iragarki horiek emakumeen itxura fisikoaren gain gizarateak egiten duen presioa sendotzen dute, eta, aisialdi-ingurune jakinetan onartuak izateko, produktu batzuk (makillajea, arropa, osagarriak, etab.) behar direla hautematea bultzatzen dute.
- Genero-estereotipoen eragina ikusten da ere bai aisialdi-jarduera batzuen maskulinizazioan, esaterako, jai herrikoietan, non zaugarritasunetik urrundutako maskulinitatea goraiatu eta esaldi homofoboak esaten diren. Kultura-arau baztertzailleen isla dira horiek.

Azkenik, **indarkeria zuzenari** buruz, honako ondorio hauek nabarmendu ditzakegu:

- Aisialdi-espazioek deserosotasuna eragiten diete emakumeei eta LGTBIQA+ kolektiboari. Inkestaren analisiak ondorio garrantzitsuak erakusten ditu aisialdi-espazioetako deserosotasunari buruz:
 - **Deserosotasuna emakume izateagatik.** Emakume inkestatuen %20k adierazi dute deseroso sentitzen direla aisialdi-espazioetan, emakume izate hutsagatik; ehuneko hori dexente txikiagoa da pertsona ez-bitarren kasuan (%8).
 - **Deserosotasuna gorputzarekin gustura ez egoteagatik.** %11k adierazi dute zenbait aisialdi-espazio saihesten dituztela beren gorputzarekin gustura ez daudelako. Sentimendu hori nabariagoa da pertsona ez-bitarren kasuan (%15), eta horrek iradokitzen du autoirudiarekin lotutako arazoek eta itxura fisikoaren inguruko presio sozialak neurrigabe eragiten dietela zenbait talderi, bereziki, genero-arau tradizionalekin bat egiten ez dutenei.

- **Deserosotasuna gimnasioetan eta diskoteketan:** eztabaida taldeetan nabarmendu denez, gimnasioetan eta diskoteketan emakumeek deserosotasuna hautematen dute, eta ez dituzte segurutzat jotzen. Segurtasunik faltaren hautemate horrek aisialdi-ohiturak aldatzea eta toki horiek saihestea ekar ditzake, eta horrek, bestalde, pertsona batzuei mugatuko die toki batzuez gozatzea.
- **Aisialdi-espazioetan, eraso fisikoaren edo bortxaketaren mehatxuak hein handiagoan eragiten die emakumeei eta pertsona ez-bitarrei.** Emaitzei esker, ondorioztatu dezakegu gaueko aisialdi-espazioetan emakumeak seguru ez daudela uste dela, batez ere, 27 urte baino gutxiagokoak. Segurtasunik ezako hautemate hori ikusi da ere bai pertsona ez-bitarren kasuan, espazio horietan neurri handiagoan gertatu daitezkelako erasoak, erasotzaileek zigorgabetasunaren eta zilegitasunaren sentsazioa dutelako. Halaber, hauteman denez, dibertsitate funtzionala duten emakumeek zailtasun handiagoak dituzte sexu-erasoak salatzeko, okerra bada ere, «aktibitate sexualik ez dutela» uste baita, eta horrek babesik ezaren arriskua handitu dezakeelako sexu-abusuak edo bortxaketak gertatzen direnean.
- **«Ezer ez egitetik» eratorritako errua.** Inkestatutako emakumeen %53k adierazi dute errudun sentitzen direla aisialdian ezer egiten ez dutenean. 27 urte baino gutxiagoko emakumeek adierazi dute gehien sentimendu hori, beharbada, gizartearen genero-itxaropenak direla medio, rol eta erantzukizun ugari orekatzeko presioa egiten dietelako, aisialdian ere bai. «Egitearen» presio horrek eragin negatiboa izan dezake emakumeen osasun mentalaren eta emozionalaren gain, eta nekea, estresa eta antsietatea sentitu ahal dira ondorioz. Gainera, atsedenez eta dibertimenduaz erabat gozatzeko gaitasuna zailtzen die.
- **Estigmatizazioak** zuzeneko inpaktua du emakume migratzaileen eta arrazializatuen aisialdi-esperientzian, sozialki (bazterketa suspertzen du) eta emozionalki (autoestimuari, partaidetza-zentzuari eta abarri eragiten die).



4. HELBURUA

INDARKERIA MATXISTARIK BIRSORTZEN EZ DUEN
AISIALDIAZ GOZATZEKO GAKOAK

5 | 4. HELBURUA: Indarkeria matxistarik birsortzen ez duen aisialdiaz gozatzeko gakoak

Indarkeria matxistarik gabeko aisialdiaz gozatzeko proposamenen azken kapitulu honi ekiteko, eztabaida taldeen eta elkarrizketa sakonen analisisian antzeman ditugun eztabaida batzuen sarrera egingo dugu, proposamen horiek planteatzeko moduari buruz. Jarraian, proposamenak adieraziko ditugu, eta hiru ahalmenetan oinarrituta antolatuko ditugu:

- Aldaketa pertsonalaren ahalmena: arlo pertsonaletik zer erabaki hartu eta zer jardun egin ditzakegun modu kritikoago, arduratsuago eta jasangarriagoan kontsumitzeko, tresna eraldatzaile gisa.
- Indar kolektiboaren ahalmena: talde gisa nola osatzen garen giza bizitza eta planeta errespetatzen dituen kontsumo-eredua sortzeko.
- Joko-arauak aldatzeko ahalmena: kontsumo kapitalistaren oinarrien egitura aldatzerako orduan zeintzuk diren erantzukizun politikoak eta ekonomikoak.

5.1 BEHARREZKO EZTABAIDAK INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO AISIALDIAZ GOZATZEKO PROPOSAMENAK EGITEKO



1. EZTABAIDA. Militantzia espazio seguru gisa eta botere-dinamikak birsortzeko espazio gisa.

Emakume migratzaileen eta arrazializatuen taldean, aditzera eman dute militantzia-espazioak garrantzitsuak direla, eta bertan babestuta eta seguru sentitzen direla. Hala ere, espazio horiek gizartearen botere-dinamiken eraginpean ere badaudela aitortu da, eta dinamika horiek espazio horietan agertu ahal direla. Interesgarria da, emakume migratzaileak eta arrazializatuak badira ere, beste pertsona batzuk baztertu ahal dituztela antzematea. Horrek iradokitzen duenez, **militantziako espazio horietan inklusio eta bazterketako dinamikak konplexuak dira, non interseksionalitateak rol garrantzitsua duen:**

«Militantzia espazioetan ere ez gaude erabat ziur, boterearen logikak edonon birsortzen direlako».

Emakume migratzaileak edo arrazializatuak

«Erronka bat da, guk gure hizkuntza erabil dezakegulako ere bai, guri ere kostatzen zaigu batzuetan ulertzea pertsona guztiok ez ditugula baldintza berdinak. Ni emakume migratzailea eta arrazializatua naiz, fenotipoari helduta, hemengo ez naizela ohar daiteke. Baina pribilegio batzuk ditut ere bai. Goi-mailako hezkuntza daukat eta horregatik batzuetan indarkeriaz aritzen naiz, beharbada, jende askok ulertzen ez dituen terminoak darabiltzat».

Emakume migratzaileak edo arrazializatuak

Horrekin lotuta, nabarmendu nahi dugu generoari eta arrazari dagokienez espazio seguruak sortzea erronka bat dela, bereziki, militantzia mistoetako espazioetan. Pertsona migratzaileek eta arrazializatuak prozesu horretan egiten dituzten ekarpenak aitortzea garrantzitsua da, baina espazio horietan irauten duten jardunbide matxistak eta sexistak aipatzea ezinbestekoa da ere bai, militantziako espazioak badira ere.



2. EZTABAIDA. Aisialdi inklusiboko espazioak politika beste batzuekin (eta ez beste batzuentzat) egiteko.

Mónica Gortayrek nabarmendu duenez, funtsezkoa da aisialdi-espazio inklusiboak sortzea, zurien ikuspegitik hori ulertzea zaila izan daitekeela aitortu badu ere. Hark ohartarazi duenez, aisialdi-espazio inklusibo horiek politizatzeke joera dago, eta, horregatik, pertsona batzuk ez dira eroso sentitzen bertan.

Zehazki, bere esperientzia azaldu du, bere auzoan etxeko eta zaintzako emakume langileentzako topaketak antolatzeari dagokionez. Argudiatu duenez, pertsonak denbora libreaz gozatu baino ez dute nahi askotan, eztabaida politikoetan sartu gabe. Gogoetarako jarduerak antolatu beharrean, ekitaldi informaloagoak antolatzea proposatu du, esaterako, enpanada-lehiaketak edo bazkariak, non janariaren eta edariaren aukerek parte-hartzaileen aniztasuna eta lehentasunak islatuko dituzten.

«Mesedez, andreok, bildu gaitzen, antolatu dezagun enpanada-lehiaketa bat, egin dezagun bazkari bat, saltsa jarri eta kito. Etxeari eta zaintzei buruzko gogoetarako hizketaldia soberan dago. Eta denbora libreaz gozatzera bagatoz, ez gatoz politika egitera. Eta jateko gauzak badaude, ez dut nahi janari beganoak baino ez egotea. Eta badakit hori entzutea gogorra dela».

Mónica Gortayre

«Jendeak egongela eroso bat alokatu nahi badu, berogailua duena, ispiluak dituena dantzatu bitartean beren buruak eder ikusteko... Aukera hori entzun beharko da, espazio autogestionatuan eta askatuan, berogailurik gabekoak, apainduta ez dagoen horretan ez egotea esan nahi badu ere».

Mónica Gortayre

Mónicaren ustez, helburua da pertsonekin batera politikoki eraikitzea, haien erantzun egin beharrean. Aitortu duenez, horretarako, denen gustukoak ez diren ideiak onartu beharko dira, baina, espazio inklusiboak mailaz maila eta errespetuz sortzeko, beharrezkoa dela uste du. Laburbilduz, **kontua ez da espazioak despolitizatzea, baizik eta ulertzea eraikuntza politikoak alde guztiei entzutea eta laguntzea eskatzen duela.**



3. EZTABAIDA. Zaintzei ijitoen feminismotik eta feminismo dekolonialetik heltzeak aisialdiaren eta denbora librearen ikuspegi inklusiboagoa sustatzen du.

Mónica Gortayrek beste hausnarketa interesgarri bati heldu dio: nola ulertzen dira zaintzak feminismo zuriaren baitan. Nabarmendu duenez, zaintzen ikuspegi gutxiesgarria nagusiki feminismo zurian ezarri ohi da, eta, adierazi duenez, garrantzitsua da beste ikuspegi batzuk aintzat hartzea, adibidez, ijitoen feminismoa edo kritika dekoloniala, gaiari buruz hausnarketa zabalagoa egiteko.

Horrekin lotuta, zaintzen inguruko estigma, bereziki amatasunaren inguruan, feminismo zuriaren inposaketa bat da, zaintzen esparrua gainerako esparruetatik banantzerantz behartzen duelako, adibidez, parte-hartzetik edo aisialditik. Gortayrek argudiatu duenez, parte hartzeko espazioetan haurtxo bati bularra emateak ez luke izan beharko bazterketa edo diskriminaziorako arrazoi bat, eta bereizketa inposatu hori indarkeriazkoa da emakume migratzaile eta arrazializatuentzat.

Amatasunaren inguruko hautemate gutxiesgarriaren testuingurua da feminismo zuriak familia heteropatriarkalaren rolari eginiko kritika, hain zuzen ere, indarkeria matxistak sortzeari eta botere-rolari dagokienez, bai eta zaintzen konfigurazioari ere. Hala ere, aitortu behar da ikuspegi hori mugatua izan daitekeela eta eguneratu beharra dagoela, ikuspegi horren inguruan begirada kritikoa izateko.

Laburbilduz, garrantzitsua da beste ikuspegi feminista batzuk aintzat hartzea, adibidez, ijitoen feminismoa eta kritika dekoloniala, zaintzen garrantzia hobeto ulertzeko eta amatasunaren eta beste zaintza modu batzuen ikuspegi inklusiboagoa eta begirunetsua sustatzeko:

«Guretzat, gure haurrak beste pertsona batekin uztea gozatzeko oso mingarria da, ez da beharrezkoa eta ez gaitu eraikitzen pertsona gisa. Ez digu konplexurik sortzen haurtxo bat gainean eramateak, harro sentiarazten gaitu: lortzen ari naiz, ekarri ditut, zaintzen ditut eta, gainera, nirekin datoz. Nik haurrak dakartzat manifestazioetara. Eta ez beste inorekin utzi ezin ditudalako, nahi dudalako baizik. Hori ulertu behar da».

Mónica Gortayre



4. EZTABAIDA. Aisialdi-espazio mistoak eta ez mistoak.

Hiru eztabaida taldeetan hainbat aldiz eztabaidatu da egokiagoa ote den aisialdi-espazio mistoak edo ez mistoak edukitzea.

Aisialdi-espazio ez mistoei dagokienez, galdetutako pertsonak aipatu dute erosoago daudela ezaugarri antzekoak dituzten pertsonekin, esaterako, emakumeen edo dibertsitate funtzionala duten pertsonen taldeekin. Behaketa horrek iradoki duenez, kidesasuna eta konexioak errazago sor daitezke esperientziak partekatzen dituzten pertsonekin, eta horrek partaidetzako eta laguntzako zentzua eragin dezake.

Hala ere, aipatu da aisialdi-espazio mistoak funtsezkoak direla aniztasunetik sozializatzeko, eta horrek ikaskuntza garrantzitsuak dakartzala eta aisialdi-espazio inklusiboak eraikitzen laguntzen duela.

Nabarmendu behar da ez dela beharrezkoa aisialdi-espazio mistoen edo ez mistoen artean hautatzea, baizik eta elkarrekin bizi daitezkeela, unean une beharrezkoak direnak eraikiz eta bietatik ikasiz.

5.2 PROPOSAMENAK

Hona hemen ikerkuntzan zehar egindako elkarrizketetan sortu diren zenbait proposamen. Adibide gisa jaso dira, ez modu sakonean edo lehentasuna ezarritz:

ALDAKETA PERTSONALAREN AHALMENA

Aisialdi inklusiboagoaz gozatzeko har ditzakegun erabakien eta jarduketan barruan, eta eraldatzeko tresna gisa, hau nabarmentzen dugu:

- Gogoeta-prozesuak egitea, kontsumotik urrun dauden aisialdi-jardunak antzemateko eta pertsona bakoitzaren beharretan, nahietan eta xedetan oinarrituta.
- Ekoizpenetik urrundutako uneak bilatzea, norberaren parte intimoenarekin eta sortzailearekin konektatzeko laguntzen dutenak.
- KKAETik lan asko egin da aisialdiak ingurumenari dakarkion inpatuaz kontzientziatzeko. Gogoeta eta proposamen horiei aisialdi inklusiboaren, dekolonialaren eta antipatriarkalaren ikuspegia gehitzea.

INDAR KOLEKTIBOAREN AHALMENA

Logika produktibistetan oinarritzen ez den aisialdi-eredu bat eragite aldera, kolektiboki antolatzeko proposamenei dagokienez, hauek nabarmentzen ditugu:

- Dibertsitate funtzionala duten pertsonen autonomiari laguntzen dioten erakunde sozialetarako, aisialdi-jarduera gehiago dituen proposamena sustatzea, astebururako eta astean zeharrerako. Gainera, jardueren proposamena egin beharko da dibertsitate funtzionala duten pertsonen parte hartzea suspertuz, programazioa beren nahietara eta beharretara egokitzen dela ziurtatzeko.
- Gaztetzeeentzako estrategiak ezartzea, espazio horiek gazteentzako irisgarriagoak izateko.
- Ideien lehiaketak sortzea aisialdi zein denbora libreko jarduera eta espazio inklusibo eta berdinzaleak diseinatzeke.

- Sareak ezartzea kolektiboen, mugimenduen eta erakundeen artean, ikuspegi interseksionala duen aisialdi inklusiborako proposamenak identifikatzeko.
- Aisialdi-proposamenei buruzko gogoeta kolektiboei heltzea feminismo dekolonialetatik.
- Aisialdi merkantilizatuaren eta indarkeria matxisten arteko loturari buruz herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak egitea.
- Aktibismoaren eta militantzien espazioetan eta herritarren artean hedatzera eta ezagutzera ematea normatibitateari aurre egiten dieten aisialdi-ekimenak, adibidez: Trintxerpeko Salsa-Bachata Queer taldea, dantza latinoak berreskuratzen dituen logika binariorik eta matxistarik gabe; edo *creep raves* direlakoak, komunitate osorako pentsatutako sormen-espazioak.
- Aisialdirako espazio publikoa okupatzeko jarduerak, kaleak, plazak eta parkeak berreskuratzea, bazkariak egitea, dantza egitea, hitzaldiak antolatzea, zine-forumak; espazio kolektibo, publiko eta ez merkantilizatu gehiago behar direla erakusteko.
- Lanaldia murriztearen aldeko borroka sozialak babestea.

JOKO-ARAUAK ALDATZEKO AHALMENA

Azkenik, aisialdi merkantilizatuaren oinarriak diren egiturak aldatzerako orduan, erantzukizun politikoekin eta ekonomikoekin lotutako proposamen hauek nabarmentzen ditugu:

- Eragin politikoko prozesuak gauzatzea instituzioen aurrean, aisialdirako eskubidea bermatzen duten alderdiekin lotuta: adibidez, espazioetako irisgarritasuna betetzeari dagokionez, edo zaintza-sistema publikoa ezartzeari dagokionez, emakume zaintzaileek aisialdi eta denbora libre gehiagoz gozatzeko.
- Eragin politikoko prozesuetan parte hartzea Atzerritarren Legea indargabetzeko, pertsona migratzaileei oinarritzko eskubideak kentzen dizkielako.
- Herritarrak mugiarazteko deialdietan parte hartzea, adibidez, Regularización Ya kolektiboak aurkeztu duen Legegintzako Herri Ekimenean; bai eta kalean lurrean saltzen duten pertsonen eta etxe langile migratzaileen aldeko eta poliziek pertsona arrazializatuen aurka gauzatutako indarkeriaren kontrako kolektibo arrazistek deitutako manifestazioetan ere.

- Administrazio publikoari eskatzea dibertsitate funtzionala duten pertsonen laguntzaileek aisialdi-jarduerak ordaindu behar ez izatea: doako sarrerak zinerako, antzokietarako, ikuskizunetarako, etab.
- Aisialdi-proposamen inklusiboak eta interseksionalak suspertzea udal-gaztelekuetan.
- Kalitatezko gidaliburuak sortzea berdintasunez eta inklusioz arreta emateko, aisialdi-jarduerak eskaintzen dituzten lokal eta establezimendu publikoetarako eta pribatuetarako.
- Ingurumen-ziurtagiriak ezartzen dituzten bezala, inklusio- eta berdintasun-ziurtagirien ezarpena suspertzea aisialdiarekin eta denbora librearekin lotutako sektore publikorako eta pribaturako.
- Aisialdiko eta denbora libreko establezimendu publikoetan eta pribatuetan ez diskriminatzearen alde jotzen duten bereizgarrien erabilera sustatzea (ortzadar koloreetako banderak, mezu antirrazistak, eraso matxisten aurkakoak, etab.). Bereizgarri horiek sakontasun handiagoko kanpainekin lotu behar dira, *pinkwashing*-a bezalako fenomenoak ez suspertzeko.
- Jarduera-proposamen bat sustatzea komunitatetik eta komunitatearentzat oro har. Horretarako, parte hartzeko prozesuak sortu behar dira, eta horiek komunitateari aukera eman behar diote aisialdi-proposamenen inguruan sozializatzeko, aniztasunera egokitutako proposamenak sortzeko.
- Aisialdi-espazio ez kapazitistak sustatzea, pertsona nagusiak eta haurrak joan ahal izateko, zaintzetarako espazio bereizirik egon behar izan gabe.
- Aisialdi-espazioak gaitzea eta sustatzea ikuspegi interseksionaletik eta ez merkantilistatik: doako jarduerak kaleetan, kiroldegietan, parkeetan.
- Eragin politikoa duten prozesuak egitea instituzioen aurrean, espazio publikoak askatasunez erabiltzea zailtzen duten udal-ordenantzak aldatzeko.
- Gaueko eta eguneko aisialdi-espazioetan eraso matxistak eta arrazistak saihesteko proposamen bat eratzea (hiri debekatuaren mapen aurreko erantzuna³⁹).

39. 1996an, Plazandreak emakumeen plataforma politikoak Donostiako Hiri Debekatuaren Mapa argitaratu zuen, eta orduz geroztik beste hainbat herritan bultzatu da ekimena. Horren bidez, emakumeen parte-hartzea sustatzen da, hirigintza-aren inguruko analisi kritikoa egite aldera.



4

Ondorioak





1. HELBURUA

NOLA ULERTZEN DIRA AISIALDIA
ETA DENBORA LIBREA

Ikerkuntzaren ondorio nagusiak aurkeztuko ditugu orain, formulatutako helburuen eta hipotesien arabera antolatuta.

1. HIPOTESIA. GALDETUTAKO PERTSONEK AISIALDIA ETA DENBORA LIBREA NAHASTEN DITUZTE

Galdetutako pertsonen aisialdia eta denbora librearen anbiguitasunez bereizten badituzte ere, arrazializazioaren aldagaiak definizioari eragiten dio antzaz.

Pertsona migratzaileek eta arrazializatuek uste dutenez, aisialdia eta denbora librearen gizartearen eraikuntza dira, eta ekoiztea lehenesten duen gizarte-ereduan oinarritzen dira. Beste alderdi batzuk alde batera uzten ditu eredu horrek, esaterako, giza harremanak, zaintzak eta aisia.

Planteatu denez, aisialdi-eredu horrek ez du bat egiten pertsona migratzaile eta arrazializatu askoren bizitzarekin. Horrek premiaz hausnartzeko beharra dakar, zehazki, gozatzeko denbora liberik benetan nortzuk duten ikusteko, eta, horrela, aisialdia eta denbora libre gero eta pertsona gutxiagorentzako pribilegio bat bihurtzen ari direla ikusarazteko, funtsezko giza eskubide bat izan beharrean.

2. HIPOTESIA. AISIALDIA ETA DENBORA LIBREA NAHASTEAREN NAHITASUN HORI SISTEMA KAPITAL/KOLONIAL/HETEROPATRIARKALAK SORTZEN DU

Ikerkuntzak ondorioztatzen du gizarte kapitalistan eta heteropatriarkalean aisialdiak desorekak eta indarkeria matxistak dakartzala. Gainera, zenbait faktorek, adibidez, arrazializazioak edo dibertsitate funtzionalak, are zailagoa egiten dute atsedean hartzea eta gozatzea. Hala, aisialdiari eta denbora libreari buruzko azterketetan ezinbestekoa da analisi interseksionala txertatzea, zenbait aldagaik (sexu- eta genero-aniztasuna, arrazializazioa edo dibertsitate funtzionala, besteak beste) emakumeen aisialdiari nola eragiten dioten ulertzeko. Gainera, denbora horiek modu inklusiboan antolatu behar direla ikusten lagunduko du, eta, horretarako, esperientzia, behar eta lehentasun anitzak hartu behar dira kontuan.

3. HIPOTESIA. GALDETUTAKO PERTSONEK AISIALDIA LOGIKA KONTSUMISTAREKIN ULERTZEN DUTE

Inkestaturen artean, gehien egiten duten aisialdia da lagunekin edo ahaideekin hitz egitea, kirola egitea eta paseatzea. Lehentasunak aldatzen dira adinaren, generoaren eta arrazializazioaren arabera. Aisialdia etxetan, naturan eta espazio publikoetan egin ohi da, nagusiki, lagunekin edo bikotekidearekin. Emakumeek gizonak baino gehiago gastatzen dute aisialdian.

Ikuspegi kualitatibotik ikusten denez, aisialdiak eta denbora libreak logika kapitalistaren eta merkantilistaren eragina dute, eta horrek bazterketa dakar. Denbora libreaz modu inklusiboan eta dohainik gozatzeko aukerak mugatzen dituzten gizartearen aginduek eta presioek aisialdi-erabakiak baldintzatzen dituzte; izan ere, aisialdi «esklusiboa» eta ordainpekoa lehenesten da gizarte kapitalistan. Halaber, BBVA aisialdi-ereduarekin bat egiteko nahia nabarmengarria da, pertsonen asmoei eta nahiei eragiten baitie.



2. HELBURUA

NOLA ERAGITEN DUTE DESOREKA-ARDATZEK AISIALDIAREN
ETA DENBORA LIBREAREN GOZAMENEAN

1. HIPOTESIA. ATZERRITARREN LEGEAK EUSKADIRA ETORRI- TAKO ETORKINEI GALARAZTEN DIE ESPAZIO PUBLIKOAZ GO- ZATZEA

Atzerritarren Legeak pertsona migratzaileei eta arrazializatuei eragiten die espazio publikoaz gozatzerako orduan, «erregularizatuta» dauden horiei ere bai. Ondorioz, ez dute sentitzen bertakoak direnik eta aisialdi-espazio horiez gozatzeko mugatuta daude. Inkestaren arabera, %9k adierazi dute polizien agerpenagatik deseroso sentitu direla aisialdi-espazioetan; eta hori ohikoagoa da atzerritarren artean (%18). Emakume migratzaileek eta arrazializatuek estigmatizazioa, indarkeria eta bazterketa jasaten dute aisialdi-espazioetan, opresio ezberdinen intersekzioagatik. Premiazkoa da segurtasun espazio komunitarioak sortzea ikuspegi antipunitibista eta antirrazistatik, integrazioa, segurtasuna eta komunitatearen parte sentitzea bultzatuz.

2. HIPOTESIA. GERO ETA EROSTEKO AHALMEN HANDIAGOA, ORDUAN ETA BBVA EREDUAREN GOZAMEN-GAITASUN HANDIAGOA

Ikerkuntzaren emaitzek aukera ematen digute honako hau baieztatzeko: BBVA eredu oso garestia eta esklusiboa da, eta ez da jasagarria; inkestatuek egiten dituzten jarduerak, berriz, eskuragarriagoak dira: pa-seatzea, hitz egitea eta kirola egitea.

Nahi diren jarduerak egiteko oztopo hauek aipatu dituzte inkestatuek: dirurik, denborarik eta sare sozialik eza eta eskaintza kultural anitzik eza. Bereziki, pertsona gazteei, ez-bitarrei, dibertsitate funtzionala dutenei eta ama ezkongabeei eragiten die. BBVA aisialdi-ereduarekin bat egiteko nahia nabarmengarria da, pertsonen asmoei eta nahiei eragiten baitie. Aisia, logika kapitalistan txertatuta dagoenez, kontsumorako tresna bat da eta eredu kapitalista, patriarkala eta arrazista sendotzen du.

3. HIPOTESIA. BBVA AISIALDI-EREDUAK PRIBILEGIO HANDIAGOAK DITUZTEN PROFIL JAKINEI DAKARKIE ONURA

BBVA eredu baztertzaila da, eta giza aniztasuna kontuan hartzen ez duen sistema heteropatriarkalean eta kapitalistan txertatuta dago. LGTBQIA+ pertsonen aisialdi-aukerak mugatuta daude, ikuspegi zisheteronormatiboa nagusi delako. Dibertsitate funtzionala duten emakumeek zailtasunak dituzte aisialdi-proposamenak eskuratzeko eta, jardueretan parte hartze aldera, sare sozialak sortzeko.

Emakumeen aisialdia mugatuta dago, prekaritatea, indarkeria eta errua direla medio, bereziki, zaintzako erantzukizunak dituztenena. Emakume migratzaileek eta arrazializatuek oztopo ekonomikoei eta estigmatizazio-oztopoei aurre egin behar diete, eta horiek aisialdiaz eta denbora libreaz gozatzeko gaitasuna murrizten die. Opresio-ardatz horiek elkartzen dira askotan, eta kalitatez atsedean hartzeko eta gozatzeko zailtasunak areagotzen dituzte.

4. HIPOTESIA. LANAREN SEXU-BANAKETAK ETA MAITASUN ERROMANTIKOAREN KONTZEPTUAK EMAKUMEEN AISIALDIA ETA HAREN ERABILERA MURRIZTEN DITUZTE

Bildutako datuek erakusten dutenez, lanaren sexu-banaketak asko eragiten die aisialdiaren eta denbora librearen aukerei, bereziki, emakumeenei. Ikusi denez, emakumeek, bereziki, zaintzaileek, denbora gutxiago darabilte aisialdirako astean zehar eta asteburuetan, gizonekin alderatuta. Gainera, beste pertsona batzuk zaintzea oztopotzat jotzen da aisialdirako, bereziki, emakume zaintzaileen artean. Horrez gain, erru-sentsazioa hauteman da zaintzaileen artean, zaintzen dituzten pertsonen gabe aisialdiaz gozatzerakoan, bereziki, emakume nagusien artean.

Bestalde, bikotekidea edukitzeak edo ez, bereziki harreman heterosexualetan, emakumeen aisialdiari eragiten dio, aisialdi-aukerak bikotekidearekin negoziatzeko behar handiago dutelako, batez ere zaintzaileen kasuan. Gainera, gaueko aisialdian ligatzeko presioa egiten die gizarteak emakume gazteei. Eta egoera horretan, bikotekidea edukitzeak lasaitasuna dakar, antzaz, deserosotasuna eragiten duten egoeren aurrean.



3. HELBURUA

AISIALDI MERKANTILIZATUAK DAKARTZAN INDARKERIA MATXISTAK

1. HIPOTESIA. BBVA AISIALDI MERKANTILIZATUAREN EREDU KONTSUMISTAK INDARKERIA MATXISTAK SORTU ETA BIR-SORTZEN DITU (EGITURAZKOAK, SINBOLIKOAK ETA ZUZENAK)

Ikerkuntzak ondorioztatu duenez, aisialdi merkantilizatuan egiturazko indarkeriak, indarkeria sinbolikoak eta indarkeria zuzenak gertatzen dira eta emakumeei eragiten diete neurrigabe.

Lehenik, lanaren sexu-banaketak gizartean errotutako errealitatea izaten jarraitzen du, eta horrek esan nahi du emakumeek hartzen dituztela zaintza-erantzukizunak, ordainduak eta ordaindu gabeak. Ondorioz, aisialdiaren eta aisialdirako baliabideen banaketa desorekatua da, emakumeek denbora gutxiago dutelako eta askotan beren denbora librea baztertu behar dute beste pertsona batzuk zaintzeko.

Gainera, emakume migratzaileek eta arrazializatuak zama osagarria dute, gizartearen opresio- eta diskriminazio-dinamikak direla medio. Hortaz, aisialdiaz modu berdintsuan gozatzeko aukera urriagoak dituzte. Aisialdi-espazioetan beren nortasun kulturalak eta sozialak ordezkaturak eta aitortuta ez egoteak bazterketa eta marjinalizazioa bultzatzen ditu.

Bigarrenik, aisialdi-eredu merkantilizatuaren erabat lotuta dago logika kontsumistarekin eta produktibistarekin, non aisialdi-jardueren balioa neurtzen den diru-sarrerak eta etekin ekonomikoak eragiteko gaitasunaren arabera. Horrek aisialdi-jardueren eskaintza mugatua dakar eta araudiak alde batera uzten ditu mugapen ekonomikoak dituztenak.

Presio sozialak eta genero-estereotipoek rol garrantzitsua betetzen dute ere bai aisialdi-esperientzien konfigurazioan, bereziki, emakumeentzat eta pertsona ez-bitarrentzat. Aisialdi-espazioetan emakumeen gorputzen sexualizazioaren eta erotizazioaren ondorioz, arau kultural baztertzailerak bultzatzen dituzte eta zenbait talderentzako etsai-inguruak sortzen dituzte. Horiei laguntzen die ere bai komunikabideetan eta publizitatean egiten den genero-nortasunen irudikapen estereotipatuak.

Azkenik, «ezer ez egitearekin» lotutako errua eta emakume migratzaileen eta arrazializatuaren estigmatizazioak zuzeneko inpaktua dakar, atsedenez eta lasaitzeko tarteez erabat gozatzeko gaitasuna mugatzen delako. Horrek agerian uzten du gizarte osoan barneratuta daudela aisialdi-forma ez ekoizleei edo ez normatiboei balioa eta zilegitasuna kentzen dieten balioak eta itxaropenak, eta, ondorioz, zenbait talde baztertzeko eta marjinalizatzeko dira gizartean.



4. HELBURUA

INDARKERIA MATXISTARIK BIRSORTZEN EZ DITUEN
AISIALDIAZ GOZATZEKO GAKOAK

ALDAKETA PERTSONALAREN AHALMENA

Esparru honetako proposamenek barne hartzen dituzte gogoeta pertsonala eta kolektiboa egiteko prozesuak, aukera emango digutenak kontsumotik urrun dauden eta gure behar, nahi eta asmo indibidualetan oinarritzen diren aisialdi-jardunak antzemateko. Hortaz, gizarteak inposatutako kontsumo-dinamikak zailentzan jarri eta alternatibak bilatu behar dira, gure denboraz benetan eta modu esanguratsuan gozatzeko.

Halaber, garrantzitsua da produktibitateaz ahaztu eta gure alderik intimoenarekin eta sortzaileenarekin konektatzeko uneak bilatzea. Aisialdi-une horiek sakratuak izan daitezke, gure nortasuna arakatzeko, libreki adierazteko eta gure osasun mentala eta emozionala elikatzeke.

KKAEtik lan handia egin da aisiak ingurumenari dakarkion inpaktuaz kontzientziatzeko. Onuragarria litzateke gogoeta eta proposamen horiei aisialdi inklusiboaren, dekolonialaren eta antipatriarkalaren ikuspegia gehitzea. Horrek esan nahi du aintzat hartu behar dugula gure aisialdi-jardunek opresio- eta diskriminazio-egiturak birsortu eta iraunarazi ahal dituztela, eta lan egin behar dugula aisialdi-espazio atseginak eta irisgarriak sortzeko pertsona guztientzat, edozer dela beren generoa, arraza, sexu-orientazioa, gaitasunak edo baldintza sozioekonomikoak.

INDAR KOLEKTIBOAREN AHALMENA

Kolektiboki prestatu behar ditugun proposamen eta logika produktibistetan oinarritzen ez den aisialdi-eredu ugari daude eta ikuspegi ezberdinetatik egin daitezke: dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako jardueren eskaintza handitzea eta horien plangintzan haiek parte hartzea; gazteei erraztea haiek berek kudeatutako espazioetara sartzera, adibidez, gaztetxeetara; lehiaketak egitea aisialdi-jarduerak inklusiboak diseinatzeke; analisi-prozesu feminista dekolonialak egitea aisialdi-ereduei buruz; aisiari eta indarkeria matxistei buruzko sentsibilizazio-kanpainak egitea; jarduerak antolatzea espazio publikoetan, aisialdi kolektiboko espazio gehiago aldarrikatzeko.

JOKO-ARAUAK ALDATZEKO AHALMENA

Hona hemen aisialdi merkantilizatuaren egiturak ikuspegi politikoarekin eta ekonomikoarekin aldatzeko proposamenak: politikoki eragitea aisialdiaz gozatzea bermatzen duten alderdietan, hala nola espazioen irisgarritasuna eta zaintza-sistema publikoa ezartzea; dibertsitate funtzionala duten pertsonen laguntzaileek aisialdi-jarduerak ordaindu behar ez izatea eskatzea; proposamen inklusiboak eta intersektionalak udal-gaztelekuetan; berdintasunez eta inklusioz arreta emateko kalitatezko gidaliburuak prestatzea aisialdi-establezimenduetarako; inklusibitateko eta berdintasuneko ziurtagiriak ezartzea aisiarekin lotutako sektore publikorako eta pribaturako; aisialdi-establezimenduetan, diskriminazioaren aurkako bereizgarriak erabiltzea sustatzea; aisialdi-establezimenduetan erasoaren aurkako protokoloak prestatzea eta aplikatzea; komunitatearen aniztasunari egokitutako parte hartzeko proposamena sustatzea; aisialdi-espazio ez kapazitistak gaitzea, adin guztietarako inklusiboak; gaueko eta eguneko aisialdi-espazioetan eraso matxistak eta arrazistak saihesteko proposamenak prestatzea, etab.

5

Bibliografia

- ✓ Agenjo Calderón, A. (2016): *Repensando la economía feminista desde las propuestas de(s)coloniales* (Ekonomia feminista berriz pentsatzea proposamen dekolonialetatik). Revista de Economía Crítica, 22. zenb.
- ✓ Aisiaren Mundu Erakundea: Aisialdiari buruzko gutuna. Eskuragarri hemen: https://www.worldleisure.org/wlo2019/wp-content/uploads/2021/07/Charter-for-Leisure_es.pdf
- ✓ Alianza por una Cooperación Feminista Global (Lankidetzeta Feminista Globalaren aldeko Aliantza) (2017): *Posicionamiento en la lucha contra las violencias machistas* (Indarkeria matxisten aurkako borrokaren inguruko iritzia). Eskuragarri hemen: <https://alianza-porunacooperacionfeministaglobal.files.wordpress.com/2019/09/posicionamiento-violencias-machistas-alianza.pdf>
- ✓ Altamira Basterretxea, F. (2017): *Bailando con el deseo. Algunas claves para incorporar la diversidad sexual y de género en las ONGD* (Desirarekin dantzan. GGKEetan sexu- eta genero-aniztasuna sartzeko zenbait gako). Garapen-prozesuetako ikerkuntza-koadernoak, 19. zk.
- ✓ AWID (2004): *Interseccionalidad: una herramienta para la justicia de género y la justicia económica* (Interseksionalitatea: genero-justiziarako eta justizia ekonomikorako tresna bat). Derechos de las mujeres y cambio económico, 9. zk.
- ✓ Down21 fundazio iberoamerikarra: Aisiaren eta denbora librearen profesionalentzako atala - Aisialdi kontzeptua. Eskuragarri hemen: <https://www.down21.org/desarrollo-personal/110-ocio-y-tiempo-libre/847-seccion-para-profesionales-de-ocio-y-tiempo-libre.html?s-tart=1>
- ✓ Gipuzkoako Foru Aldundia (2014): *Indarkeria matxistari buruzko dokumentua, Gipuzkoako Foru Aldundiak erabilitako terminologia eta haren euskarria den analisia*. Donostia.
- ✓ Lázaro, Y., Madariaga, A., Lazcano, I. eta Doistua, J (2012). *El derecho al ocio: un derecho humano en ocasiones desconocido* (Aisialdirako eskubidea: batzuetan ezaguna ez den giza eskubide bat).
- ✓ Lazcano, I. eta Madariaga, A. (2016): *El valor del ocio en la sociedad actual* (Aisialdiaren balioa gaur egungo gizartean). Aisiaren Ikasketak Institutua - Deustuko Unibertsitatea. Eskuragarri hemen: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6149004>

- ✓ Mérelas, T. eta Caballo, B. (2018): *Enfoques feministas sobre los tiempos de ocio de las mujeres* (Ikuspegi feministak emakumeen aisialdi-tarteei buruz). Eskuragarri hemen: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6817379>
- ✓ Nahia (2013): *Los deseos olvidados. La perspectiva de género y de diversidad sexual en la Cooperación al Desarrollo, en la Educación para la Ciudadanía Global y en la promoción y defensa de los DDHH de las personas inmigrantes y refugiadas* (Desira ahaztuak. Genero-ikuspegi eta sexu-aniztasuna Garapenerako Lankidetzan, Munduko Hiritarrentzako Hezkuntzan eta migratzaileen eta errefuxiatuen giza eskubideen sustapenean eta babesean). Bizkaiko Foru Aldundia
- ✓ Pérez-Orozco, A. (2014): *Subversión feminista de la economía* (Ekonomiaren iraultza feminista). Traficantes de Sueños. Eskuragarri hemen: https://traficantes.net/sites/default/files/pdfs/Subversi%C3%B3n%20feminista%20de%20la%20econom%C3%ADa_Traficantes%20de%20Sue%C3%B1os.pdf
- ✓ Pikara Magazine (2023): *Delitos de odio contra las Mujeres* (Emakumeen aurkako gorroto-delituak) monografikoa.
- ✓ Salazar C., C. M., & Arellano Ceballos, A. C. (2015): *El concepto ocio en la vida moderna de Latinoamérica: revisión y apuntes para una ingeniería sociocultural | review and notes for a sociocultural engineering: leisure in modern life in Latin America concept*. Razón Y Palabra, 19(2_90), 223–232. Hemen eskuragarri: <https://revistarazonypalabra.org/index.php/ryp/article/view/153>
- ✓ SETEM Hego Haizea (2016): *Indarkeria kontsumitzen dugu? Indarkeria matxistei eta kontsumoei buruz ikasteko eta ezagutza sortzeko prozesu kolektiboa*. Marko teorikoa: 34-66. or. Eskuragarri hemen: https://www.setem.org/euskadi/wp-content/uploads/sites/16/2021/09/indarkeria_kontsumitzen_dugu.pdf
- ✓ SETEM Hego Haizea (2017): *Indarkeria kontsumitzen dugu? Indarkeria matxistei eta kontsumoei buruz ikasteko eta ezagutza sortzeko prozesu kolektiboa (II. Fasea)*. Eskuragarri hemen: <https://www.setem.org/euskadi/wp-content/uploads/sites/16/2021/09/IndarkeriaKontsumitzenDuguII.pdf>

Setem

www.setem.org/euskadi

@SetemHegoHaizea

